—Lenengoa Fortuna izenekoa zan. Zaartuta zegola, ura sartzen zitzaioan, Olabeaga'n foerri bat egin zuten. Ruperto Mendi-guren zan egillea eta ontzia pailefoota zan...

—Zer...?

—Pailefoota. Nere amak foeti esaten eban «paJlebota». Bi mastako foarkua zan.

—Noiz egiten zuten...?

—Ni jaio aurretik. Eta larogei urte ditut pasiak. «Manuela» zuan izena. Bere footadurarako zure aita Eustakio bere aita Donato'rekin joan zan Olabeaga'ra eta uretara erori zan mutilla. Bere aitak atera zuan uiretara salto egin da... Arrezkero ez zuan onik izan geiago zure aitaitak.

—Ez al dezute fotografirik edo...?

—Ez. Galdu egin zan, foarkua berbera bezela. Zure aita Eustakio'k galdu eban. 21 urte zituala barkua eskatu zuan eta Atlantiko itxasoan galdu zan. Eskerrak eurak ingles barku foatek artu zitula... «Adios barco y dineros» ... (Dio berak erderaz). Obe bapo'retan jarraitu balu, belakuakin asi baiño (29).

Donato, «Manuela» pailebotaren patroia, dendatik goiko bisitzara igo da. Bere lenengo lana, orman txintxilika dagoen ordulariaren sokari eragiñ gelditu ez dediñ...

Beko dendaren buru bere emaztea da.

Denda... Dendatxoa.

Ateetan (bebarruan edo portalean) zeukan etxeak dendako atea eta bizitza guztietarako eskillera-asiera. Kaleko atearen aurirez-  
-urre eskillera-maillak eta bodegarako ate bat. Ezkerretara dendaren mostradora eta atea. Dendaren barrenean, leiorik gabe, egur-  
-ikatsezko bi sutegi txiki. Aien eskubitara eta eskillera-barrenerarte, aska aundiak urdaia eta urdaiazpikoak ontzeko.

Amafostean beñ iltzen zuten zortzi arruako txerritxu lodikote mutur-motza. Eta gaztea. Ez zuan Pillipa'k txerri zaarrik nai. Ez eta bizkar-ezur luzekorik ere. Zortzi arruatik gorakorik ere ez.

—Pillipa'k txarria ill dau...

Ori entzutearekin batera, an zeuden kaleko emakumeak, ate ondoan, odolosteak egosi-zai. Egosi ala saltzen ziran...

ic ii w

Urdaiazpikoa eta bakaillaua, gantzak eta urdaia, olio eta koipea, ogia eta lukaikak, albarketak eta txapiñak, zapatak eta bortzegiñak, egurrezko txankloak, artile-matasak, abarkak eta kaiña-pattarra... Zer, ez...?

—^Pilipiña, prestame cinco pesetas.

Azkenik, prestamista ere bai.

Mostradore azpian, an zeuden garantirako Ramon'en eskontza-eguneko oiñetakoak. Ramon zan Ferrolaniaren senarra. Lekeitiarra, bera. Estu bizi ziran etxean; setne-alabak ere bai-ta... Onelako alkarrizketak izan oi zituzten:

—Ramon miserable, pobre y orgulloso, Severo esta en la cama con mal de ojos.

—Severo y tu, jvete a la puñeta!

Euskaldun lekeitiar arrantzaleak erderaz ari bear bere etxean... Ferrolana eta bere senarraren alkarrizketa au askotan aitatu

*Lekeitio ha tenido una gracia especial para poner en solfa los grandes y los pegueños acontecimientos de la Villa.*

*Hay repertorio interminable de canciones, que los lekeitianos gustan cantar en sus reuniones de sociedad.*

*Aquí voy a recordar solamente una que tuvo un eco extraordinario en ambos lados de las trincheras durante nuestra guerra civil última, y que desde ellas se extendió por todo el País Vasco.*

*Es aquella de:*

*«Antero'n txamarrotia,  
Singer'en bibotia,  
aretzek ei dauko, ei dauko  
preso tximiñoia...»*

*Aniero y Singer eran pescadores lekeitianos, habituales pescadores de merluzas en seco...*

*Aquella tarde de que hablbamos el patrón del pailebot «Manuela» llegaba a casa herido de muerte.*


*Enfermo y al cuarto día murio, dejando a su viuda con siete churumbes colgados de sus faldas.*

*La liberalidad de don Pascual Abarroa (Pascualito para los lekeitianos) había creado una Escuela de Nduiica.*

Lekeitio'ko kaia «Manuela» barkua egin zanean (1891).

*Gracias a esta Escuela, pudo el pequeño Eustaquio hacer estudios de piloto.*

*Hizo los «dias de mar» por esos mares de Dios, y, al llegar a la mayoría de edad, reclamó para sí el barco de su padre, para perderlo en alta mar...*



*Pasaron los años. Mando toda clase de barcos, con velas y sin ellas...*

*En el año 1927 lo vemos salir de Pasajes camino de Terranova al frente de un barco de 1600 toneladas, con 64 hombres a bordo.*

*Es uno de los dos que ha montado y armado la P.Y.S.B.E. para reanudar, al cabo de doscientos años, la pesca del bacalao.*

*La P.Y.S.B.E. había recurrido a la Btetaña francesa para buscar los hombres que nos enseñaran a pescar y preparar el bacalao. Estos no se esforzaron con exceso y los capitanes (la oficialidad y la gente de máquinas era nuestra) a los dos años manifestaron a la Compañía que podían hacer el trabajo ellos solos sin ingerencias extrañas...*

*Había yo cumplido los quince años y vivíamos en Lazkano.*

*Este detalle tiene su importancia, porque es el momento de buscar*

izan degu geure etxean. Zenbat aldiz ez ote nuan ikusi, eta neure begiz ikusi ere amaika urte nituela, andra txikitxo ura, zimurrez betetako arpegi triste arekin, nere amama Pillipa'ri laguntza eske...

Dendaren erdian maitxo bat, naiko zafal baiña oso motza. Zesteruak egindako aulki motzak. Mai orretan jaten zuten eta mai orren iguruan tertulia egiñ gau-etdiraiño. Bertan jan, bertan egon, bertan bizi.

Lo egiteko, goiko bizitzara.

Lo egiteko, bakar-foakarrik.

Senarra itxasoan zebillenean (beti, alegia), apalondoan, lagun-mordoa biltzen zitzaion, dozenerdi bat, Pillipa'ri mai inguruan. Sorgiñak astintzen zituzten gauero eta itxasoko gertaera zaarrak.

Ba zan lagun aien artean Benita bat, sorgiñ-izenekoa bera ere. Beiñ baiño geiagotan ikusi omen zuten, izara zuri bat soiñean, gaueko arrantzaleak ikaratu naiean.

Benitakin foatera etorri oi ziran Leona «Morrón», Mikela «Koxia», Agustiña «Kapurotar» (gtbela kapurotarra baiño aundiago zuelako) eta Mari «Txone», billera aren aitzakiakin, kaiña-kopatxo bat edatera.

«Andra-Mariñasinekoak» giñan gu.

Gau foatean, Iñauteriak ziran, baztar guztiak maixiatzen ari zirala gure atsuok, denda aurreko atarian sartu eta onela abestu zien barrukoeri marmo batek:

Si, Si, Andra Mariñasi;  
No, no, no, no, Bartolo Arropaingo;  
Ua, ua, Erramon Bolua  
ta aren alafoa  
Leona Trokua.

Nere amamaren asarrea...! Aulkitik jeiki eta mostradore-gaiñeko kilo-pisua artu zuan eskuetan Pillipa'k. Ordurako marmoak alde egin zion:

—^Lotsagaibe galanta...!

Bere Arropain'go famili guztia ez zion ba solfan jarri...!

*tripulacion para reanudar en Terranova la pesca del bacalao, olvidada hacia 200 años, nos vamos a encontrar con una sorpresa: fue el Goyerrri guipuzcoano quien suministro la mayor parte de esa tripulacion...*

*Lazkao, Beasain, Ataun, Zaldivia, Olaberria... dieron los primeros tronchadores, saladores y rederos de la pesca del bacalao...*

*Un capitán lekeitiano casó en Baracaldo con una joven de Lazkao que se lo llevo al Goyerrri.*

*Todo se explica. Este capitán, cuando necesito hombres para Terranova, los busco en el entorno en que vivia...*



Lekeitio.

Gertakizunak solfan jartzeko abilitade bereizia zuten lekeitiarrak. Erderaz bezela euskeraz ere, naaste-borraste batean.

Ona emen neronek neure ume-aroan Lekeitio'n ikasitako foatzuek:

Imprentero quiere casar  
y no safoe con quien.  
Eusebia no le quiere  
y no sabe lo que hacer.  
Imprentero, txapel txiki  
Eusebi'ri itxoten;  
Eusebi etorri ez da  
atetan txis egiten...

Imprentero erdalduna zan eta Eusebi lekeitiarra.

Ona beste, pintore erdaldunakin zebillen neska zaar bateri:

Ankeliña caxate,  
no seas iñusente,  
aunque sea con el pintor  
y saforas lo que es amor...  
Ankeliña caxate,  
no seas iñusente.

Benito «Kukumarro» arrantzale mutil-  
-zaarra zan eta Langreo, asturiar emakumea:

Benito «Kukumarro»  
nobixia topaten.  
Topa dau,  
topa dau,  
Langreo'n alabia  
nofoixia  
topa dau.

Langreo'rentzat musika eta bertso ,  
asko sortu zituzten:

Langreo'k alabia  
majatuta dauko,  
Otaixo indianua  
etorten daneko.

Kalkule uste, pues, pues, Ixirora;  
ama ataraxu otzaratik kanpora...

Langreo ta Pitxarra  
pertzdbetan asi,  
Langreo gixajia  
txirrist'ein da yausi.

Kalkula uste, pues, pues...

Musika onekin gertakizun asko abesten  
zituzten. Ona ale batzuek:

Orduan egunian  
Bittor etzan poztu,  
Kusto'k eta Kandido'k  
konekuak ostu.  
Kalkula uste, pues, pues...

Orduan egunian  
jan eben bokarta,  
Santi barrilleruak  
auskia aparta.  
Kalkula uste, pues, pues...

Barrillero bale-arrantzako eginkizuna da.  
Bale-arrantza galduta ere, ofizioak irauten zuan  
oraindik-orain. Gaur gastatuak izango dirala,  
uzte dut.

Ba ziran kanta geiago ere:

Mikela, Mikela koxia,  
Trinide'n, Trinide'n alaibia.  
Bilfoo'tik, Bilbo'tik ekarrikotzo  
Txutxiñ'ek, Txutxiñ'ek muletia...

Ona beste bat:

Mari Galdakaiño sospaletan  
sospalak batun da,  
kaka albarketan...

Eta beste au:

Treotzaria emon, Mercedes, Mercedes;  
Treotzaria emon, Mercedes, Mercedes;  
Treotzaria emon, Mercedes, Mercedes;  
baiña, niri ardurik ez...

Gertakizun xeeak dituzu guztiak. Xeeak  
eta ardura gutxikoak izan arren, bersolari eta  
musikalaririk ez zan palta oiek danak  
jasotzeko... Eguneroko gatza eta piper-miña  
ziran abesti auek.

Bi kanta geiago aitatuko ditut. Ona  
lenengoa:

Lekeitio'ko San Pedro'peko  
iturriaren aurrian  
amalau atso despeskan dagoz  
«Askatasun» baporian.  
Prieto jauna alkate degu,  
Agustintxu da konzejal,  
Juan eta Antoliñ alguazil dira  
«Rebeka» dauke kartzelan...

San Pedro'ren irudia Kofradia zaarraren  
orma gaiñean zegoan, eta aren azpian iturri bat.  
An dagoala oraindik, uzte dut, moillaren  
ondoan. Tresmaillakin arrapatutako bokarta  
edo antxoia, sarean gelditzen zan burutik trabatuta.  
Aiek andik ateratzea zan «despeskan» jardutzea.  
Zenbat bildur sartu ez ziguten kolkoan Juan  
alguazilla zala ta... Asturiarra zan. Antolin,  
berriz, euskalduna. «Rebeka», mariñel gizarajo  
bat. Zergaitik jarri zioten «Rebeka» gaitz-izena?  
Egun guztian «Ay mi Rebeca» esaten aritzen  
zalako...

Ona bigarren kanta:

Arioplano foi pasau-ta  
bat itxasora yausi.  
Arioplano bi pasau-ta  
bat itxasora yausi.  
Ekarri,  
Seberiano'k ekarri,  
Seberiano'k ekarri,  
Seberiano'k barran  
pondo-eman da-itxi...

Antero'n txamarrotia,  
Sinjer'en bifootia;  
aretxek ei dauke  
preso tximiñoia.  
Antero'n txamarrotia,  
Sinjer'en biibotia;  
aretxek ei dauke  
preso tximiñoia...



Foto Antton Elizegi.



Nik dozenerdi bat urte izango nituan  
Seberiano'ren ontziak Lekeitio'ko kai-aurrera  
egazkiña ekarri zuanean. Gertaera arrigarria  
izanik, kantatxo foat merezi zuan Seberiano k.  
Ez dakit nundik eta nora josi zuten Antero eta  
«Sinjer» kanta Seberiano'renakin batera.

Antero eta «Sinjer» bi mariñel lekeitiar  
ziran. Seberiano, berriz, patroia.

Gerra denboran zabaldu zan (anai-arteko  
gerra negargarrian, alegia) Euskalerra guztian  
afoesti pare au alkaturik. Itzen batzuek aldatuta,  
noski. «Sinjer»'en ordezkari Kaiser, edo Apaizen eta  
abar esan oi dituzte; Lekeitio'tik at ez bait zuan  
«Sinjer» itzak sentidurik...

\* \* \*

Gauak, neguko gau luzeak, izan arren,  
arin pasa oi ziran foerriketa artean. Eta  
berriketarik ez zitzaien palta gure dendako  
atso-kuadrillari. Inguruan, gu, umeok ao-zabalik,  
nagusieri begira. Amabiak jotzeko minutu gutxi  
billera amaitzen zanerako. Kandelatxo bat piztu  
eta goiko bizitzara igo foear lotartzeko. Ordurako  
bildurra gendukan ezurretaraño sartua. Sala-  
-ondoko gelatxo txikia zan nerea. Oian sartu  
orduko, kan kan kan serenoa zetorren kalean  
beera bere lantza luzearen kirtenakin kaleko  
arriak joaz:

—jLas doce y sereno...!

—;La una y txingorreando...!

Atsoen sorgiñ-ipuiak asko ez zirala,  
oraiñ berriz gaueko-zaindari onen afootz triste...  
Ots-ikara sartzan zitzaidan bizkar-ezurrean  
barrena. Oge-estalkiekin burua gordetzen nuan...  
Nekea, orratio, gizonaren kupigarri eta ark  
artzen nindun bere magalean lo.

Aitaitaren ordularia an zegoan salako  
ormen txintxilik eta lo ura ere. Geldirik, alegia.

Ordularia zan nakar-pitxiz edertua eta  
«Manuela»ko patroiak ekarria. Berak bakarrik  
eragiten zion orduariaren sokari. Beñ izan zan  
eragite orren azkena:

—Zer dezu, Donato? Arpegi zantarra  
dakartzu gaur...!

—Bai, Pillipa. Txarto nator. Gerriko miña  
daukot...

Gerriko miña eta gultzurrunak ondo ez...  
Iru egun barru gelditu zan Pillipa alargun.  
Zazpi ume bere gonetatik zintzilik.

Nagusiena, neska, amari laguntzeko  
garaian.

Bigarrena Eustakio, laister Nautika-  
-ikastolan sartzeko urteetan edo; baiña, iru edo  
lau bearako ziran artarako.

—Mutilla bizkorra dezu eta aurrerako  
lagundu bear diozu... Eskola-maixuak amari.

—Lagundu? Bai, eskerrak Paskualito'ri...  
Amak maixuari.

Zein zala Paskualito?

Don Pascual Afoaroa jaunari esaten zioten Paskualito Lekeitio'n. Gizon prestu onek gauzak egin zitun errian: moilla berria, soineko garbiketarako leku bereziak, Nautika eta Latiñ ikastolak...

Zenbat itxas-gizon (kapitan, pillotu, makinista...) sortu ote zitun Ikastola onek, bestela mariñel utsetan geldituko ziranak...

Eustakio'k egin zitun Nautikako ikastaroak Paskualito'ri esker. Eta amasei urte betetzeko, ikatz-barku zaar-aundi batean abiatu zan munduan zear itxasoko egunak bete aal izateko.

Nautikako ikasketak egin da gero, irureun egun bete bear dira itxasoan pillotueri laguntzen, pillotu-agiria lortu baiño leen.

Amak lagundu zion itxas-ontzira eta kapitanaren eskuetan utzi ume mukizu bat besterik ez zan ura...

Ogeita bat urte zitun, nagusitasuna legeen aurrean lortuta nunbait, «Manuela» bela-barkuen jabe egin zanean. Bere aitaren barkua, alegia. Ordurako itxaso zabaleko baztarrak ikusita zeuzkan.

Andik laister, suerte txar batek jota, galdu zuan betirako bere ontzia Atlantiko itsasoan, Galizi partean. Eskerrak eurentzako babesa ingles barku batean billatu zutela.

Gerora pillotu baporeetan, kapitan bela-barkuetan berriro, kapitan bapor eta motorreko itxas-ontzietan...

Bitartean, ormako ondulariari etxean zeinek eragiñik, ez.

«Manuela» ontziko patroia ill zanetik ez da eriojurik ibilli geiago (30).

Pasa ziran urteak eta eldu gera 1927'ra.

Itxas-ontzi baten kapitana da Eustakio eta 60 gizaseme ditun ontziarena. Kapitana izan arren, estu dabill.

—I aiz emen argalena, Louveilli, ik jetxi foearko dok eskotillan beera. Prantzesak oraintzen zeudek danak lo.

Lotu diote gerritik txikota eta jetxi dute Louvelli argala, makinisteen buru bera, beeko almazenera arrautza-lapurretan.

—Arrautza-lapurretan eta kapitana bitarteko... ?

—Bai jauna. Ez gaude eleberri foat egiten, egi utsak esaten baiño.

—Nola leike...?

—Ara nola:

Terranoba'ko itxasoetan dabilta, bakaillau-arrantzan, Pasai'ko PYSBE'ren bi 1.600 toneladako ontziak: bata «Alfonso XIII» eta bestea «Euskalerrria». Pasai'tik irten dute; baiña, donostiarrak dira jabeak.

Euskaldunak garai batean Terranoba'ko itxasoetan maixu ziran 'bale-arrantzan bezela bakaillautan ere. Badira, ordea, berreun urte bakaillaurik arrapatzen ez dutela.

Berri^berritik asi bear.

Bakaillau-arrantzan ikasteko laguntza billa Frantzia'ko Bretaiña'ra jo bear. Andik etorri ziran barku bakoitzera arrantza-patroia eta beste berrogeita bost lagun.

Beste amabostak emengoak ziran: kapitana, pillotuak, makinistak, kontraiaxua eta mariñelak. Amabost patroifrantzesaren menpean, eta jan-edatekoak giltzapean guztiak.

Ara zergaitik ari diran arrautza-lapurretan, kapitana buru.

\* \* \*

Eguneroko gora-berak idazteko kapitanak barkuan darabilen idaztiñoa «Cuaderno de Bitacoras» deritza.

Kuaderno orretan kapitanak idazten duana, orrek legearen aurrean indarra du; bera bait da argi-bide eta arrazoi-bide, idaztiñoa alegia. Notario baten antzera jokutzen du ontziaren kapitanak, itxasoan dabilzenez.

«Cuaderno de Bitacoras» bateri begira nengoa:

—Aizu, aita, emen askoetan bi itz bakarrak, beti foerdiñak, irakurtzen ditut...

—Zer itz...?

—«Con tafolon».

—Bai.

—Eta, ori jartzen dezun egunetan ez dezu besterik idazten...

—Ez.

—Zergaitik, ez...?

—Egun oietan ez nuan izaten ezer idazteko-ta...

—Zer esan nai dezu itz oiekin: «con tablon»?

—Arrantza-patroia mozkortuta zegoala.

—Eta...?

—Ura mozkortuta zegoelarik, ez genduan arrantzarik egiten.

—Zer egiten zenduten ba...?

—Egon.

«Con tablon» itzak maiz agertzen ziran idaztiño artan.

Gixa orretarra egin zuten sei illabeteko kanpaiña.

Lenengoa.

Eta bigarrena.

Eta imgarrena.

Eta laugarrena...

Azkenik, bosgarrenerako, kapitanek itz egin zieten nagusieri garbi:

—Auek gu galbidean jartzeko dabilta, eta auek egiten dutena geurok ere egingo genduke auen laguntzik gabe.

Urte artan amaitu ziran bretoiñak PYSBE'ko itxas-ontzietan.

+

**Lekeitio.**

**56**

Eustakio'k, bere itxasoko ibillaldietan, maiz jotzen zuan Bilbo'ra bere barkuakin.

Arratsaldean, barruko lanak amaitzen diranean, irten oi dute barkutik gizonak errira, guardiko ez diranak.

Portuetan arandegiak ugari eta beroietara jo oi dute itxas-gizonak denbora-jpasa.

Bazan Barakaldo'n, Altos-Hornos de Vizcaya ola nagusiaren sarreratik, parez-pare aurean, El Alpagatero izeneko etxea: ardo, sagardo, kafe, pattar, tabako eta janari-mota guztiak zeuden bertan salgai.

Etxearen nagusia Lazkano'tik etorritako alpagata-egillea zan: Nikolas Areso. El Alpagatero jarri zioten izen-goiti. 1950'an, oraindik ere, etxearen aldameneko aldapari «La Cuesta del Alpagatero» esan oi zioten Barakaldo'n.

Bazuan Nikolas onek berekin etxean, Lazkano'tik ekarritako illdba, begi-urdiñ, matrailla-gorridun neskatxa. Amabost urterekin etorria, emeretzi zeuzkan Eustakio leen-da-bizi etxe artan sartu zan egunean.

Maite-miñak jo zitun biak.

Orra nundik eta nora lekeitiar kapitana Lazkano'ra bizi-izaten etorri...

Gizona biboteduna izan arren, eta Eustakio'k ille-matasa ederrak zitun sudurpean, beti. emaztearen ondoren joan oi da. Senarrak Bilbo'ra

etortzeari utzi zionean, orduan emazteak Barakaldo utzi eta berriro bere sorlekura aldatu zuan etxea...

Uste gabeko gertakizun xee onek izan zitun bere ondorenak andik urte batzuetara: bakaillau-arrantza berriro zuten gizonik geienak Gipuzkoa'ko Goierri'ko baserrietatik sortu zirala, alegia.

Nola gertatu zan...?


Euskaldun bi kapitanek bakaillau-arrantza bere mende artu zutenean, bretoiñari agur egiñ ondoren, arrantzale-billa asi ziran. Eustakio Lazkano'n bizi zalarik, Lazkano'tik asi zan jende-billa.

Lazkano, Olaberria, Ataun, Beasain, Zaldibia'ko baserriar gazteak eman zituzten beuren izenak Terranoba'ra bakaillautan asteko. Berreun urteetan galduta zegoan arrantza berritzeko lanari eldu ziotenak Goierriko baserriarrek, alajaiñetan...!

Ez gaude ipuiñak asmatzen, historia zeatz bat egiten, baizik. Gauza auen berri dakitenak eunka daude oraindik bizirik. Eta neroni oietako bat.

Ez da ba arritzeko bale-arrantza eta antxiñako bakaillau-arrantzan legorreko jendea billatzen badegu: Zuberoa'ko baserriarrek Doniane Loitzun'go bale-barkuetan, esate baterako.....

Baiña, bale-arrantzari buruz ari gera eta goazen berriro garai aietara. Aro Erdira.



D

TALAI-DEIA

Tala, talaia edo atalairik ez duan erririk ez da itxas-ertzean.

San Juan Talako Lekeitio'n Talai-mendi Orio eta Zarautz'en, Talaja Defoa'n, «Peña del Ballenero» izenakin berea Donostia'ko Ulia mendian eta abar.

Gorputz aundia duelako, eta ura botatzen duelako sudurretatik, balea itxasoan oso errez ikusten dan gauza da. Eta len-bai-len ikusteak bazuan bere konfoentzia erriarentzat.

Zergaitik?

Lenengo arpoiari sor bait zitzaion foalea. Lenengo arpoia sartzen zion txaluparen errira eramaten bait zan animalia.

Eta balea, gauza oso afoeratsa izaki.

Ez da ba arritzeko erri bakoitzean talaia egotea, itxas-ertzeko aitz edo mendi baten gaillurrean, eta bertan, ixasoari begira gau ta egun, gizona zaindari.

Deba'n 1685'an, talairako giza-seme bat aukeratzen zuten. Soldata Kofradiatik jasotzen zuan eta bere eginkizuna udazkenean asi eta Pazkuraiño luzatzen zitzaion: Azaroaren batetik, Martzoaren amafoosteraiño, alegia (31).

Lekeitio'n berriz, bi aste aurretik asi.

. Urrillaren amalautik Martzoaren amafoosteraiño (32).

Garai orretan agertzen bait zan gure artean izotz-arteko Sardako Balea: negu beltzean, alegia. Groenlandia eta Kanada'ko itxasoak izozten ziran garaian.

Iru alditan ordaintzen zitzaion bere alogera talai-gizonari: lana asterako egunean, urtearen aizkenean eta bukatzeko egunean. Bera kanpora joateko bazan edo gaixo bazegon, bere ordeztu beste bat jartzera beartuta zegoan (33).

D

EL ATALAYERO

*No habia puerto que se estimara, sin atalaya.*

*La ballena respira por pulmones y tiene que salir con frecuencia a la superficie. Además, para hacerse notar, va soltando al aire chorros de agua.*

*Una ballena suponía una gran riqueza para el puerto que la pescara.*

*Era necesario estar alerta para descubrirla. Para eso estaba la atalaya y el atalayero, cuya soldada corría a cuenta de la Cofradía de MarearFtes.*

*La misidn del atalayero duraba desde octubre hasta marzo, que era el tiempo en que aparecía por nubes—'''tros mares la ballena, que bajaba de los hielos.*

*Venia sola, o con su cria. A veces en compañía del macho.*

*El atalayero tenía que ser hombre | experto, capaz de discernir entre la J-^~'' ballena y el resto de los animales I marinos; para así poder hacer en cada caso la señal adecuada: humo. | campana, sdbana...*

*Debia poseer por su cuenta un aruDDA' tejo de largo alcance y hacer guardia desde el amanecer hasta el oca- J so del sol.*

*Hecha la señal en la atalaya, la Co-fradia tocaba la campana y la pregonaba por todos los cantones de las calles.*

*E\*te alboroto estaba justificado por la rigueza que suponía para todo el pueblo, la captura de una ballena.*

*Era obligacón de los marineros el preparar el mayor número posible de embarcaciones y equipadas del mejor modo posible.*

*A estas señales, todo el pueblo se convierte en un hormiguero...*

*Madres y abuelas acuden a la iglesia para orar. Las jóvenes se van al litoral a ver el espectáculo gratis...*

*Las chalupas se equipan con ocho hombres: un patrón, seis remeros y el arponero. A veces este empuña también el remo, en cuyo caso son siete los tripulantes de la chalupa.*

*Todas las chalupas tienen prisa. Hay ventajas para los primeros que claven el arpon.*

*Se organiza una auténtica regata. Al acercarse las chalupas, la ballena se hunde en el mar.*

*El arponero, de pie en la proa indica al patrón el rumbo que ha de seguir tras la ballena.*

*Todas las chalupas van tomando posiciones, para cuando el cetáceo salga a respirar...*

Baita, bere sakeletik eta bere kontura, urrutirako antioju aundia erostera ere Artarako ba zan etxetxo foat ere, gizona ikusmiran egoteko eta bertan gordetzen zituzten kea ateratzeko bear ziran oteak eta beste errekiñak.

Kea zertarako?

Señale egiteko balea ikustean.

Baita ere, eguraldia bat-foatean txarrerako aldatzen zanean. Orduan, etxeratzeko agindua biakzen zitzairen, kearen bidez, itxasoan zebiltzen txalupeeri. Berdiñ, ontziren bat ondoratzeke arrixuan ikusten bazuan ere (34).

Talai-gizona itxaso-arazoetan, itxas-jakindurian, ondo jantzia bear zuan: itxasoko arrai eta 'beste afoere guztien foerri ondo zekiña, foata besterendik bear bezela bereiztu aal izateko; arrai abere bakoitzak bere señale bereizia foait zuan. Eta ori jakin bear señaleak ondo egiteko.

Señaleak ondo egitea, berriz, orixe zan bere egitekorik nagusiena (35).

Zer señale eta zerekin?

Kearekin beintzat bai. Ala egiñ oi zuten Ondarrafoia'n 1794'arte. Urte artan frantzesak sartu eta talai-gizonaren etxea erre zuten. Baita arekin batera zegoan kearentzako labea (36).

Miarritz'en (Biarritz) kearekin eta kanpaiarekin egiñ oi zuten señalea (37).

Lekeitio'n talai-gizonak izara edo ikurrin zuri bat jasotzen zuan makil baten muturrean, ikusi zutena foalea bazan. Bestelakoak baziran, makill utsa (38). Txalupak kai'barruan zeudeneko señalea zan.

Talaiako señalea ikusteakin batera, asiko ziran deika Kofradiako kanpaiak eten gabeen; baita pregoiak ere kalerik^kale, kantoi guztietan. Jendea bera ere, gazte ta zaar, gizon da emakume, baztarretako txoko guztietara eramango zuan zapi zuriren berri ona.



Eta, zergaitik ainbeste iztillu?

Baleak iges egiterik konbeni ez erri guztiari. Ikusitako balea len-bai-len arrapatzea konbeni; auzoko kaietako ontzieren aurrea artu foear.

Zenbat eta txalupa geiago eta bizkorrago prestatu, ainfoat eta arrantza seguroagoa. Baloi aundi batek, txikiak ez-ezik, aberastasunak zekarzkin ugariak errira: mingaiña, bale-foizarrak, eunka barrika-koipe, ezurrak...

Zer, ez...?

Guztientzako banatuko zan aberastasun oietatik zatitxo bat gutxienez.

Itxasotik bizi ziran eta eguneroko alogera itxasotik jasotzen zuten: arraiñ txikietik, alegia. Bixigutik, legatzetik, sardiñetik... Oiek, ordea, arraintxo txikiak ziran: kalderilla utsa. Balea, ordea, urre-gorri-ontzakoz beteta zetorren.

Talaiko seiñaleak piztu ditu erriko baztar guztiak. Kanpaiak eta pregoiak. Orra Kruz Atabal eta Pello Txilifoitu Txitxarrokaletik, txistu eta danboliñari dantzatuaz...

Umeak eta agureak, neskak eta mutillak, andrak eta gizonak, batetik bestera, presaka, korrika, oiuka, arnas-eztuka, biotz-urduri...

Erlauntza dirudi kai inguruak.

—Ariñ, semetxu. Ariñ, Markeliñ. Balea neuk ikusi dot neure begiz...

—^Bai, ama. Ekatzu arpoi ori eta estatxa. Aita nun da...?

—Amandarrira joan da, ondartzara, txalupa uretara botatzen. Ariñ, mutill...

—^Bai, ama. Agur.

—Jainkoak emon deutzula suerte on bat.

—Agur. Agur.

Mutilla kantoi-ertzetik beera ekin du kaira.

Etxe-ate guztietatik mutill gazteak eta gizaseme gordiñak ariñ-aringa, bakoitzak bere tresnak bizkarrean...

*Cada arponero lleva dos arpones amarrados a la misma cuerda. Se han de lanzar los dos seguidos. Cuando los dos o uno de ellos se ha clavado, otras chalupas intentan su suerte...*

*Sujetos los arpones y la ballena asegurada, empieza la sangria a base de sangraderas en forma de lanza...*

*Todas las chalupas y los hombres que hayan intervenido levantarn su partilla en proporcidn a su trabajo.*

*Quando las cosas no salen bien, los daños de chalupa y personal los paga la ballena, y en su defecto la Cofradia.*

*Muerta la ballena, si no se hunde, la atan por la cola a varias chalupas que la remolcan hasta una rampa del puerto para vararla y subirla despues por medio de poleas. Si se hunde, es menester atarla dos embarcaciones...*

*La Cofradia convoca a subasta. Los mayordomos de la Cofradia y los patrones de chalupa presiden y dirigen la subasta a la luz de una candela encendida, y mientras esta dure.*

*Subastada la ballena se procede a su desguace y a fundir las grasas. Pero, antes de entrar en este tema, digamos algo de otros personajes interesantes en la vida de los puertos.*

Ausardia bekokian eta su-bizia begietan. Ainbeste egun eta asteen buruan itxarotako unea eldu da. Eriotzarekin burrukara. Alogera ederraren esperantza biotzean...

Nola basoko umeak zezenaren aurrean...? Alaz eta geiago Markeliñ eta bere lagunak, itxasoko umeak, ur-aundietako jaun da jabe dan balearen aurrean...

Andra Dioni, Markeliñ'en ama, eleizara dijoa, Antiguako Amaren oiñetara, itxasoan biziagaitik beuren biziak arriskuan jarriko dutenen alde otoitz egitera.

Ona andra Dioni'k egin zuan otoitza:

«O jaun Tobias gaztea ungi begiratua,  
guardaritzat bidaldurik Arkangelu Saindua,  
eta kostara arraiña erakarrasia,  
aren iltzeko egiten ziñoela grazia.  
Guri ere ekarguzu urfoillera Balea,  
segurkiago armaren landatzeko kolpea.  
-rBiziaren gatik dugu arriskatzen bizia,  
[arren egiguzu aren gelditzeko grazia.» (39).

Beste andrak, oso zaartu ez diranak,  
San Juan Talakora dijoaz, bertatik beuren  
gizonen burruka ikustera...

Txalupak, zortzi gizonekin geienak, asi dira  
arraunean, kaitik itxaso zabalera, bale-billa.  
Sei arraunlari edo zazpi, arraunak eskuetan;  
popan, patroia arraun Juze batekin lematzat.  
Brankan, berriz, arpoilaria, arpoiak aldamenean,  
eta arrauna eskuetan.

«Aingeru Guardakoak» irten du leenen. Brankan,  
Markeliñ. Ogei urte. Besagaiñeko giarrak legun  
eta tinko. Aita, Pedro, lemari.

Estropadak asita daude, zeñ leenago  
baleari inguratu.

—Jo, mutillak. Eman arraunari. Geurea dok balea!

Bat, bi, lau, zortzi... bata bestearen ondoren,  
abanikoaren antzera itxasoan zabaltzen ari dira  
txalupak, erdian balea arrapatzeko...

Aingeru Guardakoa eldu zaio ondora.

Beste txalupa guztiak gelditu dira zai. Baleak bere  
gorputz-aundi-koipetsua murgildu du  
ur-aundietan. Beetik joan arren, urari eragiten  
dio azalean ere, arrastoa utziaz.

Pedrok ontzia darama aurrera, arrastoaren  
ondoren, brankan dijoan Markeliñ'ek erakusten  
diolarik nundik jarrai. Beste txalupa guztiak  
urduri daude, nundik baleak irtengo...

Ona berriro balea azaleratu, amas artzera,  
bere birrikak aizea bear bait dute geureak bear  
duten antzera. Atzetik, kontuz eta geldiro,  
gerturatu "zaio txalupa. Atzetik baiño aurretik obea  
da baleari ekitea; baiña, gauzak ez dira beti gure  
naira makurtzen eta datozen bezela artu bear.  
Baleari atzetik eragiteak arrisku aundiagoa dakar  
berek. Gaurko au alaxe gertatu da eta datorren  
bezela jaso bearko.

Pedrok kiñu egin dio Markeliñ'eri. Onak arpoiari  
eldu dio, arrauna utzita. Bi arpoi dira alkarrekin  
lotuta, bata bestearen ondoren bota aal izateko  
moduan.



Ondarroa.

Foto: Antton Elizegi

Brankan oiñ bat eta bestea tostan sendotu ditu mutillak.

Oraintxen da garaia.

Mutillak besoa atzeraka jaso eta luzatu du.  
Arpoi-kirtena beatz-artean eztu-eztu.

Urreratu dute txalupa-muturra. Arraunlariak geldu,

eskuak arraunari elduta, iges egiteko zai. Aurrean, mendi-koipe-zuri-beltza.

—Jo, mutil!

Aitak semeari.

Bat-batean, arpoi luzea aidean. Sartu da aragi koipetsu artan barru-barruraino. Ondoren, bigarrena dijoakio. Barruraino au ere.

Unetxo bateko lana izan da guztia.

—Arria estatxa eta ekin, mutillak.

Txalupa igesi. Miñak eraginda baleak isatza astindu du eta txalupa kaultzeko arriskuan jarri. Murgildu da berriro balea, arpoiak eta soka bere ondoren eramanaz.

Arpoiek eutsi diote.

—Aupa, mutillak!

Irrintzika arrantzaleak.

Beste txalupa baten ingurura atera da ur-azpitik balea. Sartu diote beste bi arpoi txalupatik. Aberea, ur-azpira berriz ere; baiña, oraiñ bi estatxa daramazki bere ondoren.

Irrintzi berriro txalupa guztiak.

Irugarren txalupak, beste bi sartu dizkio. Naikoak dira. Oiek eutsiko diote baleari.

Balea kolpatu dutenean otoitza zerurantz patroiak:

«Iauna, geure arte baño geiago zureaz,  
balea zauritu dugu arpoñaren kolpeaz.  
Arren bada egiguzu (Iaun puxanta) grazia  
sari gelditzeko arraiñ itsasoko andia.  
Gutarik gara'bik zaurtzu gafoe foere indarraz,  
sagadetan dafoillala buztan edo bularraz.  
Edo txalupa irauli gabe gillaz gañera,  
edo berekin eraman gabe urtan beera.  
Arren begira gaitzatu gaitz auk guztietarik,  
eskerra diezazugun itzul leorerarik.  
Irabazia da andi, perilla ere andia,  
begira diezazugu prinzi'palki bizia.» (40).

Balea preso dago, baiña oraindik bizirik. III egin bear da eta ez da gauza erreza. Arpoiak sartu ondoren, xaboliñak erabilli bear dira balea iltzeko. Xaboliñak kakorik ez dute eta sartu-irtena erreza dute. Txalupa guztiak saiatuko dira baleari beuren xaboliñak sartzen.

Parte artu dutenak izango dute bere partilla. Bakoitzak bere lanaren neurrian.

\* \* \*


Beti ez dira gauzak aiñ errez erabakitzen. Zenbaitetan balearen buztanak txalupan jo oиду, arraunak zatituz, gizonak uretara jaurtiz eta txalupa berbera ondoratuz.

Gertakizun negargarri auetarako erri-legeak eta oiturak bere neurriak artuta zitun. Txalupa eta gizonen okerrak, balearen bizkarretik ordaintzekoak ziran, errepartoan asi foaiño leen. Okerra egiñ ondoren baleak iges egingo balu orduan Kofradiatik egingo dira ordainketak (41).

Gaurko onetan gauza guztiak onez eta zuzen atera dira. Xaboliñen poderioz odol-uztu dute balea. Aizkeneko amasetan dabill. Murgill egiten du beiñ da berriro kresala odoletan gorrituz. Zurrunbilloa azalekoa da uretan. Indarge dijoa...

Azkenik, burruka amaitu da.

Baiña, lanak ez oraindio. Leen-da-foizi Zeruari eskerrak eman.



Pedro'k berriro Etcheberry'ren otoitza:

«Tauna, dituzula esker eta laudorioa,  
milloi eta milloi baño geiagoak.  
Zeren egiñ darokuzun liberalki grazia,  
idekitzeko andien arrañari bizia.  
Gure indarrak ez ziren deus unenen aldean,  
zure faborea dugu sentitu konibatean.

Ezen zure baitan tturroñ batek etsajak,  
urrutik izi dezan naiz dela angaja.  
Ala guri ere egin darokuzu doaña,  
bentzutzeko itsasoan den sendoen arraña.  
Leorrera dakarkegu egiñik sarraskia,  
bizi dugu naturaren mirakulluz bazterra,  
ooratzen (Iongoikoa) zuk duzula eskerra».

Eriotzaraiño erakarri dutelako, balearen burruka guztiak amaitu diranean, orduan txalupa guztien artean, atoian edo erremulkan, portura dakarte aberea. Ez da lan erreza izaten eun toneladatik gorako arraiña erabiltzen, eta gaur arrapatu dutena eundik gorakoa da, asko izan oi diran bezela. Zer poza biotzeetan, estatxak buztanetik lotu ondoren, txalupa guztiak batera, arraunean porturuntz abiatzen diranean...!

San Juan Talako'tik begira daudenak itxasoan gertatzen dana ikusi dute. Kruz Atafoal eta Pello Txilibituk dantzatu dute berriro soiñua, eta, kalejira portura doa, arrantzalien bidera.

Izan oi dira, ilda gero, ondora joaten diran baleak. Gaurkoa ez, orratio. Suertean gaude.

Ondora joaten diran baleekin zer egiñ?

Kontuz ibilli bear. Ur-azalean eutsi aal izateko balea, bi txalupa aundienetakoak aukeratu lenengo eta balearen egaletan esker-ezkubi jarri; gero, txalupa batetik bestera txikotak bota foalearen azpitik, eutsigarri bezela. Iru txikot: foat buztanaren azpitik, bigarrena buru-azpitik eta irugarrena, gerriaren azpitik.

Gaurko onetan ez degu lan auen bearrik izan.

Marea-puntakin datoz. Marea goraka dator oramdik eta ondartzan lagatzeko aukera ona degu. Gero, ura jeisten danean, balea legorrean geldituko da. Orduan, polea baten bitartez, gorago jasoko dute.

Lan onetarako puntalak, poleak eta soka lodiak bearrezkoak izan oi dira eta kai guztietan daude prest. Emen, Lekeitio'n, 138Tan balearen mingaiña iru zatitan ebagitzen zan: bi zati moillak konpontzeko eta irugarrena elizarentzat serbitzu bereizi baten ordaiñetan.

Serbitzu ori betetzeko, eliza-azpiko ordartza-gaiñean, Elizaren menpeko «manobrero» zeritzan Peri Potolok, an zeuzkan gertu soka, txikot, tornu, polea eta puntalak balea jaso aal izateko.

Baleak bezelaxe jasotzen zituzten txalupak ere balearen ondoren.

Tresna auekin batera, bazituan ere koipea urtutzeko lanean erafoiltzen zituzten tonel, batrika eta tiñak (43).

—Nor izan da lenengo arpoia sartu dautzona? —Peru Potolok ondartzatik.

—Aingeru Guardakoak. —Itxasotik erantzun.

—Zorionak, Pedro eta Merkeliñ. Ori. dok arraiña, ori...! Eun da amar tonelada gutxienez...

—Suertia izan dogu...

—Ori ez dok suertia bakarrik. Jakiñ egin bear, jakiñ...

Jaso dute aberea eliza-ondoraiño. Orain seguru dago. Ondorengo lanak, Kofradian. Kofradiako txiliña oska asita dago eta guztiak Kofradira dijoaz, kanpaiaren ondoren salmenta asiko bait da.

Mai-buruan Kofradiako maiordomoak, txalupeetako patroiak eta lege-gizona notaritza egiteko. Argizari bat piztu dute. Orrek irauten duan arte iraungo du salmentaren jokoa (44).

—Bosteun.

—Bosteun da ogei.

—Bosteun da ogeitamar...

—Zazpireun!

Argizaria itzali da. Ke-mordoixka zerura. Mar-marra jende artean.

—Nork artu dau balea?

—Anton Zantar'ek.

Anton Zantar ez zan gizon garbia. Betilleak ugari sudurraren gainetik. Papparretik ere illeak ageri. Amabi arrua bai gutxieenez aztun. Bi metro luze eta bat zabal...

Sal-erosketan iaioa. Konzentziko kejarik ez iñoiz.

Anton Zantar, bere monjiak lagun, elizara dijoa berriro.

Balea andik ateratzeko, zatitu egiñ bear.

Lenengo-ta4>at azala kendu. Oso lodia.

Nola, ordea, azal ori kendu?

Buruaren asieran, azalari zulo bat egin diote ebagi batekin batera.

—Lope, sartu zulotik soka onen muturra eta sendo lotu.

Anton Zantar'ak bere morroiari.

Lope bale-gaiñean igota dago eta txirristik ez egiteko, zurezko iltze-luzezorrotzdun oiñetakoak jantzi ditu.

Soiñean, berriz, larruzko jantziak.

Ebagiaren zulotik sartu du, Anton'ek esan bezela, txikotaren muturra korapillo bat egiñaz.

Polearen bitartez Eneko eta Azenar sokatik tiraka asi dira. Bitartean Lope eta Semen'ek tarratara bana egiten diote bakoitzak bere aldetik azalari. Era orretara jokatuaz, zati luze-estua kentzen diote burutik asi eta bustaneraifio.

Ondoren bigarren zatia, eta orrela jarraitzen dute, gorputz guztia larrutu arte.

Zati oiek ateratzeko aisto eta kutxUlo kirtendun aundiak erabilli oi dituzte. Eneko eta Azenar sokatik tiraka aridiran artean, Lope eta Semen'ek, bakoitzak bere aldetik aistoa sartzen dute azal eta aragiaren tartean. Orrela erantsi dute azal osoa, noiz-beinka baleari jira eragiten diotela.

Azal dana kendu eskeroz, lau-kuadroko zatietan ebagitzen dute labara eramateko eta an urtu. Barruko aragia eta saina aizkoraz eta aisto aundiz zatituko dute. Labarako oiek ere.

Zati oiek jasotzeko ontziak dituzte artarakoak eta labara eramateko, gurdiak eta narrak...

Utzi ditzagun bertan Anton eta bere lagunak eta goazen berriro kaira.

Jakingarri asko utzi ditugu portuan aaztuta, balearen agerraldiak ekarri digun pozaren pozez.



Foto Antton Elizegi.



E

## SEIÑERUAK

Portu batean talai-gizona bearrezko bada, ainfoeste edo geiago dira seiñeruak.

Diraute oraindik gure kaietan; foaiña, oso zaarrak dira izatez. Eunka-urte asko da bere izena (eta bere izana) paper zaarretan agertzen dala (45).

Bi izaten ziran kai bakoitzeko seiñeruak.

Urte guztirako ziran. Talai-gizona, berriz, lau illebeterako bakarrik.

Seiñeruen aukeratzea urtean beñ egiten zan: Azaroaren lehenengo egunetan, egiñ ere. Kofradiako Maiordomak aukeratzeko zintun biak eta gero txalupa-patroieri agertu. Aukera ori ontzat ematen ez bazuten, orduan patroien esku gelditzen zan aukeramena.

Bere alogera iru alditan jasotzen zuten seiñeruek: artarako izendatutako egunean zati bat; andik sei illebetera, bigarrena; urtea betetzen zuten egunean irugarrena.

Gaxo edo erritik kanpora joaterik bearrezko bazuten, eurak, txalupa-maixuen baimenakin, ordezkokoak billatu bear. Seiñeruak gizon prestuak eta itxasoari buruzko gauzetan jantziak izan oi dira. Itxaso-gora-ibera guztietan jakintsu.

- Ona beuren eginfoerak zeintzuk dkan:

Itxasoari ondo begiratu ondoren, ontziak itxasoratzeko baimena eman edo kendu. Talaiara joan oi dira Lekeitio'n bertatik itxasoa ikusteko. Zalantzarik bada, txalupa-patroieri dei egiñ eta danen artean erafoaki bat artu: etxean gelditu ala itxasora joan.

Zalantzarik ez danean seiñeruak eurak erafoakitzen dute zer egiñ. Itxasorako asmoa artu ezkeroz, deiak egiñ foear dituzte

E

## LOS SEÑEROS

*Suelen ser en cada puerto dos señeros.*

*Existen hoy desde hace cientos años.*

*Los eligen en noviembre, y para todo el año, los Mayordomos de las Cofradías. Son propuestos a los patronos de chalupas, que han de aprobarlos; y en caso negativo, elegirlos.*


*Los paga la Cofradía y han de ser versados en cosas de mar.*

*Todas las mañanas salen a ver el estado del mar y determinan si habrá o no, salida para pescar.*

*En caso de duda convocan a los patronos y deciden entre todos.*

*Disponen para dar los avisos de salida, de un grupo de chicas jóvenes.*

*Durante la pesca, si notaran cambio en la situación de la mar, levantan señal y convocan reunión de patronos. Entre todos deciden si quedar-*



Lekeitio, 1950.

*se o volver a casa. En este caso deberdn obedecer todos bajo multa. Si deciden quedarse, pueden irse los cobardes.*

*Si llegados a puerto, mejora la mar, los señeros levantardn bandera para salir de nuevo, «pues no estd bien perder sin razdn un medio de vida».*

kalerik-kale eta etxerik-etxe. Lan ori egiteko neskatilla taldea daukate menpean.

Etxe bakoitzean deia egiten dute:

—Eneko, Jainkoaren izenean...

Dei auk itxas-barruko arrantzetarako egiten dituzte. Esate baterako, bixigutan joateko. Lekeitio'n ari gera eta beste portuetan ere antzera izan oi dira gauzok. Zalantzako erabakietan, botoak ataibaka batean bota oi zituzten beti. Atabaka, bi alderditan zatitutako kutxa txikia dezu. Alde batean etxea du irudietan; bestean, txalupa. Irudiak agertzen du botoaren esan-naia: etxean gelditu ala itxasora irten.

Botoak txalupa-patroiek eta seiñeruek bota oi zituzten (46).

Beñ **itxaso4barruen** daudela, seiñeruren batek itxaso-aldaketaren errezeloa eta susmoa balu, edo-ta txatkiparen batzuek legorreratzten ikusten baditu, orduan bere seiñalea jasoko du mastaren muturrera.

Seiñalea ikustean, beste txalupak seiñeruaren txalopara inguratuko dira. Txalupa bakoitzak bere botoa emango du. Botoak ikusita gero, belak jaso eta itxasoruntz edo bestela legorreruntz ekingo dute seiñeruek, beste guztieri bere bidea erakutsiaz.

Etixerako balitz seiñalea, txalupa guztiek bearko dute etxerako bidea artu, zigorrik gañean nai ez badute, beintzat.

Zalantza alturako arrantzatik balitz, bajurako arrantzan gelditzeko baimena badute. Areago portu-aurreko arrantza txikiagoe-tan.


Beñ kaira eldu ezkeroz eguraldiak ontzen badu, orduan seiñeruek itxasora irten bear dute berriro, beste guztieri bidea erakutsiaz; ez ibait da egoki irabazi-bide bat, arrazoirik gabe, alperrik galtzea (47).

Talaiako gizonak (aurretik) esana daukagu) bista-luzeko antiojua erosi eta egunero talaiara eraman bear izaten zuan, andik baleari begiratzeko. Negu osoko lana zan ura. Egunsentiatik illunabarreraiño. Baldiñ, uztegabean, eguraldia txarrerako aldatuko balitz, itxasoan dauden txaluperi, kearen bidez, seiñalea egingo die etxeratzeko. Seiñalea ikustearekin batera bear zuten txalupa guztiek etxerako bidea artu.

Kea ikustean, seiñeruek beuren seiñalea jasoko zuten mastamuturrera.

Kearen lenengo seiñalera txalupak legorrera bidean jartzen ez baziran, orduan talaiatik bigarren ke-aldia aterako zuten. Eta irugarrena ere bai. Besterik gabe, talaia utzi eta kaira jatxiko zan talaia-zaindaria txaluperi barrura sartzen laguntzera.

Ontzi kanpotarrrik kaira sartu naiean, edo ondoratzeko arriskuan ikusiko balu talaiako zaindaria, artarako dagoen seiñalea egiñ bearko du (48).



*Cuando el atalayero observara un cambio de tiempo hard señales de humo a los hombres que faenan en el mar, y los señeros levantardn \* bandera para reunir a los hombres...*

*Cuando el atalayero anunciaba tem\* poral, los niños de las Escuelas de Lekeitio acudian a la ermita de San( Juan Talako en rogativas...*



*Este recuerdo de la tormenta nos trae a la memoria un nombre: Jose Maria Zubia.*

*Nacido en Zumaya en 1809 y murido ahogado frente a San Sebastián en 1866.*

*Había salido en ayuda de chalupas en peligro; no era la primera vez que lo hacía.*

*De él nos quedan un arpon y un antejo de largo alcance.*

*Arponero y atalayero.*

*Oroipenak.*

Ekaitzaren orruak oroipenak sortu dizkigu barnean. Aita Mari'ren oroipena eta emen jaso nai dut.

JOSE MARIA ZUBIA, Zumaia'ko semea zan. Bertan jaioa 1809'an.

Arrantzale degu bere errian 1830 arte. Orduan, odol be-roak eraginda, Ameriketako bideak egiteko ontzi foatean sartu zan mariñel...

Urte batzuek, eta diru apur bat eginda, Donosti'ra dator. Txalupa erosi du eta ibera da bere ontziaren patroia.

52 urte zitula 1861'aren udara erdian, ekaitzak San Jose deritzan txalupa, zazpi gizonezko barruan, ondoratu bearrean darafeill. Aita Mari (ala esan oi zioten gure arrantzaleari) bederatzigazte alfeoa zitula, an afoiatzen da itxasora arriskuan daudenen laguntzarako... Iru-ordu-laurdeneko fourruka foildurgarri baten ondoren iru gizon besterik ez ditu itxasotik jaso aal izan.


Donosti osoa zegoan Zurriola partean Aita Mari'k itxasoarekin zekarren burrukaren testigu.

Bost urte geroago, 1866'an, Ibeltzak 9, ekaitza berriro... eta txalupak itxaso-^barruan...

Aita Mari foerriro, 57 urte gañean zitula, irtenik zan, gazteak bere alboan, arriskuan zeudenen laguntzara...

Alperrik, ordea.

Lagun-urkoaren alde eman zuan 'bere bizia. Itxasotik bizia irafazten zuanak, itxasoan galdu zuan bere bizia. Donostia'k egiñ zion kai-gañean oroigarri bat. Berak utzitako gauzak bi dira: arpoi bat eta foista-luzeko antiojua. Nik uzte talai-gizon eta seiñeru izango zala beiñ baiño geiagoetan. Urrutirako antioju orrek ganbi agertzen digula, esango nuke nik. Eta arpoiak, arpoilaria (49).



**Ondarru'ko «Santa Clara» kofradiako «Josefita» Txalopandiari Egindako Salbamendua**

«1899-garren urteko uztaillaren bigarren eguna.

Euskaldun arrantzaliak Santander eta Asturias aldetik atuntzuan.

Galerren ikaragarria gabaz itxasoan.

Estutasun eta larritasuna ugari arrantzaliak. Potiñandiak aize eta olatuen mende.

Orrelaxe ebillen, Castro eta Santoña bitartean, Caballo deitzen jakon ingurutik 12 milla, ondarrutarren «Josefita» txalopandia.

*Recordamos otra escena de tragedia y salvamento:*

*La chalupa-grande «Josefita» de Ondarroa en peligro de naufragio.*

*Al final pudo mds el mar y la volco. El yate «Goizeko-izarra» del Sr. Sota y Aburto llega en su socorro. Dos ahogados y seis tripulantes salvados.*

Goizeko bederatziak inguru izango ziran,  
«Goizeko Izarra» jolas-ontzija alde aretan gertatu  
zanian.

Itxas bazterretik ataruntz urten naiean ebillen,  
galerrenaren zartatekoei igeska.

Alako baten, ontziko foegiralea, didarka asi zan.  
Didar larri kezkaz beterikua. Arduratu zan  
kapitana. Bai mariñelak zurtu, bizkortu ta laster  
gertu be.

Berialaxe zan mariñel bat masta nausiaren puntañ,  
inguruak aztertu ta begiratzen. Lekeitiarra zan  
bera: Elordi eta Zapiraindar Pelix...

Bai laster asi be masta-gañetik barru-barruko  
miñez didarka: «Txalopandi bat tira bira eginda...  
Txalopandi bat ondatuta. Gizonak be ikusten  
dira inguruan... Gizonak foe bai, oraindik  
bizirik... bat... bi... iru... lau.»

Kapitanak ez efoan asti edo denporarik galdu.

Masta-gañeko mariñelak emoten efoan lekuruntz  
zuzendu eban «Goizeko Izarra».

An ebillen txalopandia olatuen mende.

Bat, bi, irutan be ostendu edo ezkutatu zan  
kapitanaren begien aurretik. Bana mariñelak  
igarten eben, zer gertatu zeikian, eta zur zebiltzan.  
Begiak zorrotz eta gogo zorrotzago.

Eldu ziran alako baten txalopandiaren ingurura.

Txikotak askatu eta bota eben laster uretara batel  
txiki bat.

Lau gizon sartu ziran foertan, adorez beterik,  
eriotzaren kezka foarik, itxaso gañean noiz itoko

ebiltzan arrantzaliei laguntzeko garrez. Aize ta  
olatuei aurre emonaz, arriskuz beterik eldu ziran  
alako baten txalopandira.

An ebiltzan estu ta larri, atzapar puntetatik be  
odola darioela, ala foateri eutsi ta ol zati edo  
erremuei oratuta, alan moduan, eriotzaren  
erpetatik ezin iges egiñik, «Josefita»'ko  
arrantzaliak.

Estutasun aretan, batelekoak zurbilduta geratu  
ziran, otzikarez beterik, atzeko intziriak eta  
didarrak entzutian: «Ez gugana urreratu. Sei  
gizon itotzea obe da, amar foaño-ta...!»

Baña bateleko mariñelak ez euken, ez laguntzeko  
pentsamenturik, nai ta eurak foe ito. Urreratu  
ziran ta gizonak jasoten asi be bai. Jaungoikuak  
daki nundik ateratako indarrez, sei gizon  
bateleratu zituen. Saspigarren igotzerakuan,  
eskuetatik lapras egin, solta ta onduratu zan  
geiago ez ikusteko. Zortzigarrena aspaldi ito zala  
agertu eben bestiak.

Goizeko lauretan tira bira egin eban «Josefita»  
txalopandiak, itxas gañean ebiltzala; zortzirak  
inguruan begiztatu ei eben urrunean «Goizeko  
Izarra». Baña euren didarrak eta intziriak aize  
ta olatu artean galdu, beste ordu bete luzean  
ez ikusteko.

Zenbat negar eta arren!... Zenbat estutasun eta  
larrialdi!, Zenbat sispuru ta oroimen!, Zenbat  
otzikara ta etsipen!, Zenbat kezka!... Zenbat  
min eta itotasun!... Zenbat otoi Antigua'ko  
Amari bitarte orretan! (49'). Itzez-itiz artua.

## BALE-ARRANTZARAKO LANABESAK

Bi tresna aitatu ditugu bearrezkoak bale-arrantzarako.

Biak dira burnizko eta biak dute egurrezko kirtena: arpoia eta xaiboliña.

### *Arpoiak:*

Arpoiak mutur zorrotza eta bi ego ditu mutur-muturrean aragian sartu ondoren bertan katigu gelditu dediñ.

Burnizkoa.

Bere luzeroa, 60'tik 70 zentimetroetara. Aurre-partea trinkoa du; atzekoa, berriz, utsa, kirtena sartzeko bertan.


Kirtena, pagoa, metro bat eta irurogei zentimetro luze. Lau zentimetro lodi.

Burnizko arpoi onek badu begi bat ere soka lotzeko. Soka ori gero kirtenak zuen beste zulo batetik pasa oi zan.

Orain bosteun urte arpoiari lotzen zaion sokaren luzeroa 70 kanako bear zuan izan. Ogeitamar arikoa, gutxienez. Neurri oiek bear zitun estatxa batek, bearbezelakoa izateko.

Soka edo estatxa bateri bi arpoi lotzen zitzaizkion: bata sokaren muturrean; bigarrena, muturretik amabost metrora. Bigarrenak amabost metroko soka izango du beretzat.

Era orretara, arpoilariak balearen aurrean bere burua ikusten duanean, bi arpoi.izango ditu esku-artean. Batekin uts eginda ere, beste aukera bat gelditzen zaio eskuetan.



**INSTRUMENTAL DE LA  
PESCA BALLENERA**



*Arpones: son de hierro con asta de madera de haya. El hierro tiene de 60 a 70 cm.*

*La madera, 160 cm. de largo por 4 de espesor.*

*Se atan dos arpones a una misma cuerda.*

*El segundo, por medio de un nudo corredizo.*

*Sangraderas: tienen forma de lanza. Muy largas: el hierro tiene 160 cm. de largo y la madera de 2,50 a 3 metros.*



*Van atadas a una cuerda de 15 metros que sirve para recuperarlas, despues de clavrselas a la ballena. Pala afilada: sujeta a un mango de*

*Aizkora edo pala zorrotza:*

Oietzaz gaiñera, aizkora edo pala zorrotz baten antzeko tresna, egurrezko kirtenakin au ere; baiña, sokarik gabe (51).



*madera muy largo. Parecida a un hacha en forma de pala. Sirve para cortar las aletas a la ballena, cuando no hay otro procedimiento para dominarla. Operacion muy arriesgada.*

*Kako luzea:*

Beñ arpoi eta xaboliñen lanak bukatu ezkeroz, kako luzeak bear dira, kirtendunak auek ere, baieari eltzeko.

Leenago aitatu ditugun tresnak galtzairu garbiakin egiñak dira eta bizarra kentzeko labaiña baiño zorrotzagoak. Guztiak ardua aundiakin zainduak.

*Xaboliñak:*

Xaboliñaren aoak gaztaiñ-orriaren antza du. Lantza baten itxura, alegia.

Xaboliñaren burniak metro t'erdi badu luze eta kirtenaren makillak beste bi t'erdi edo iru. (Terranova'ko bidea asi zutenezkoak dituzu aiñ luzeak) (50).

Esana daukagu nola, beñ arpoiak sartu eta katigu gelditu ondoren, odol uztutzeko, baleari xaiboliñak botatzen zioten, sartu eta atera.

Xaboliñari ere, arpoiari bezela, soka lotzen zaio; baiña, soka onek ez du amabost edo amasei metro besterik luze. Soka orren bitartez, baleari xaboliña sartu ta gero, atzera biltzen da, berriro botatzeko etenik gaibe balea odol-uztu arte...

Xaboliñ uts batekin zulo asko egiten zaizkio baleari.

Txalupa bakoitzak bost arpoi eta iru xaboliñ eraman oi ditu.



Bearrezko dira baita ere esku-kako txikiak, azala ebagitzeko une artan aragiari eltzeko; aistoak, zer esanik ez; eta aizkora txikia estatxaren soka ebagitzeko, baleak ur-azpitik tiraka txalupa arriskuan jarriko balu.

Balde foatean, oso kurioso jarria, soka luzea. Ori ere bearrezko.

Orra zenfoat gauza txalupa bakoitzean. Gauza bat aztu zai-gu eta ona: pelotarien beso indartsu bat, bi begi bizkor eta buru argi bat.

Gizaseme ausart eta trebe bat, alegia.

Auxe gauzarik bearrezkoena, besteak beste.

\* \* \*

Tresna eta lanalbes-arazo onetan ardura aundia erabilli oi ^zuten kaietako lege zaarrek. Portu bakoitzean bi patroï aukerutzen zituzten beste txalupa guztien tresnak aztertzeo, ondo ote zeuden. Tresna guztiak bear zuten egokiak izan eta era onean egon. Bestela, zigorra zuten txalupa-nagusiak.

Zergaitik ardura ori?


Bale-arrantza erri osoarentzat zan onuragarri. Bear-ez-bezelako estatxa batengatik arpoiz jotako balea galdu zezakean, erri osoaren kaltean. Baten ardura-ezak, okerra guztientzat. Orra zergaitik lege-zaarrak aiñ zeatz jokutzen zuan.

Okerra gerta ez zediñ.

\* \* \*

Euskaldunak Terranoba'ra bidean jarri ziranean ontzi be-reiziak egiñ zituzten bale-arrantzarako. Baiña, Euskalerrian bertan edozeiñ ontzirekin irten oi zuten bale-arrantzara.

Otros utensilios: *ganchos pequeños de mano para sujetar la piel cuando se va a coriar a tiras. Cuchillos y hachas de todos los tamaños.*



*Un balde y dentro de el todo el cordel necesario para el arponeo y recuperacion de la ballena.*

*Añadid a todo eso un brazo fuerte y dgil de pelotari.*

*Siempre pusieron gran cuidado eh la preparacido de todo el instrumental, especialmente de los apa-*


*'N^/os para el arponeo. Se castigaba  
| su mal estado. Porque la perdida  
| de una ballena por el mal estado  
| del material era un pecado tecnico,  
que repercutia en toda la pobla-  
^cidn...*

*Cuando pescaban en Terranova usa-  
ban embarcacioh.es especializadas;  
pero, en casa servian las mismas  
que empleaban para otras pescas  
menores: merluza, congrio, besu-  
go...*

Orretxegaitik bixigutan, edo legatzetan, edo sardiñetan irte-  
tzen zutenean, beti eraman oi zituzten beurokin bale-arrantzarako  
bear ziran arpoi, xaboliñ, estatxa eta afear...

Gai au sakonago eta zeatzago aztertuko degu geroago: gu-  
re arrantzadeak Galizitik aurrera Terrandba bidean ikusiko ditu-  
gunean.

Baiña, oraiñ auek utzita goazen Anton Zantar eta bere  
morroiek ari diran lana ikustera...



Castro-Urdiales, 1920 (?).

## KOIPEA URTUTZEN

Anton Zantar'ek eta alogeran artutako beste bere morroiek zatifcu dute foalea.

Azala eta aragiak alde batetik.

Mingaiña bestetik.

Bale-foizarrak eta ezurrek beste irugarren mordoan.

—Bale onetatik —dio Anton'ek— gutxienez eun barrika, lareun liforakoak, aterako ditugu.

—Orrenlbeste, bai?

—Geiago.

—Ez dot uzte...

—Egingo dizut posturia...

Anton'ek arrazoi: eun da amar barrika bete zituzten koipez. Lege-zaarrak (52) onela erafoakita zeukan: barrikak guztiak neurri berekoak bear zuten izan. Bakoitzak, lareun libra: berreun kilo gutxi-gora-foera.

Koipetik gaiñera beste 250 foale-foizar agoaren alde bakoi-tzetik atera zituzten. Bosteun, alegia.

Bale-foizarrerri oso arrera ona egiten zieten merkatuan. Emakumeen korseak, soiñekoen beste eutsigarriak, txapel bereziak, abanikoak, aisto-kirtenak eta albar egiteko aukerakoak ziran (53).

Balearen ezurrez era askotako gauzak egiñ oi zituzten: bizkar-ezurrekin aulkiak; beste ezurrekin, foerriz, ate eta **leioHburuak**, etxeko ageak, soroetako esiak...

Orra erri batentzako zenfoat afoerastasun!

Eta, mingaiña?

## EL FUNDIDO DE LA GRASA

*Se funden a la vez la grasa de la piel y la de la carne. Por otro la la lengua.*

*Esta daba la grasa mds fina empleada para engrase de maquinaria delicada, como los relojes.*


*La carne no se comía entre nosotros; sino que la fundían para grasa. Para ser comida, se exportaba a Francia.*

*Ademds de grasa una ballena tenia 250 barbas o «ballenas» por cada lado de la boca, que servían para 7 corseteria, abanicos, cuchillería, et-n cetera...*

*Los huesos se empleaban para vigas, dinteles... Con las vertebras construían asientos y sillas.*

*Para el fundido de la grasa se construían a las afueras del pueblo una tejavana con los hornos.*

*Restos de hornos vascos van apareciendo en Canadd cada día en mayor abundancia.*



#### El horno y la caldera

*El horno se construia de ladrillo. Cuadrado. Una cana de altura y cana y media por cada lado.*

*PoV arriba llevaba un agujero redondo para colocar la caldera; y otro en la parte baja por un costado para introducir en el el material de ignicidn.*

*El fuego se iniciaba con carbón vegetal y se continuaba con los residuos de la fundición de la grasa, que ardian mejor que el carbón.*

*Las calderas eran de cobre y de tres medidas: dos pipas, una pipa y media pipa.*

*^Cada pipa media 450 litros.*

*El Fuero mandaba que las barricas*

Ori ez zan Anton'entzako. Irutik bi zati erriarentzat, moillak konpontzeko. Irugarren zatia, elizarentzat «manobreroa» eta bere tresnak mantentzeko ordaiñetan. Mingaiñetik atera oi zuten koiperik fiñena eta bereziarena. Erloju eta mekanika gaietarako aukerakoena (54).

\* \* \*


Baiña, ikus dezagun zer egiñ duten azal eta aragiekin. On-do zatitu-ta gero, labara eraman dituzte gurdi eta narretan. Askorentzako alogera.

Koipedun aragi orrek seinu zuan izena eta seinu urtutzeko, erritik-landa aterpeak egiñ oi zituzten. Aterpe oietan labeak jaso seinu urtutzekoak. Labeak erri^barruetan egiñ ezkerok, keak eta atsak eragazpen eta molesti asko sortzen bait zuten.

Lumera izenakin ere aitatzen dituzte labe eta kaldara oiek. 1415'an Donostiko lege batek, erritik kanpora bear dutela agintzen du. Lekeitio'n ere berdintsu.

Gure errietako labeen aztarranik ote danik ez dakigu; baiña, Kanada'n badira euskaldunek egin zituzten labeen arrasto eta erreusak.

*Labea:*



Labeak ladrilluz egiñak zeuden. Lau kuadrokoak ziran; alde bakoitzetik kana t'erdi zabal. Gora, berriz, kana bat. Beeran, lurraren parean, zuloa barrura, bertatik ikatsa sartzeko eta sua egiteko. Bertan bi barra burnizko, lurretik jasoak, gañean koipearen txingarrak erretzeko, oibeak bait dira ikats-egurra beftera baiño. Gaiñetik ere zuloa zuten beeraiño, kaldara jartzeko (55).

Kaldara edo eltzeak iru neurrikoak izan oi ziran. Batzuek bi «pipa» koipe jasotzekoak. Besteak, pipa batekoak. Irugarrenak, pipa erdikoak.

«Pipa» bakoitzak 450 litro zitun, ibi barrika inguru.

Eltzeak urraidazkoak ziran: kobrezkoak, alegia. Lodia aunditasunaren proportzioan: bi beatz lodi, bi pipakoak; beatz bat, pipa batekoak; beatz-erdi, pipa erdikoak (56).

Erriko atetik kanpora dagoen labean urtu dituzte azalak, saiña eta erraiak ere bai.

Sua egur-ikatsakin asi badute ere, gerora urdai-txingarrekin eutsi diote eta orrela ikatsik erre bearrrik ez.

*Aistoak:*


Aistoak erabili dituzte mota askotakoak: txikiak eta aundiak, okerrak eta zuzenak, kirten-luzeak. Aisto aundiak metro-erdi bat luze izaten zuten eta kirtenak berak metro t'erdi.

Zatitu ondoren, zati oiek andatan artu eta labean sartu, eltze barruan.



Seina urtutzen danean, urtu ala, lau-kuadroko egurrezko ontzi batera eraman. Laibe inguruan dago gerturik. Ontzi orretan


*Eltzea edo kaldera:*



*para la grasa fueran de 400 libras.*

*Cortan la piel de la ballena en tiras desde la cabeza hasta la cola. El resto, la carne, en trozos.*

*A la caldera llegan trozos de 20 cm. de lado.*



*La grasa derretida se vierte en una tina de madera que contiene agua hasta media altura. La grasa flota y el resto se hunde en el agua. De la tina, a través de un filtro, se pasa la grasa a las barricadas.*

ura dago erdiraiño eta bertara koipe-urtua botatzen danean, zafeor guztiak beera dijoaz eta koipea ur-gaiñean igari gelditzen da. Txo-txa feadu zulotik koipea ateratzeko. Koipea galbaitetik pasa eta barriketan gorde. Noiz-beinka ur garbia aldatu eta azpiko zaiborrak atera (57).

*Koipeak garbitzeko:*

Beste era onetara ere egiñ oi zuten koipearen garbiketa: Burruntzali aundiekin, edo tangartakin (baldeak, alegia) urez erdiraiño feetetako barri'ka batera bota koipea. Gero, barrika artatik beste batera pasa, au ere urez erdiraiño. Andik irugarren barrikara, koipea garbitu arte.

Garibitutakoan, orduan gordetzeko barriketan ixuri. Seina bera, gazituta, foeste gabe, gorde izan oi da barriketan (58).

Eun da amar barri'ka dituzte Anton eta bere lagunek. Atera dituzten koipeak klase eta mueta askotakoak dira: zuria, oria eta gorria.

Iruetatik onena zuria da, feera bait da koipetsuena. Txarrrera, gorria. Anton, ordea, zuri eta gorrikiakin oriak egiten aibilla Ja. Egia esango badegu, naasteak edozeiñek egiten zitun. Anton'ek ere bai.

—Anton, koipe oritik zenbat barrika...?

—«Dakixenak, bakixela».

—Zer esan dozu...?

—«Azak, ederrak» (59).

—Baiña, Anton, laguneren artean ez gaude ala...? Zergatik esan ez...?

—Arrazoiak neuriak, eta eurak naikoak.

Anton Zantar orrela jartzen danean, ez dago itzik bear bezela aceratzetik iñundik ere. Bai, ba, baleatik ogei foarrika ori atera foaditu, bere naasteakin beste berrogei atera baietz...!

Pakean utzi bearko.

Zertarako erabiltzen da bale-koipea?

Lenengo-ta-foat, argitarako. Argi zoragarria egiten du. Argitarako beste gai oberik ez da (argizaria ez bada) oraindik sortu. Etxea guztiak eta uri nagusietako kaleak bale-koipearekin argitzen dira. Argizaria baiño askoz merkeago eta beste koipe guztiak baiño dbea. Elizeetan ere koipe ori erabiltzen dute argitarako, olioaren orde.


Makina-tramankuluak leuntzeko aparta ona da.

Baleak, aragi fozela jateko, estimaziorik ez Euskalerrietan. Aragitako Baiona'ra bialtzen zuten. Eta Euskaderritik kanpora ere bai. 1059'an Baionak bale-aragia saltzeko eskubideak eskatu zitun. Eskuibide bereziak, eskatu ere (60).

Paris'en «Garizumako urdaia» izenakin saltzen zuten. Eleizak foalea arraitzat jotzen zuan eta aragia-uzteko egunetan jatea libre zan.


Ona foale-aragia jateko era batzuek:

Gatz eman eta kipula, batzuri eta perrejillekin egosi.



*Se empleaba la grasa sobre todo para iluminación. Su luz era tan buena como la de la cera; pero, mucho más barata.*

.....



*Vna ballena suponía muchos jornales en trabajo y una gran activación del comercio por tierra y mar.*

*Era frecuente la presencia de barcos holandeses, ingleses, daneses... en nuestros puertos, buscando la grasa de la ballena.*

Erre eta naranjakin jan. Edo bestela, azukre eta espeziakin egindako saltza erantsi. Parrillan erreta ere jan oi zan.

Erreta jateko zatirik onenak: mingaiña eta gibela (61).

Anton Zantar'ek baditu mandazaiñak ere.

Zertarako?

Naparroa eta Kastilla'ra baile-koipe-'barrikak eramateko. Asko saltzen bait du Euskalerritik at ere. Biajerik ez galtzeko, gero andik ardoa eta gariak ekarriko ditu.

Ez pentsa, ordea, legorretik bakarrik ibiltzen danik Anton, ez orixe; edozein garaitan ikusiko dituzu Lekeitio'ko kaian holandar eta ingelendar oial zuriak. Dinamarca eta beste errietaik ere izan oi dira. Guztiak koipe (billa datoz.

*Sardea*



*Burdiñ-txali*



*Aistoa*



*Galbaia*





## J

## BALE-IRABAZIAK ZABALTZEN

Kai-inguruan arrapatu eta errira ekartzen ziran baleeri buruz ariko gera.

Gaurko egunean atunak eta antxoak lana eta ogi-foidea dakarte eurakin batera erriko faforiketara, eta ez foakarrik arrantza-leentzako. Arrantzale ez diran frankok jaten du antxoak eta atunen bizkarretik.

Beste orrenbeste gerta oi zan bale-arrantzarekin ere. Area-go. Bale batek lana ugari sortzen zuan bere ondoren, askoren ogi-foide. Zatiketak egitea, koipea urtutzea, egur-ikatsa egitea, pertzak eta kaldarak, foarrilak eta tinak, mando eta mandazaiñak, itxas-ontziak merkataritzarako, denda eta dendariak... Zer, ez?

Barrilleruak galdu ziran Euskalerrietan, oraintsu arte iraun badute ere. Defoa'n amar urte izango dira aizkenekoa iltzala. Getari'ko kai-gaiñean an ikusten genduan, ez dira amar urte izango, barrillero zaar bat bere lanean. Askotan egoten nintzan berari begira, zer patxara ederrean lan egiten zuan. Lekeitio'ko berririk ez dakit aspaldikorik; baiña, aitatuta daukagu abesti au:

Orduan egunian  
jan efoen fookarta  
Santi barrilleruak  
auskia aparta...?

Ez goaz, ordea, irabazi oieri begiratzera ere. Balearekin berekin zer egiten zuten aztertuko degu, besterik gabe.

\* \* \*

Anton Zantar'ek foalearen mingaiña bereiziki urtu du, beste koipe guztien ondoren. Mingaiñetik lortu idiran koipe fiñetik irutik foat eleizara eramango du. Eta foeste irutik foiak, erriko agintari, moillak konpontzeko. Eleizeak, berriz, esana daukagun bezela, koipe orrekin «manforero» bat bear zuen mantenu, foere

## J

## REPARTIENDO LAS GANANCIAS

*La ballena traía consigo mucho dinero en trabajo: desguace, acarreos, hornos, carbones, calderas, barriles y comercio por tierra y mar.*

*De cada ballena se hacían tres partes: una para los muelles (parte para la iglesia); otra para el patrón, dueño de embarcación y aparejos; 1 tercera, para los marineros.*

*Pero, antes de este reparto se hacía el de las ventajas:*

*Al atalayero por descubrir la ballena; al arponero que metió el primer arpon doble ventaja que a los cinco arpones siguientes; a los que metían la sangradera, una ración por cada vez; por tener los aparejos y las estachas en buenas condiciones...*

*La ballena paga además las desgracias en materia y personal que hayan tenido lugar durante la pesca.*

*A quienes mataron la cría se les dard participación en el reparto de la madre.*

*Razon: en tal caso es más fácil matar a la madre.*

*Hay algunas variantes en el reparto según lugares y tiempos; pero lo dicho nos da una idea bastante general.*

*Habría que añadir aquí los impuestos.*

*Impuestos que dependian de los lugares a donde se llevaba la ballena. Alguna vez, eran impuestos personales que seguian a las personas donde quiera que fueran.*

*Con frecuencia se armaban lios y trifulcas en el mar a la hora de determinar quien habia adquirido derecho a llevarse a puerto la ballena.*

*El primer arpdn se llevaba el cetdeo a su puerto.*

*La pequeña historia nos cuenta una serie de sucesos, que quedaron escritos en los papeles...*

tresna guziekin. Ala agintzen du Lekeitio'ko «Ordenanza» batek 1486'an. Eta berritzen du agindua 1607'an.


1683'an erabaki au artu zuten Getaria'n:

Bale oso ibakoitzetik iru zati egiñ: bat erriarentzat, moillak eta kaia zaintzeko; bigarrena, txalupa-patroientzako, beuronak izaten bait ziran ontzia eta tresna guziak; irugarrena, mariñelen artean zabaltzeko.

1525'an, Bermeo'n, mingaiña elizea jasotzeko izaten zan.

1685'an, Deba'n, Arrantzan parte artutako txalupa bakoitzak soldata bana ematen zuten Animen Kofradirako errira ekarritako bale bakoitzetik.

Portu geienetan ematen zuten zerbait eliza eta bere ekin-tzetako (62).



Balearen zati bat talai-gizonentzako, berak balea -rakutsi feadu. Balea ikusitakoa beste bat foalitz, oneri kintal-aragi baten prezioa, salduta gero.

Markeliñ'eri (berak sartu bait zion lenengo arpoia baleari), bi kintal okela. Beste bost arpoiengatik, kintal bana bakoitzari.

Xaboliñ bakoitzeko, berriz, bostna libra aragi.

Arrantza ari dan artean ontzietan edo gizonetan okerrik izan bada, balearen bizkarretik ordaindu bear dira, partiketari asi baiño leen. (1555: Lekeitio'ko Ordenanzak). Ezbearrak estatxa edo erremuetan izaten diranean, orduan ez da ordaiñik.

Anton Zantar'ek erosi duen bale onetan emezortzi txalupak, aundiago eta txikiago, artu dute parte eta okerrik ez da gertatu bat ere. Suertean dira.^/

Bañaketak asi baiño leen, «abantaillak» ordaindu bear ziran. Abantaillak, zera, sariak dituzu. Bale aundia danean, eta gaurkoa aundienetakoa dezu, amar leen-da-biziko txalupek zuten sari ori. Lenengo arpoia sartu dion txalupari, buztanetik eta burutik laurdena. Zorionekoa Pedro bere «Aingeru Guardakoa»'kin, buruaren eta buztanaren laurdena jasoko bait du sari bezela, besteak beste dirala. Gaiñera Markeliñ'ek, kintal bi okela sari. Pozik dira etxean gaur, arranepola!

Beste buru eta buztanaren iru laurdenak bederatzi txalupen artean banatuko dira, sari bezela, arrantzan parte artu izan duten neurrira.

Bale-kumea izan balitz, berdiñ banatuko ziran abantailla eta sariak; baiña, sei txalupen artean bakarrik.

Estatxa onak erabiltzeagatik ere bazuten saria. Beste alde, zigorra ere bai estatxak bear bezelakoak ez diranean. Seiñeruek ikusiko dute estatxa bakoitzaren egoera (63).

Bale-kumeari buruz ere bada beste jakingarririk. Ona zer:

Bale-kumea beti bere amarekin agertu izan oi da gure itxasoetan. Bale-kumeari arpoia sartzen zion lenengo txalupak, ama iltzen zutenen artekoekin izango zan abantailletan, naiz eta txalupa orrek bale-ama ill zutenen artekoa izan ez.

Zergaitik, ori?

Kumea ill ondoren ama arrapatzea oso erreza bait zan. Orretan, erabaki ori artzean, buru-bidea eta zuurtasuna agertu zuten lekeitiarrak.

\*k                    v<sub>c</sub>

Beñ gastuak, abantaillak eta mingaiña ordainduz gero, gelditzen zana, zati aundia oraindik, balea ill baiño leen parte artu zuten txalupa guztien artean banatu bear zan (64).

\*                    \*                    ii

1685'an, Abenduak 15, Ordenanza berriak onartu dituzte Deba'ko portuan, Lekeitio'koekin berdiñ ez datoztenak. Lekeitio'ko abantaillak, «bentajak» dira Deba'n. Iru txalupeentzako bakarrik eta dirutan. Bale aundia bere kumearekin batera arrapatzen zutenean, zortzi lenengo txalupari, sei bigarrenari eta lau irugarrenari Aundia bakarrik bazan, sei, lau eta bi bakoitzari. Gelditzen zana («manta^ esan oi zitzaion) txalupa guztien

artean banatzen zan, gizon bakoitzari soldata bat, gizonak kontuan arturik eta ez txalupak bakarrik.

1712'an, ona zer agintzen zuten gai oneri buruz Zumaia'ko erabakiak:

1n. Bale-arrantzara irtendako txalupa bakoitzari iru soldata txalupa eta estatxagaitik. Erdi bat geiago kalteegaitik.

2n. Abantaillak: Lenengo txalupak, bi kintal. Bigarrenak, bat.

3n. Gizonez eta estatxaz ondo ornitutako txalupa guztiek irten zezaketen arrantzara.

4n. Irtetzean iñork barran okerrik balu, arrantza-partea emango zaio.

5n. Itxasoan bale bat baiño geiago balego, eta bale batek iges egiñ, orduan onen ondoren ibillitako txalupak ere arrapatutakoaren partillan sartuko dira.

6n. Partillan tarteko izan nai duanak, balea ill baiño leenago eldu bearko du arrantza-lekura.

7n. Oker guztiak baleak ordainduko ditu; baleak iges egiten badu, orduan Kofradiak (65).

w w rk

Bale bat akabatzen zutenean, bakoitzak bere portura eraman oi zuan, iñoren kaietan karga aundiagoak jaso bear bait ziran. Arazo onetan Bayona zan besteak ez bezelakoa eta bayonatarrak

naiago izaten zuten balea Ondarrabi edo Cap-Breton'era eraman beuren errira baiño.

Askoetan eztabaidak sortzen ziran itxasoan bale-arrantzari buruz, zeñek sartu zion lenengo arpoia eta zeñiek lenengo aldiz ikusi eta gerturatu.

Ibarregelutarrak asarreak izan zituzten lekeitiar eta berneotarrekin goiz batean; baiña, gertaera onen berri aurreraxeago emango degu.

Errietan alkate bat izan oi zuten agintari. Baiña, erri-jaio-berrietan («villa», edo erri-billa, edo erri-bilduetan) erregearen ordezeko «preboste» bat izan oi zuten petxak eta kontribuzioak jasotzeko.

Getariarrak urteero arrapatzen zuten lenengo balea, 1220'an, erregearentako zan. Bale au dala-ta-eztala erreagerin ez-ta-baidan ibilliak ditugu. Gerora bale osoa bale-erdi biurtu zan. Erregeak, 1379'an, agintarientzat uzten du balearen erdia, erriko agintarientzako, alegia. 1469'an, berriz, Donosti, Mutriku eta Getari erregearekiko karga onetik libre ikusten ditugu...

Garai batean agindua eman zien arregeak getarkreri, foerari zor zioten bale-erdia Donostia'ko Prebosteari emateko. Baiña, erriko jendeak agintariekin batera, bale-erdi ori erregeari ez ordaintzeko erabakia artu zuten. Auzia ebagitzeko juezak aukeratu zituzten konpontzaille. Bale-erdiaren orde, 640 kintal burni ematekotan gelditu ziran (66).

Aldi batzuetan petxak eta kargak arrantzaleen gaiñ joan oi ziran edonora eurakin batean. Esate baterako, zarautarrak erregeari, bale bakoitzetik, burutik asi eta buztanerañoko zerrenda luze bat eman bear zioten. Agindu ori 1237'an emandakoa da (67).

Baleak ez-ezik beste arraiñek ere ordaintzen zituzten beuren zorrak Euskalerrietako kaietan.

Erriak «villa» (bilduak) egiten ziranean (Bermeo, Lekeitio, Portugalete...), Bizkai'ko arraiñetatik onenbesteko bat eskatzen zieten.

1457'an Lekeitio'ko preboste Juan Garcia de Yarza'k amabostna arraiñetik bat eskatzen zien domekaero, igandero.

1536'an bere seme Martin Garcia de Yarza'k arrantzaleeri, beuren otarretan ateratzen zituzten sei bixiguetatik, partea eskatzen zien... Baiña, mariñelak ez ziran orretan konforme izan eta burrukan ekin zioten luzaroan. Arrantzaleek ziotenez prebostearen (eskubideak kaian bertan saltzen ziran arraiñeri zegokien) bakarrik, eta ez eurak, mariñelak jasotzen zituzten arraiñeri... Burrukak izan zituzten berriro 1543'an. Garai auetarako prebostearen eskubideak erdiraiño etorri dira: ogeitamar arraiñetik bat, alegia. Kofradikoak ziotenez, ez eurok, eta ez euron aurrekoek ez zituzten bearkizun oiek ez ontzat artu, eta ez ordaindu... ezta aurrera ordainduko ere. Ez zuten artarako asmorik (68).

Ez-ta-baida auetatik agertzen diran egiak auek dira:

Eun arraiñetik Prebostearentzat iru zirala.

Baiña, saltzen zan arraiñetik bakarrik eta ez, saldu gabe gelditzen ziranetik.

Ezta ere otzara edo saskietan arrantzale bakoitzak etxera eraman oi zuenetik.

Gaiñera au ere agertzen da: iru arraiñek bakarrik ordaintzen zutela zor ori: amabi brazako itxasotik kanpora arrapatzen zituzten bixigu, legatz eta itxas-aingirak.

Eta ez beste arraiñek (69).

Ez dute sardiñarik aitatzen. Ez eta beste itxas-ertzeko arrantzurik ere.

Beñ arraiña saldu ondoren, karnataren prezioa kendu eta beste berezko kastuak ordainduz gero, gelditzen zanetik, eunetik iru izan oi zan Prebostearentzat.

Eunetik bat Eleiza eta bere eginkizunetako.

Kofradiako Maiordomoak beste orrenbeste jasotzen zuan.

Gelditutakoetatik, eunetik larogei ta amabostak mariñelen artean banatzen zituzten. Gelditzen zana txalupa-patroientzako eta gaiñera «tres quiñones y mas al respecto de como Ueba cada mareante» (70).

Gai aueri buruz, ordea, prebosteekin izan zituzten burrukak eten-gabeak izan ziran gizaldietan zear (71).

Bakoitzak bere portura eraman oi zituzten baleak; baiña, itxaso-zabalean erri askoetako txalupak

alkartzen ziran eta burrukak sortzen maiz.  
Oietako bat zan Ifoarrangelu'ko arrantzaleeri  
gertatu zitzaiena:

1611'ko Ilbeltzaren 11'an, egun-sentian  
ibarrangelutarrak Ekntxobe'ko kaitik irten zuten  
bale-billa. Ea'ko foarran iru Sardako Bale ikusi  
zituzten. Fko. Muniategi zan bere txaluparekin.  
Bale-ondoren Ogoño-menditik pasa ziran Bermeo  
alderuntz. Elantxobe'tik beste bi txalupek irten  
zuten ibarrangelutarren laguntzan.

Bermeo aldera zijozela irten zuten Bermeo'tik  
Beltran de Amezketa lekeitiarra eta beste bi  
txalupa. Auek, bale foat ill zuten. Aiek,  
bat-ere-ez... Ortik sortu zan ez-ta-baida eta  
Ibarrangelu eta Elantxobetarren asarrea.

Beltran de Amezketa (38 urte), arpoikria bera,  
iru txalupa-pinazaren fouru zebillen. Bera zan  
txalupa baten patroï. Bigarreanean, bere anai Pedro  
Amezketa eta irugarreanean Lazaro de Arrona.  
Txalupa bakoitza patroï eta zazpi gizonekin...

Historiak beste burruka asko ere aitatzen ditu,  
baña ez ditugu aitatuko bat foesterik. Bersotan  
dator eta Ondarroa'n foildu zkan foertso oiek. •

Zubek getariarrak  
besigo ugari  
utzi ezazute  
gure baleari  
ama igesi joanda  
umia da ori.  
Segi esaiozute  
nai badezue ari.

\* ¥ #


Luis Gaiztubak eman d  
lenengo arponada;  
balia arrapatzeko  
txit gizon ona da:  
estimatzekua da  
alango arponada:  
bederatzi milla errial  
bazulben jornal.

\*ii \*k w

Joshe de Karamelo  
bigarren golpian  
ederki portatu zan  
bere sufoertian  
baliari odola  
bizkarra betian  
etzitzaion gelditu  
ito zan artian.

\* \* \*

Joshe Manuel Shereno  
indarrak baditu  
aren zartadakua  
Getarian agertu  
jende guzia orduan  
emen zan arritu  
izugarrizko famak  
ekarritu (73).



1282'rren urterako bazuten bermeotarrak paraje aietan arraiña gazitzeko eskubide guztiak artuta (76).

XVI'garren eunkian bale-billa Galizia'ra joateko oitura sartuta zegoan gure mariñelen artean. Urrilletik Martzorako denboran joan oi zuten. Artarako pinaza-txalupa aundiak erabiltzen zituzten. Eta petxarik ez zuten ordaindu bearrrik Higer muturretik (Ondarrabia'n) Finisterre'raiño (Galizia'n) (77).

Balea Ifar-aldetik zetorren. An goia artan foizi zan eta itxasoa izozten zanean, zenbait baleek egoalderuntz jotzen zuten eta gure kostan agertu, gure arrantzaleen pozerako. Auek ez ziran Galizia'ra bakarrik joaten; urrutiago ere bai. Eta aspalditik joan ere. Irlanda'ri buruz ari nazaizu. Irlanda'ko kostalde guztia oso ezaguna zan gure artean. Izokia, sardiñ-arenkea eta legatza arrapatzen zituzten toki aietan. Gaiñera, merkataritza ere egiten zuten an bertakoekin: bei-narruak eta zeziñak erosi.

1533'an Lekeitio'ko ontziak Irlanda eta Terranoba'raiño ibiltzen ziran (78).

1625'an Lopez de Isasti'rek («Compendio Historial») esaten digu, eun urte aietan Irlanda'ko bidea aaztuta zebiltzela euskal mariñelak (79)

1625'an nora joaten ziran leenago Irlanda'ra joaten ziran ontziak? Isasti jaunak, berak emango digu erantzuna. Ona emen:

«... urteero ontzi askorekin joaten dira gipuzkoarrak Terranoba'ra, lur eta itxaso izoztuetera... bakaillao-kosta deritzain parajera.

Martzoan irten eta Agorra edo Urrillean etorri, bakaillaoz foeteta... eta bale-koipez... ugariak bait dira toki aietako baleak...» (80).

Isastrk gorago esan duana esan arren, 1534'an, oraindik joaten ziran Irlanda'ra ere. Labayru jaunak dionez, 1534'an, urte orretan bertan, itxasora irtetzeko zai amalau ontzi zeuden Donostia'ko portuan. Oietatik bat Galizia'rako zan; bederatzi, Irlanda'rako eta bestea norako zan ez du esaten. Flandes erako bestea. Eta beste bi merkatariak. Pasaia'n, berriz, Iau ikusi zitun Irlanda'rako (81).

\* \* 9

Balearen ondoren joan ziran Galizia'ra. Eta andik, Terranoba'ra.

Beti balearen ondoren. Emengo itxasoan banan-banan zebiltzan baleak, Terranoba'ko parajeetan sardatan, moltzoetan zebiltzan. Ortiketa ona, Sardako Balea izena jarri zioten. Ango foale-ugaritasunaren berri Euskalerrian zabaldu zanean, utzi zioten Irlanda'ko bideari, Terranoba'rakoa artzeko. Balea bakarrik ez zan an topa zuten aberastasunik; bazan geiago, ere. Balearekin batean, bakaillaua arkitu zuten ugari baiño ugariago. Arrezkero balea eta bakaillaua alkarrekin dijoaz euskaldunen biotzetan. Nagusiena, ordea, beti izango da foalearen arrantza euskaldunentzako.

Terranoba'tik Urrillean etortzen zialarik, orduan asiko zan emen foertako balearen arrantza ere. Negua etxean egiten zuten. Baleren bat agertzen bazan kai-inguruan ongi-etorria egiten zioten... Baiña, berriketari utzi eta goazen Terranoba'ra, bertara.



## B

### TERRA - NOBA

«Terra-nova» izenak «Lur-berri» esan nai du. Itxas-gizonen batek arkitutako lur berria.

Berez, Terranoba ugarte edo isla bat da; arkitzailleak, ordea, ez zuten uzte izan ugartea zanik. Ez da paperetan, beintzat, ezaguera orren berririk izan urte batzuek pasa ziran arte.

Lurralde oiek euskaldunek billatu zituzten esaera oso da zafoaldua munduan eta ez euskaldunen aotetik, bestela baizik. Erdakmek esan-da.

1372'an joan omen ziran euskaldunak ara Kolon'ek Amerika arkitu baiña eun urte aurretik.

Nundik eta nola sortu zan munduan siniste ori?

Kolon'ek Indietako bideak billatzen asi baiña leen, «Maderas» deritzan ugartean, euskal mariñel foaten aotik entzun omen zuan, bazirala lurak itxasoan sartaldetik, oestetik, alegia...

Euskaldunak balearen ondoren bertara eldu ziranik edo ez, ori ez degu sekula jakingo eta ez zaigu buruan auzi au eirabakitzeko asmorik ere sortu. Alaz ere, gauza auek guretzako jakin-garri dirala deritzagu. Besterik gabe.

## B

### TERRANOVA

*Existe una leyenda mantenida a lo largo de los siglos, y no por los vascos, de que en 1372 nuestros pescadores habian ya descubierto Terranova y sus contornos.*

*Asi mismo, de que un marino vasco pescador terranovero dio informacion a Colon sobre la existencia de tierras al Oeste del Atlántico Norte.*

*De que, aparte la leyenda de 1372, los primeros pescadores de Terranova fueron vascos; y los primeros balleneros, desde, luego.*

*Cierto es que los vascos enseñaron a otros pueblos europeos el arte de pescar la ballena.*

*En el alborear del s. xvi los vascos pescaban en el Golfo del San Lo-*

*renzo ballenas, sobre todo; y tambien, algunos, bacalao. Todos comerciaban en pieles de castor.*

*Muchos millares de pescadores de nuestro litoral hacian la ruta de Terranova durante el s. xvi.*

K

*Vn documento inedito de la «Biblioteca Nationale» de Paris afirma eñ 1550 que, cuando Jaime Cartier dio por primera vez la vuelta entera a Terranova en 1534, descubriendo que era isla y no peninsula, encontrd a los vascos pescando en el Golfo del San Lorenzo.*

*Tambien afirma ese documento que la isla que los indigenas Uamaban «Miningo» (conocida despues por «Ile-aux-Basques» o Isla de los Vascos) era refugio de nuestros pescadores.*

*En esto como en otras cosas hemos sido «cortos en contallas y largos en facellas».*

Terranoba'ko lurren arkitzaileeri buruz, esaerak badira bat baiño geiago; baiña, aufrerago abiatu baiño leen, jakintsu baten itzak datozkit burura. Ona zer dion jaun onek:

«... arrantzale euskaldunak (normand eta bretoiñak berdin) historiagabeko gizaseme apal eta umillak, urteoro beuren arrantza lurralde aietan betetzen zuten... Arrantza oso aberatsa izanik, mariñel eta armadore-nagusiak oso pozik dabilta bere suerte arekin. Orrela, urteoro etortzen ziran (Kanada'ra, bertakoa bait da idazle au) eta urteoro joan. Zertarako aizeetara eman euren gordeleku aiñ aberatsa...?» (82).

Ori ere ala da.

Orrelako lekuak ixillean gordetzen iaioak gaituk, leenago bezela oraiñ ere, euskaldunok arrantzan itxasoan bezela, mendian perretxikutan...

\* \* \*

Oiek begien aurrean ditugula, ona nundik eta nora zabaldu dan euskaldunak izan zirala Terranoba'ren arkitzailleak.

XVI'garren eunkian Bertrand d'Argentre jaun prantsezak zionez euskaldunek (normand eta bretoiñek) eldu omen ziran Terranaba'ra beste iñortxo baiño leenago.



1661'an Etienne Cleirac, prantsezak, dio euskaldunek topatu zutela Terranoba'ko lurra eta Kolon eri Indietako berri eman zion itxas-gizona euskaldun terranobazalea izan zala Ori agertzeko Aita Antonio San Roman'ek idatzitako «Historia General de la India» (L. I. Cap. II, 8 orrialdea) aitatzten du.

1789'an D'Alembert jakintsuak, Terranoba euskaldunek arkitu zutela esaten du bere Enziklopedian («Enciclopedia Metodica», T. V. Sec. Artes y Oficios). «Morue» («bakaillau», alegia), itzean. Berdiñ esaten du «balea» itzean: euskaldunak izan zirala bale-arrapatzen eta bale-koipea urtutzen lenengo ikasi zutenak.

1861'an, Jules Michelet'ek «La Mer» bere idatzian, euskaldunak izan zirala lenengo bale-arrantzaleak, esaten digu.

1878'an, Van Beneden'ek («Un mot sur la peche de la Balaine et les premiers expeditions arctiques» liburuan) euskaldunek 1372'an arkitu zutela Terranoba esaten digu.

1949'an, M. Robert de la Loture'k onela esaten digu: Kolon'ek Ameriketako lurak ikusi baiño 200 urte aurretik, euskaldunek arkitu zutela Terranoba; aurretik, ordea, bikingoak an izanak omen X'garren eunkian, gerora auen ibillerak era bat aaztu baziran ere (83).

\*k i(

Esandakoetatik ona zertzuk agertzen zaizkigun:

In. Bikingoak, X'en eunkian eldu zirala

Terranoba'ra, naiz eta ordurako indioek bertan bizi.

2n. Ondoren, XIV'garrenean, Kolon'ek Ameriketa bideak zabaldu aurretik, euskaldunek aaztuta zegoan foidea berriro arkitu zutela.

3n. Euskaldunek eldu zirala Terranoba'ra lenengo eta gero Kolon'eri berri ori eman.

4n. Euskaldunek izan dirala foale-arrantzan leenak.

5n. Euskaldunek dirala bakaillau-arrantzara lenengokoekin joan ziranak.

Naaste onetan gauza batzuek argi agertzen zaizkigu egi bezela:

Euskaldunek izan zirala lenengoko bale-arrantzaleak.

Kolon'ek Amerika arkitu aurretik, lareun urtetik gora, euskaldunek bale-arrantzan ekiten zutela.

Beste erriek, euskaldunek erakutsita, ikasi zutela bale-arrantzan.

Balearen ondoren Terranoba'ra eldu zirala eta an bakaillaua arkitu.

XVI'garren eunkiaren asieratik millaka gizaseme joaten zirala, batez ere bale-arrantzan, baiña bakaillautan ere bai, aberastasun ugariak errira ekarriaz.

Sekulan garbi jakingo ez ditugunak auek dira:

Euskaldunek 1378'an Terranoba arkitu ote zuten.

Kolon'eri euskaldun terranobazale batek eman ote zion lurralde aietako berri.

Bikingoak, X'garrenean, ara joanak izan ote ziran, esaera ori ipuiñetan oiñarritzen bait da.

«Bakaillaua» euskal-itza ote dan (84).

\* \* \*

Arazo oneri buruzko paper zaarrak zer diote?

Gure kondairan zear, guk euskaldunok ez degu paperetan fede aundirik izan. Erri-legeak ere oituretan genduzkan eta ez paperetan. Millaka urte asko dira euskaldunok emen, gure lur onen gaiñean, bizi gerala; baiña, gure erri-legeak ez ditugu oraintsu arte paperetan idatzi. Ez da aritzeko gure aurrekoen paperik ez arkitzea iñungo arazoetan. Oiturari eta esaneri eutsi diegu tinko. Gizaldietan zear...

Alez ere, mundukoak gera, munduan bizi gera eta mundu onetan bada paperik ugari. Guk geure bururik aitatu ez arren, besteen paperetan agertzen gera noizik beiñ; ikus ditzagun, gure arazo onekin zerbaiz ikusteko duten oietako berri batzuek:

1492'an, Kolon'ek Ameriketako San Salvador lurra ikusi du. «Santa Maria» ontzia, Kolon'ena alegia, euskaldunek egiña zan eta euskaldunak zitun barruan, egun artan.

1493'an, Kolon eta Dela Kosa'ren ibillaldia.

1500'an, Labrador'etik beera etorri da Gaspar Korterreal, Terranoba'raño. Portugal'era itzuli da berri ematera. Bigarrenez abiatu danean, itxasoan galdu da. Arren aztarrenik ez du arrezkerok iñork geiago izan. De la Kosa Jaunak

Ameriketako leen-mapa egiten du, «Museo Naval de Madrid»'en dagoena.

1506'an, Manuel, Portugal'eko erregeak petxak jarri dizkio Terranoba'ko arraiñari.

1511-12'an, Errege Katolikoak (Fernando eta Isabel) baimena ematen diote Jean de Agramonte'ri Terranoba'ko baztarrak miaztu eta argitzeko. Laredo'n itxasoratu zan, Otxoa zalarik kapitan. Laredo'ko arrantzaleak ordurako joan-etorri asko egiñak zeuzkaten Terranoba'ko lurraldeetara.

1519-22'an, getariar Elkano'k munduari fouelta osoa eman dio. Leenengoa.

1529'an, Diego Rifoero'k, itxas-karta jasotzalleak, berak egindako Terranoba'ren kartan edo mapan, ez du Terranoba isla danik esaten.

1534'an, Jaime Kartier'ek, buelta osoa eman zion Terranoba'ri eta arrezkerok agertzen dute mapetan Terranofoa isla edo ugarte bezela (85).

T. E. Layng jaunak onela dio Kartier eta euskalduneri buruz:

Kartier jaunak, 1534'an, Frantzia'ko erregearen serbitzuan Terranoba'ri buelta osoa eman aurretik, etortzen ziran euskaldunak (beste errikoak ere bai eurakin batera) gurera (St. Laurent ibaiaren ingurura-Kanada'n)... 1503'tik gutxienez... (86).

Bada Paris'ko «Bibliothèque Nationale»'an, 1550'an egindako, eta oraindik argitaratzeko dan, idatzi bat (87). Bertan esaten danez Kartier

jaunaren aurretik eldu ziran euskaldunak St. Laurent ibaiaren aora, baleari segika eta bale-arrantzarako. Emendik ara goazela, Saint Laurent edo Lorenzo ao-ibaia Terranoba'ko beste aldetik dago.

Dokumentu orretan bertan esaten digute «Miningo» isla zutela euskaldunek gorde-leku. Eta ugarte onen inguruan zeudela arrantzarako lekuri aberatsenak eta oparoenak. Urte gutzian ez zala bertan balerik palta.

Bertako indioek «Miningo» deitzen zioten isla ori, gerorago «Ile-aux-Basques» izenakin ezagutu izan da beti historian zear. Bertan arkitu izan dituzte, oraindik-oraiñ, koipea-urtutzeko euskaldunek jaso zituzten labeen zatiak. Arrasto oiek adierazten omen dute garbi asko, euskaldunek 1534'en urtea baiño aurrerago ibiltzen zirala bale-arrantzan paraje aietan (88).

«Miningo» = «Ile-aux-Basques» (Euskaldunen-ugartea, alegia) isla txikia da. Bi kilometro luze eta 700 metro zabal. Alturarik aundienak ez ditu 50 metro besterik. Kartier jaunak an topatu zitun euskaldunak, bere aurretik joanak, alegia.

Islaren egoaldean diraute oraindik ere iru arrizko labeak, euskaldunek jasoak. Islaren egoaldean daude irurak; baiña, bi sorkaldera begira, eguzkia sortzen dan lekura begira, daude eta baleak datozten bidetik. Irugarrena, sartaldean dago, eguzkia sartzen dan aldera... (89).

Ugarte onen ondoan dago gaur-eguneko Newport erria.

Gure errian agertzen diran paperetatik (gutxi eta berandukoak) gauza auek ikusten ditugu:

1526'an donostiarrak Terranoba'rako bideak ikasi zeuzkatela.


1530'an oriotarrak, berdiñ.

1545'an, zarauztarrak.

Onek ez du esan nai aurrerago joaten ez, ziranik; aurrerako paperik ez dala, baizik (90).

Baiña, berriro esango degu, bistan dago ez gerala gu euskaldunok paper-zaleak izan. Beste alde batetik begiratuta, berriz, ez zan konbeni orrelako toki aberatsen berri kanpaiak jota ematerik.

Besteak beste, gu esateko motz, egiteko luze: «cortos en contallas y largos en facellas»...



Normandia, Bretoiña eta La Roohelle'ko arrantzaleek 50 eta 100 toneladako ontziak eramaten zituzten arrantzarako. Baiña, euskaldunak, bale-arrantzarako batez ere, 200 edo geiago tonekda-koak maite zituzten Terranoba'ra bidean.

Geienak, karabela tipoko ontziak.

Karabek estua eta luzanga izan oi zan. Ontzi ariña eta ilbilkaria. Iru mastako barkua. Aurreko bi mastetan gurutzeak eramaten dute, bela-oiakk lotzeko. Lau-kuadroko oialak. Atzeko mastan ez dute gurutzerik.

Galeoia sendoagoa zan; baiña karabek ariñagoa. Onek er-tzak zitun naikoa gora jasoak. Ur-aundietan luzaro egoteko egiña. Killaren luzeroa, ur-azpitik 18 metro eta ur-azalean 21 nietro. Goiko kuibiertan, berriz, 39 metroraiño luzea oi zan. Zabalefoa, amar metro t'erdi. Ur-azpitik gorakoa, 2'60 metrotik irura.

Karabela bateko gizonak auek ziran: Kapitana, pillotua, maixua eta kontramaixua, barrillerua, kalafatea, arotza, kañoi-zai-tzaillea, bonbarderoa, deiak egiteko bi mutill, amabost mariñeru, beste bost gizaseme aziak eta beste ogei mutill gazte emezortzitik ogei urterakoak, ikasle bezela.

Ontzia oso aundia bazan oietzaz gaiñera apaiza, medikua, uraren arduraduna, janarien arduraduna eta bi mutiltxo (13-16 ur-tekoak) pintxe-lanak egiteko.



Txalupak, dozena-erdi bat, azpi zabak eta zapak zutenak; proa eta popa jasoak eta mako-antzean, jira-bira errez egiteko eran.

Zortzi gizon bear ziran bale arrantzarako eta iru bakalluta-rako (93).

Galeoiak ere joaten ziran Terranoba'ra, kañoiez ondo or-nituak. Itxasoaren erregeak ziran; baiña, ibiltzeko karabelak baiño aztunagoak. Milla toneladara ere irizten ziran pixutan.


Itxas-ontziak Euskalerriko kai guztietan egiten ziran. Ibaia zutenetan, areago. Baiña, batez ere Bilbao'n eta Pasai'a'n (94).

Koipea barriketan ekartzen zutelako, lenago esan degun be-zek, barkuak iru kubiarta izan oi zitun: bat gaiñeko eta beste biak, gaiñekoen bizkiak edo paralekk, azpitik. Rubiarta oietan barrikak



ondo alkarren aldamenean bilduta, jartzen zituzten, segurutik eka-  
rri aal izateko. Era orretara itxasoak aldamenetik jotzean barririk  
bere tokitik ez ziran mogitzen, tokiari itsatsita gelditzen bait ziran,  
beste alderaiño korritu gabe. Karga jartzeko era onek segurantzia  
ematen zion bela-barkuari. Ontzi asko ondoratu izan dira barruko  
kargaren mogimentuak itzulita.

Marrazki au 1589'an egiña da eta Terranoba'rako bideetan ibiltzen ziran ontzietakoa da  
Ballenero. Bale-arrantzarako ontzia.





## E

### T X A L U P A K

Bada Baiona'ko «Archives Communales»etan dokumentu interesgarri bat (95), joandan eukiaren (XIX) asieran nola baleak arrapatzen ziran eta nola koipeak urtutzen ziran, erakuzten diguna. Baiona'ko Pillotu Nagusiak egiña da.

Arrantzarako teknika eta tresnaeri buruz gauza asko esaten ditu, eta nik emen interesgarrienak jasoko ditut.

Txaluperi buruz ona zer dion:

Ontzi aundi bakoitzak lau txalupa eramaten ditu, geienetan beintzat. Badira iruko eta baita bosteko ere, foale-ontziaren neurri-  
ra.

Lau txalupa oiek barkuaren aldamenetan egon oi dira (foabor eta estrifoor), ontziaren ertzetatik kanpora eta aldamenetako esiak foaiño gorago. Orrela daudela ez dute bat ere estorburik egi-  
ten eta itxasora botatzeko, lan erreza.

Balearen ondoren asiko diranean, lenengo txaluparen patroia kapitana izango da. Bigarren buru, pillotua. Irugarrena, mai-  
xua. Laugarrena, kontramaixua. Bost arraunlari txalupa bakoitzak eta arpoilaria. Au lenengoko tostan, edo eserlekuan, joango da.

Oso dira ariñ txalupak. Bere egurrak ez du zentimetro foat lodi besterik. Muturrak dituzte zorrotz-gora eta arku-forman (ma-  
ko-eran). Luzeroa, 7,65'tik 8,30 metrora. Zafaleroa berriz, 1,70'tik 1,80'ra. Killatik gotakoa, 0,40'tik 0,45 zentrimetroetara; baiña, aurre-atzeko muturrak gorago jasoak: metro bat badute gutxienez.

Bost arraun ditu (arpoilaria arraunik gabe) eta atzeko arraun-lemak baditu sei metro luze. Beste arraunen neurriak, ona emen: Iruiek 4,65 metro; beste batek, 5 metro eta azkenak, 4,50.

### LAS CHALUPAS

*Los datos qtte siguen estdn entresacados de un documento inedito del s. xix, de los «Archives Communales» de Bayona.*


*Las chalupas en los barcos van plegadas una sobre otra a babor y estribor por fuera de la borda.*

*Cuando salen tras la ballena, el patron de la primera chalupa es el capitdn; de la segunda, el piloto; de la tercera, el maestre; de la cuarta, el contra maestre. Quedan dos de repuesto.*

*Son muy ligeras. Con el fondo plano y las extremidades en forma de arco. De 7,50 a 8,50 de largo; 1,70 de ancho.*

*Los toletes, de madera; los estrobos van tintados en grasa para que no hagan ruido al remar.*

*Cuando la chalupa estd quieta los remos quedan en alto.*



*En la cubierta de popa lleva la chalupa un cabrestante para pasar por el la cuerda del aparejo.*

*En la proa lleva en relieve una media luna, para que el arponero sujete en ella el pie izquierdo al lanzar el arpón. El pie derecho ird sobre el primer asiento de los remeros.*

*En la punta de la proa de la chalupa, donde termina la quilla, lleva un agujero recubierto por dentro de plomo, para pasar por el la cuerda del aparejo del arpon.*

Toletak egurrezkoak dira eta estroboak (arrauna toletari lotzeko) koipez igurtzitik daude, zaratarik atera ez dezaten.

Arraunak zutik eukitzen dituzte, txalupa geldu dagoanean. Orretarako, arraunen eldu-lekuak tosta-azpian dauden zuloetan sartzen dituzte.

Txalupak popan badu zapaia edo kubiarta, eta bere erdian zutik egur bat tente, kabraren (kabrestante) antzera. Brankaren kubiartan, berriz, illargi-erdi baten antzeko egurra, arpoilariak bere ezker-oiña bertan euzteko, indar egiteko, arpoia foota bear duanean. Aurreko txalupa-muturrean, killan egindako lau kuadroko zuloa, barrutik berunez (plomoz) borobilduta. Zulo ortatik pasa bear du estatxaren soka arpoiak baleari eldu dionean eta berunak biungarri egiten dio. Sokari, alegia.

Zertzuk eraman bear ditun txalupa bakoitzak berekin:

Urraidazko (kobrezko) konpasa itxasoari neurriak artzeko.

Ur gezaz betetako barrikatxoa, jariorik gabea.

Ura txalupatik ateratzeko tankarta.

Aulki txiki bat.

Kizki-makill edo gantxo bat.

Bandeta-masta eta oiala.

Txamarta edo aingura txalupa geldu-arazteko.

Bgurrezko lau-kuadroko egurra edo kaja utsa, metro-erdi zabal, sakon eta luze.

Bigarren barrika, ondo itxia eta bere barruan: farola, kandelak, txiskeroarria, txiskeroa eta ardagaia, pospoluak, ogi-gailletak eta, batzuetan, gaztaia ere feai.

Oietzaz gaiñera, beste arrantza-tresna auek:

Bost arpoi.

Iru xaboliñ.

Pala edo aizkora antzeko bat, kirten luzeakin.

Aizkora txikia eta aiztoa.

Ontzi batean oso kontuz bilduak, arrantzarako sokak: 116 m/m lodi eta 200 m. luzekoak. (XV'garren eunkian ikusten gen-

duzen estatxak 70 braza zituzten bakoitzak; auek, berriz, 200 metro).

Ikus oraiñ dokumentu orrek zer dion bale-arrantzari buruz.

Barkuaren masta-gaiñeko saskian dagoen mariñelak balea ikusten duanean, deia egiten du eskubitik edo ezkerretik dan. Orduan, bela-barkua jartzen da baleari begira, eta, aal badu, aizeak atzetik ematen diola.

Txalupa bakoitzak bear duan soka-saskia, estatxarena, atzetik -asita dauden lenengo eta bigarren tosta-artean lotzen da.

Soka orren muturra, korapillo baten bidez begia egin-da, popako krabatik (kabrestantetik) pasatzen da, kabran jira bat eman ondoren; andik, arraunen kanpo-aldetik, killa-muturrean dagoen zulora, eta zulutik feranka-zapaira. Brankan sei edo zazpi metro-soka utzi bilduta, gero arpoiari lotzeko.

Arpoi bat soka-muturrari lotu eta bigarren arpoia lenengo arpoiak duan bere sokari lotu. Xeetasun geiagoz argitu dezagun esan degun au. Arpoi bakoitzan badu bere soka bereizia. Arpoiak muturra du burnizkoa eta burni orretan lotzen da sokaren mutur bat. Ondoren, egurrezko kirtenean lotu berriro, arpoiak iñolaz ere iges aal ez dezan. Beste soka-muturrean, korapilloz, begi bat atera. Soka au arpoia bera baiño apurtxo bat luzago da. Soka onen eta estatxaren artean beste soka bat lotu bear da, metro batzuek luze. Soka onetan dijoa sartuta, begitik alegia, bigarren arpoia. Lenengo arpoia botatzean ez du bigarrera berekin batera eramango, lenengoa soka bigarrenen begitik aurrera egingo dualako. Bigarren arpoiak lenengoak uts egiten duanean bakarrik lan egiten du.

Estatxaren soka luzea beti txaluparen kanpotik dijoa.

Estatxaren soka ontzian bilduta dago. Andik popako krabara dijoa. An buelta bat eman, eta, arraunen kanpotik, proako zulora eta, andik proan bildu sei edo zazpi metro muturra arpoiari lotzeko, beste soka motzaren bitartez.


Lenengo arpoia txaluparen aurre-partean jarriko da: muturra egur-zati batean eta eldu-Iekua erditik, sarde baten antzera, irikitako tolete batea.

*Cada chalupa ha de estar equipada de un compds de cobre, un cacharro para achicar el agua, un taburete, un nidstil y una vela, un gancho, un ancla y una caja vacia de medio metro de lado en condiciones de flotacidn.*

*Ademds: una barrica de agua dulce y otra con lo siguiente: farol, candelas, mechero, yesca, cerillas, galletas y queso.*

*Llevar tambien: cinco arpones, tres sangraderas, una pala de boca afilada con mango muy largo, un hacha y un martillo. Y 200 metros de cuerda de 16 mm. colocados en un balde, en cuyo extremo se fija un arpon, y otro mds por medio de un ojo corredizo.*

*El aparejo va del balde al cabrestante de popa, y de ahí al agujero de proa, por fuera de los remos. Del agujero, a los pies del arponero. Los arpones que se han de usar van colocados entre un tolete y la proa. Los otros tres, tendidos a lo largo en los pies de los remeros.*



*Quando el vigia de la voz de alerta, el capitán sube al mástil y pone el barco en dirección a la ballena. Lo acerca hasta los dos kilómetros. Aquí se echan las chalupas al agua y comienza la persecución.*

*Al acercarse, la ballena se hunde y han de seguir su rastro por el movimiento del agua.*


*Quando emerge la ballena suena la hora del arponero. A una orden del patrón lanza su arma sobre la masa*


Bigarren arpoia ere lenengoarekin batera egongo da. Baiña, beste guztiak tosta-azpian, arraunkrien eser-leku azpian alegia; luzanga ipiñita, mutur zorrotzak sirazko eunekin eztaliak, erdoitu ez ditezen eta gizonek anketan miñ artu ez dezaten.

\* \* \*

Masta-gaiñeko zaindaria «balea ezkerretik edo eskufoitik» deadar egitean, kapitana igoko da mastan-gora zer bale-mota dan ikusteko eta nundik jokatu erabakitzeko. Eta, foatez ere, uraren emana nundik dan jakitzeko, ontzia balearen bidetik aldendu ez dediñ

Balearengana dijoa ontzia. Bi kilometro inguratzen diranean, orduan txalupak uretara bota, bear bezela jantziak eta itxasoari eutzi aal izateko neurriak artu ondoren.





Txalupak uretan dira eta badijoaz, belaz edo arraunez, balearen ingurura. Txalupa bale-ondora eldu danean, arpoilariak arpoia eskubian artu eta ezkerakin, bere bizkarretik, edo gibeletik, lema-zaiari kiñu egingo dio nundik txalupa eraman. Guztiak, ixilik. Toletak amukoz bilduak eta estrbboak koipez, otsik ez ateratzeko.

Baiona'ko dokumentuak ez du arpoilaria arraunean jartzen: zazpi gizon txalupan; oietatik bost arraunean, seigarrena lemazaia arraun luzeakin. Sei arraun besterik ez du aitatzen. Beste dokumentu zaarragoak ,ordea, arpoilaria ere arraunetan jartzen dute, eta baleari inguratzen diranean, orduan, arrauna utzi eta arpoiari eltzen dio. Alaz ere zazpi gizon: sei arraunean eta bat lema-zai (96).

*de carne. El segundo arpon sale^ disparado a continuacidn. Si fallaran los dos, la faena se dificulta en extremo.*

*Si alguno de los arpones se ha clavado, arrastra tras de si la ballena a la chalupa. Hay que largar cuerda frenada en el cabrestante, que se ha de mojar de continuo para que no se queme la cuerda por el calor. Si la cuerda no basta porque la ballena se ha hundido mds abajo, otra embarcacidn le prestard su aparejo.*

*Si tampoco bastara, entonces se ata la caja hueca al extremo y se arroja al mar. La caja lleva escrito el nombre de la embarcación.*

*Si las cosas se tuercen y no hay lugar para estas operaciones, se corta la cuerda con el hacha que se lleva para estos menesteres.*

*En la lucha entre ballena y chalupa, cuando se pueda, comienzan en función las sangraderas.*

*Corazón y pulmón son las zonas más vulnerables del cetáceo. Otras heridas difícilmente dominan al animal.*

*Cuando no se consigue el dominio de la ballena, se procede a esta operación: se mete una chalupa por detrás de la cola hasta el eje de esta. Una vez allí se le cortan las dos aletas de la cola con la pala afilada de largo mango que lleva cada chalupa.*

*Muerta la ballena, se la arrastra hasta el costado del barco.*

*La ballena que se encuentra en el mar herida o muerta se ha de re-partir.*

Leendik dauden marrazkietan, 'berriz, beti zortzi gizonez ornituak agertzen dira txalupak: arpoilaria aurrean, sei arraunlari, biñaka, erdian eta atzean patroia arraun aundiakin.

Bear bada, danetarik izango zan eta era askoetara jokatuko zuten.

\* \* \*

Txalupa gertutik ikusi duanean ur-azpira sartu da balea, ez bait da batere piatzen. Arpoilariak kiñu egin dio aizkenaren aurreko dagoen arraunlariari, aria arraun-azpitik joan dedin eta kanpotik, arraunerako enbazorik egingo ez duan moduan.

Arpoilariak antz eman bear dio foalea nundik nora dijoan, eta arako kiñuak egin bai lema-zaiari eta bai arraunlariari.

Balea urrera, aldamenera edo atzera joan dan garbi jakin ez. Eta, asmatu egin bear... Agertu da balea gure ondoan. Aal badegu, bere alboan jarriko gera, buru-partetik; buztan aldetik baiño obeago bait da.

Arpoilariaren ordua eldu da.

Txalupa-patroi edo maixuak, berari derizkion unean, ematen du ordena. Arpoilaria jeiki eta, aurrera begira, ezkerreko oiña illargi-erdi baten antzeko txokoan, foranka-zapaian, ezarriko du eta eskubikoa bere tosta-gaiñean. Arpoilariaren abildadearen eskuetan dago guztien etorkizuna eta irabaz-ibidea.

Arraunlariak bale-ondoraino astiro eta aaldan ixillena elduko dira. Bertara diranean, arraunari atzerako eragingo diote, txalupa gelditzeko. Gelditzen dan unean, txalupa-maixuak emango dio agindua arpoilariari. Onek eskuan duan arpoia (esku batekin edo birekin) bere indar gustiaz botako dio foaleari gaiñera. Baletik oso gertu foaleude, orduan bi eskuekin eldu eta arpoia sartuko dio, bota gabe, eta bere gorputza makil gaiñean etzanik, arpoiari jira-bira eragingo dio aragiari eldu dakion.

Bereala bigarren arpoia sartuko dio, lenengoa aragiari itsasita gelditzen bada ere, bi arpoiak alkarri lotuta daudelako. Botatzen ez bada, bigarren arpoi orrek okerrak egiñ lezazke, balea sokatik tiraka asten danean.

Bi arpoiak uts egingo baluteke, orduan foerriro asi bear da; lana, ordea, gaitzago eta zailago egingen da.

Bi bale agertzen badira, ama eta bale-kumea, au ill bear da lenengo; amak ez du alderik egingo umea utzita (97).

'V' 'Vc' 'A'

Bi arpoiek aragian sartu dira eta barruan gelditu. Baleak, alde egitean, txalupa darama bere ondoren, sokatik tiraka. Urpean murgildu da eta soka larga bear zaio. Larga ala, urarekin ondo buzti, erre ez dediñ, sokak krabatik pasa bear bait du (kraban eman diogu buelta bat) eta bizkor pasa ere.

Sokaren luzeroa baiño beerago ondoratzen bada balea, orduan, beste txalupa batek ematen dio soka geiago eta, orrela bi txalupak alkarri lotuta gelditzen dira.

Bi txalupen sokak naiko luzeak ez badira, lau-kuadroko kaja utsa lotzen zaio, egurrezkoa, metro-erdi zabal, luze eta sakon. Kaja uts onek resistentzia jartzen dio balearen iges-egiteari. Gaiñera, txaluparen izena darama; gero feale ori arrapatzen duenak, badaki zeinek sartu dion lenengo arpoia. Eta, batez ere, balea nekatzen danean, ur-azalera aterako da kaja; kajatik soka

bildu eta berriro balearen ondoren izango gera, balea illarte.

Gauzak oso oker jartzen diranean, eta kaja lotzerik ez bada, orduan aizkora txikiakin soka ebagi, txalupa ondoratu baiño leen...

Gaua sartzean, farola piztu bear ardagaiaren medioz.

Geienetan balea itxumustuka ibilli ondoren, gelditu eta buztana aztintzen du arpoia atera nairik, eta, ilda dagoela eman arren, askoetan eriotzetik jeiki eta korrika bizian abiatuko da: illaurreko indarrak egiten ari da...

Arpoia sartu ondoren lema-zaia eta arpoilaria tokiz aldatzen dira. Arpoilariak txalupa zuzendu eta patroiak sokari begiratu, aria edo jasotzeko. Bitartean, aal bada, txalupa balearen ondora erakarri. Gertura diranean, baleari buru-atzetik xaboliñak sartu-atera, biotza eta birikak dauden aldetik. Ori dortzen badegu, baleak odol-aundiak ixuriko ditu eta balearen azkena gertu izango degu. Ori lortzen ez badegu, berriz, odol-txikiak izango ditu baleak eta odol-txikiekin nekez iltzen da bale-aundia...

Odol-txikietan gabiltzanean, balea dominatzeko, beste operazio au egiñ bear: txalupa balearen atzetik inguratu eta buztanak dituan bi. egoen artean sartu. Gero, pala edo aizkora-zorrotz-antzeko tresna kirten luzedunakin, buztan-egoak ebagi baleari, aurrera joateko indarrak izan ez dezan. Lan orren arriskuak aundiak dirala zer-esanik ez dago.

Askoetan, balea urrutiratzen da itxaso-barruan, eta gaua datorrenean, edo txalupa oso urrutian dalako, aizkora txikiakin soka ebagitzen dute...

Itxasoan eskapatutako balea inork ilko balu, edo ilda topatu, iltzaille eta arkitzailen artean banatu bear dira irabaziak, iltzaillea agertzen bada eta bere arpoiak edo kaja ezagutu...

Bale-illari buztanetik lotuta lokarri bat jartzen diote, korapillo begidunakin. Isatza edo buztanaren egoen zabalak ez dio lokarriari irtetzen utziko.


Balea ill-ondoren barku nagusiaren ondora eraman

eta aldamenean lotu. Legorrera eraman eta an Lekeitio'n bertan egiten zutena egiñ.

Artarako labeak jasota zeuzkaten eta txabola bordarekin ere bai.

Gerora, indioekin artu-emanak gaiztotu ziran tokietan, «Sopite» jaunak (Zubieta, euskeraz), kapitana bera, barkuan bertan egiñ zitun labeak, barruan koipeak urtutzeko, eta garbitzeko tramankuluak ere bai.

Arrisku aundiko lana zan koipeak barruan urtutzea, suak artzen bait zitun ontziak errez (98).





## F

## KEZKAZ

Bat-batean galerna sortu da. Ontziak killaz-gora. Burruka luzea. Olatuak ikaragarriak: osiñ foeltza azpian, apar zuria gaiñean...

—Eldu mastari. Eutsi, txo.

—Bai, aita, eutsiko diot...

—Eldu...

Gora-foeera naasian. Indar egiñ bear mastari eltzeke. Egarria eta gosea. Auleria:

—Amak etxian sadtzan daukozan pipar-gorriak...

—Eutsi, mutill...

Olatuak jo du mutikoa arpegian. Eskuak nagi egurrari eldutzeko... Aitari foegira, begiak larri.

—Eutsi mutill...

—Eziñ, aita...

Aitak besoa luzatu dio; baiña, mutill gaztea, foere aurrean ondoratu zaio. Galdu da betiko.

Negar egiteko astirik ez aitak. Bizia du kin-kan. Larri dabil bera ere.

—Itxasoaren asarrea ez da izaten betirako->dio bere buruari, arnas billa. Eutsi, geurea da ta...

Aizea gelditu da. Ura baretzen dijoa. Pakea nabari fourrukaren ondoren...

\*k «

Iru egun masta gaiñean. Itxas-txoriak mokoka eta inguruan jira-ibira... Maite dute aragia.

—'Etorriko dira. Eutsi. Bixigutan etorriko dira eta ez naiz kalatik urrutian egongo... Bizi nai dut... Eutsi...! Eutsi...! Eutsi...!

## F

## INCJUIETUDES

*«Por vivir arriesgamos la vida», dice una de las oraciones de los balleneros. El peligro surge de improviso en el mar con el nombre de galerna. Las ha habido tristemente famosas como aquella del mes de agosto de 1912, que ocasiono centenares de victimas en los puertos cantábricos.*

*Durante mi niñez cbnoci en Lekeitio a uno de los supervivientes de aquella galerna, que se paso tres dias en el mar agarrado al mdstil de su pinaza o lanchon...*

*Pero la vida sigue su curso. Con galerna o sin galerna el pescador ha de acercarse a la mar, arriesgando la vida por la vida...*

*La vivienda del pescador no reunia muchas condiciones de confort y buscaba en la taberna, sidreria o chacoli la compensacidih a sus duras faenas del invierno...*

*En el jornal o partilla del pescador se ha incluido siempre parte de la pesca. Por el s. xvi en la época del besugo cada marinero llevaba seis para su casa. En 1920, uno. El mds gordo y hermoso; pero, uno.*

*Las tabernas disponían de fogones de carbón de madera sin mds salida de humos que la puerta misma de la taberna.*

*Humo, animación, algarabía, besugo asado, vino, sidra o chacoli... Ambiente marinero del invierno 1920.*

*En 1973 me decía un viejo pescador de Lekeiño para describirme la triste situación de los puertos pesqueros:*

—«Hoy no hay humo en las tabernas.»

*Se perdió el chacoli, porque se perdieron las viñas. Los barcos resultan demasiado caros para ir por besugo... y se perdió el besugo asado para el pescador en las tabernas. No hay humo, porque no hay besugo y porque los pescadores están ausentes, faenando en África.*

*A los viejos pescadores sólo les queda la nostalgia del pasado...*

*La guerrada de 1914 acaba de terminar. Los fletes en el mar andan por las nubes. Todo el que podía disponer de un viejo cascador capaz de flotar, se forraba...*

*En todas las riberas surgían barcos como setas en primavera lluviosa. Tenía yo siete años cuando asistí allí por los años 1919 en Zumaya a*

Egunez foero. Kizkali bear. Udarako eguzkia foeroa izan oida itxasoan aterperik ez danean...

Gauean, izarretan, ots... «Terrala» goiz aldetik: ots-otsa... Dar-dar... Ortz-ikara:

—Eutsi...! Eutsi...! Eutsi...!

Goiz aldea da. Begiak lauso:

—Oial zuriak ote...? Amesak ote...? Gerturatzten ari dira... Ikusi naute... Laister emen dira...

Begiak lausoago... Sorgiñ zuria parrez:

—«Ator, ator, mutill, etxera...»

Txominek eskua luzatu foezela, masta-gaiñeko gizona uretara erori da kordarik gabe.

—Txo, salta ariñ uretara, galduko zaigu bestela-ta...

Mutillak zanga txalupatik ur-azpira. Okozpetik eldu dio ur-azalera ateratzeko.

Aizeak arpegian eman dionean esnatu da Patri. Begietan, illuna; ezurretan, neke otza. Alperra, zaiñetan. Lo-gurea... Lo-alia... Looo...

—Iru egun egon da itxasoan...

—Kapusai bat atera eta jantzi.

—Bi, obe.

—Estutu eta igurtzi ondo.

—Berau bakarrik agertu da. Eta besteak...?

—Or, beeran. Sorgiñ-zuriaren erri-zurian... Dana da or-foeran zuri. Kale zuriak. Etxetxo zuriak. Baztar guztiak zuri. Elurra foezeiñ zuri. Lo-gela zuriak. Maitagarriak ere zuri, inguruan zaindari...

—Txo, ezeik amesik egiñ. Or-foeran, bixiguak eta itxas-aingirak, olagarruak eta kamarrak. Or-fearru orretan sartzen foazera, or geldituko zera, arraiñen karnatarako...

Baiña, ames egitea liforea da.

\* \* \*

Gure gertakizun auekin aurrera jarraitu baiño leen, gogoratu dezagun onera 1899'an Ondarrua'ko txalupa-aundi bateri gertatutakoa (99).

«Ondarru'ko 'Santa Clara' kofradiako 'Josefita' Txalopandiari Sota eta Llano'tar Erramon zanaren 'Goizeko Izarrak' egingako gaizkatze edo salbamendua...» Ikusi 70 orrialdean.

1912'an, udaren erdian sortutako galerna txar arrek gizon asko ondoratu zitun gure itxaso zabalean. Iru egun masta-gaiñean iraundako gizona neronek ezagutu nuan Lekeitio'n. Urte artan oker aundiak gertatu ziran. Baiña, gizonak bizid bear du eta aurrera jo bere foidean. Emen ez dago gelditzerik inolaz ere.

Okerraren ondoren berriro gizonak itxasora eta itxasotik legorrera...

Bixigutan dira.

—Laister etorriko dira— dio tabernako atso zaarrak. Izan ere mariñelak itxasoan diranean, onek kanposantua emoten dau. Ez zarata eta ez keerik. Ezer-foez. Eurak emen diranean, onek zerua emoten dau...

—Bai, bai, inperua be... Mariñela extian, mozkorrek galantak...

—Mozkorrek? Kantua eta keia. Gauza ederragorik, zer? Keetik atera oi da mariñelen kantua...

—Obe leukie oiek etxian egon, bere emazte eta seme-alabekin...

—Baiña, alabatxu, zer-edo-zer bear dabe: txakoliñ apurtxo bat, otzak pasata etortzen foait dira itxasotik...

—Bizkarra berotuko neuzkio nik egur bategaz... Txakoliñ apurtxo foat esan dozu...? Bakoitzak upel bana, foai... Obe litzake bixigu auek etxian jango balira...

—Zer nai dezu ba, umetxo... Zuk nai dozuna danok egiñ ezkerro, geuk nundik jan... Geure foizi-modua emen dago...

*la botadura de un velero blanco de tres palos: el «Nati».*

*Iba de la mano de mi padre como el fue de la del suyo a la botacion del «Manuela» en Olaveaga.*

*Dos años mds tarde, en marzo de 1921, aquel velero explotaba en el puerto de Mdlaga.*

*Acababa de llegar desde Canarias con cargamento de latas de gasolina y petroleo.*

*Murid el perro; pero se salvaron los hombres, aunque con múltiples quemaduras.*

*Despues de un tiempo en el hospital de Mdlaga, pudieron reanudar sus vidas en el mar...*

*Para mi padre Eustaquio alli terminaron aquel año sus andanzas en barcos de vela.*

*Aquella vida tenia sus encantos. En las horas de calma chicha, cuando las velas colgaban lacias por falta de viento, se dedicaban a la pesca. Pesca de roca; pesca de percebes en las rompientes...*

*Mi padre amaba los veleros. Mds tarde fue pescador de bacalaos en Terranova durante muchos años; pero, en su vejez añorar, añoraba sus tiempos de navegaciñ a vela... Sentado en la terraza de «El Casino» de Deva, sus prismáticos en la mano, se pasaba las tardes mirando al mar; —«Aquel barco va a Zumaya. Tiene que esperar tres horas a la marea...»*

—Jai, bai, gizon pestiok obe danak beuren  
etxian baleude...

—Bide orretatik ez dozu gixonik topako iñun,  
alabatxu...

—Nik ez dot bear onelako ganoragabeko gizonik,  
ama; naiago neuke errementari bat, mariñela  
baiño... Auek egunez itxasoan eta gauez  
tabernan...

—Mariñela ez bada, obe dozu zesterero aberats  
bat, errementeri baiño:

«Errementeri baiño  
oba da zesteru;  
errementeri baiño  
oba da zesteru;  
esku-bete paluaz  
kolko-bete diru.  
Ai, ai, ai  
kolko^bete diru...»

—Berriketarako gogua daukazu...?

—Zer nai dozu ba... Arpegi ori alaitu apur bat...

Ama-alabak barriketan ari diran artean,  
txalupak sartu dira portuan. Bakoitzak bere  
otzaran bixigu.ak daramazki etxerako. Ederrena  
Erramona-Trokua'ren tabernan jateko. Besteak  
kalerik-kale saltzeko:

—Bixigu aundi ederra...!

—Zenbatian... ?

—Bostian.

—Iruan nai badozu...?

—^Lau t'erdia.

—Lautik ez naiz pasako.

—Gutxi da.

—Asko da.

—Tori, ba... Ederra da. Begira bere bizkarrari...

—Baiña, karu da. Ez zerate zeurok gutxikin  
konformatzen errezak... Ainbeste arraiñ arrapatuz  
gero be...

Bixiguak etxean jatea izanen litzake gauzarik  
errezena; bixiguak ez diran beste gauza asko bear  
dira etxean eta... arrantzale-andteak kalerik-kale  
ibilli bear bixigu saltzen.

Gizonarena jakiña da: bixigurik ederrena, eta  
bakarra danean, bera, artu eta aldameneko  
tabernara, sagardotegira edo txakoliñera.  
Itxasoko otzak eta arriskuak pasa ondoren,  
orrelako atsedeen bat merezi ere bai.

Antero pozik dator gaur. Txamarra berri bat,  
urdiñ-illuna, egin dio bere emazteak. Jostuna  
da eta lekeitiar-txamorroreak egiten oso iaioa.

Bere lagun «Sinkera» bibote-dunak txamarrote  
berririk ez du; baiña, partilla ederra jaso-berri  
da eta pozik dator ura ere.

Ara nolako bikotea!

Biak aspaldiko lagun zaarrak.

Biak, bixigu bana eskuetan, Erramona'ren  
tabernara. An daukate zai Anton Soiñu ere.  
Txakolin baltzaren upelak txotxa du berria gaur;  
orregaitik dago tabernako ate-buruan erramu-adar  
bat.

Bale-koipearen argira, laiño-arteaz bezela daude,  
keaz eta bixigu-erre-usaiñez inguraturik.

Txakoliña, gorri. Santa Katalina bideko  
maaztietatik sortua:

Txakoliñ, txakoliñ,  
txakoliñak on egiñ,  
edaigun guztiok  
alakarrekina...  
Biotza pozez betetzen da  
txurrut bat arturik.  
Ez dago orlako  
edadirik...

Baiña, gaurko Antero'n txamarrote berriak eta  
Sinken partillak izan dute bere-biziko  
ondorena. Txurrut bat arturik biotza pozez  
betetzen da; baiña, ogeigarren basotik aurrera,  
mingaiña trabatzen asten da eta oiñak moteltzen...  
Geroago, begiak dir-dir eta aizkenean «tximiñoia»  
arrapatu.

Anton Soiñu'k bertsoak eta musika egokiak  
asmatzeko ez du askoren bear izaten eta gaur  
naikoak izan ditu. Asi zaigu kantari.

Anteron txamarrotia  
Sinken bifootia  
aretxek ei dauko,  
preso tximiñoia...

Ez zuan asko pentsatzen Anton Soiñu'k bere  
kanta onek zer gora-beera izango zituan urteetan  
zear...

Kaietako tabernak kearik gabe tristeak dira.  
1973'an, Arranegi-kaleko taberna batean onela  
esaten zidan Lekeitio'ko arrantzale batek,  
mariñelen egoera ona ez zala adierazteko:

—Gaur eguneko tabernetan kearik ez dago.

Ke-ezak «terrala» esan nai du: patrikera utsak,  
alegia. Bixigurik es lagun-arte onean jateko.

—Oraiñ, baporak egin dituzte aundiegiak, amalau  
eta amabost gizonekin barruan. Arraiñetan joan  
eta gas-oilla (errekiña, alegia) ordaintzeko  
aiña nekez eta osta-osta arrapatu. Ontzi oiekin  
bixiguetan joaterik pentsa ere ez. Arraiñ asko  
bear du baporak berak eta guretzako ezer-ez...

—Eta, nundik-nora jotzen dezute...?

—Aljeziras eta Afrika'ko Dakar'era juan bear  
atunetan...

—Bai-dio Joxepelixeneko Maria Luisa'k  
mostradore atzetik-aeuk palta diranian neguan  
emen ez dago ezer... Gixonik ez da iñor  
gelditzen...

Nere ume-aroan (1920'an) Lekeitio'n atunetako  
bela-traiñeru

zaarrak moilla-bazterretan zeuden jasoak. Aietako  
batek, ondo gogoratzen naiz oraindik, «Kalbario-  
-mendi» zuan izena. Ba ziran geiago ere.

Garai artakoak dira lenengoko «baporak». Ez  
aundiak. Erreztasun aundiak ekarri zituzten  
itxasoan joan-etorriak egiteko. Ikatzak zebiltzen.

Gerora bapor aiek Galizi aldean saldu zituzten,  
berriak eta aundiagoak erosteko. Gasoilla  
erretzen zuten. Aiekin ere poliki jarrai oi

zuten arrantzan. Baiña, beti aurrerapenari begira, aizken urte auetan (1960 tik aurrera edo) barkuak egin dira aundiagoak, eta aundiegiak gertatu dira emengo arrantzarako.

Berriro (1970'tik) ontzi txikietara goaz. Lekeitio dut begien aurrean.

Saldu dituzte eta saltzen ari dira aizken aldietako ontzi aundiak eta, oien orde, txikiagoak egiten asiak daude; lau edo bost gizonentzakoak. Bixigu, legatz, itxas-aingiraetan berriz ere ekintzeko, orain zortzireun edo milla urte bezelatsu.

Gauza guztiak izakibere neurri egokia: ez aundiegi, ez txikiegi, neurrikoa bear. Eta, ontzietako neurrietan neurri zaarretara goaz berriro konturatzeke. Neurriak berdiñ-antzekoak izan bait dira beti gizaldietan zear gure euskal-kostako kaietan...

Gaur tabernetan keerik ez dago...

Bixigurik ez dago...

Txakoliñ gorriarik ez dago... Lekeitio'ko Santa Katalina-bideko maazti ugariak galdu ziran...

Ordez, ardoa, kimika-ardoa, koka-kola... Mariñel zaarrak diaraute oraindik, itxasotik alde egindakoak, kontu eta gertakizun zaarren eutsigarri:

Arioplano bi pasau-ta  
bat itxasora yausi. (Bis)  
Ekarri, Seberiano'k ekarri,  
Seberiano'k ekarri,  
Seberiano'k barran  
pondo eman da itxi...

Europa'ko (1914) gerratea zan. Oraindik bela-barkuak nagusi zabiltzen Lekeitio eta inguruko kaietan. Gaurko zaarrak mutill gazte edo ume-koskor ziran gertakizun onen berri jaso genduanean.

Gaur Arranegi-ko tabernan bildurik daudenak bela-garaia dute gogoan eta auetan:

—Akordatzen zara beiñ Kikon'en (100) ikusi genduanana...?

—Bai, txo. Geure «zaarrak» (patroiari gaztea izan da ere, zaarra esan oi zitzaion barruan) Xabala'ren (101) sagardotegian apustua egiñ zuten: baietz kantzontzillo utsetan Kikon'eko zumardi edo paseo ederrean agertu... Gaez, jakiña.

—Bai, gizona. Kantzontzilloak luzeak ziran eta kolorezko raia-dunak.

—Lau gizon aundi, guztiak patroiak, banku batean eseri ziran lasai. Aurretik pasatzen ziranak, begiratu lauко arreri eta parreari ematen zioten...

—Eta, nere aita an al zegoan? Galdetu nion.

—Eustakio, patroiz izan arren, mutil gaztea zan oraindik; baiña, egun artan lotsa edo sentzu geiago agertu zuan besteek baiño... Ikusi ditu poliziko batek eta asi da txistuka, bere laguneri deika... Ango anka-jokua eta ariñ-aringia porturaino...! Korrikalariak aurretik eta polizikoak atzetik... Laister gorde ziran bakoitza bere ontzian... Bigaramonian aien parriak Xabala'ren sagardotegian...!

«Sosua, biregarrua,  
kamisera, kamisera  
makarro goxua...»

Makarro gozuak Zabaleta'renean egiten ziran, Arranegi kalean, «areaplano bi pasauta, bat itxasora yausi» zanean, Lekeitio'n. Makarroiakin batera egiten zituzten txokolateak ere: kakao, gozokia eta errota txiki bat mai bateren gaiñean. Errota arriak, iru edo lau, bata bestearen ondoren, ardatz baten inguruan jiraka. Ebagitako kono baten itxura zeukaten errota-arriak, kanpo-aldeetik lodiago, barrutik baiño. Jira ta bita kakao eta gozokia zapaltzen... Zapaldu eta zapaldu, txokolatea egiñ arte.

—Anes, txokolatia egin berri dau Zabaleta'k. Ekarrri bi ontza.

—Usaiña entzun dozu ala... ?

—Bai, txotxo. Ariñ...

—Amama, zergaitik ez dezu libra bat ekartzen, ni egunero bueltaka ibilli gabe... ? Ekin nion nik protesta naiean.

—Txotxo, biar egingo dau barria eta orduan ekarrriko dozu biarkua...

Nere protesta guztiak alperrikakoak ziran. Egunero bi ontza foear zitun bere arratsaldeko txokolatetxoa egiteko. Eta egunero, eguneroko txokolate berria artu bear... Kafea bezela. Ura ere, egunerokoa.

Aldameneko kantoian Sebero egon oi zan, bere atari aurrean, danboliñari eragiten. Kale guztiko

leioetatik kafe-usaiña zabaltzen zan etxe-  
-barruetaraiño.

—Ekartzu laurden erdi bat kafe ere.

Kakao eta kafea, beste gauza askoren artean, itxas-aundiaren beste aldetik ekartzen oi zituzten. Bale-koipe eta bakaillau-arrantzaren garaitik. Orduko arrantza aiek gastatu ziran; orduko zenbait oitura zaarrek diraute oraindio.

\* \* \*

—Iturriaga'k beiñ batean prantzez bapor bi ekartzen preso, bata bakaillauaz eta bestea urrez beteta...

—«Bapora» ez da esaten. Oraintsungo tresna dozu bapora; barkua esaten da...

—Barkua...? Dio irugarren atsuak. Esaizu itxas-ontziya.

—Laga eztabaida ganorabako ori aldamenera, eta aurrera egizu Iturriaga'ren kontu orrekin. Nere amama Pillipa'k.

—Kontua...? Istorixia da eta ez kontua... Neuk neure aitaitari entzunda daukat eta istorixia da... Gertatutakoa... Neu be Iturriaga'ren odolekua naiz...

«Lau atso,  
iru mutxurdiñ,  
bat alarguna  
jarririk itzalean...

Itzala ordu orretan nere amamaren denda xaar txikia da. Lau atsoak kaiñapattarra edaten, kontu-kontari. Unero eztabaida. Edozergaitik:

—Segixu Iturriaga'ren istoriak. Nere amamak berriro.

—Ba, Iturriaga'k (Lekitarra zan Iturriaga) bi itxas-ontzi zekarren preso arturik eta agertu zaio aurean bapor inglesa...

—Ez dala bapora esaten...

—Zaude ixilik eta laga andriari berba egiten.

—Ba, ingles barkuakin burrukan asi zanean, burnizko bonba borobillak...

—Ez da bonba esaten; bonbarda, baiño

—Leona Morron, ixilik agon, naibon-Piilipa'k..

—Ba, Iturriaga'k burnizko bolaen ordez, badakizue zer sartu eban kañoian...

—Bai, badakigu, eun bidar entzunda daukagu... Eta zuk, Pillipa, ekatzu beste kopako bat...

—Ez dizut amango... Lenago be naikua pattar edanda zaude-ta...

—Burni-foolaren ordez zillarrezko ogeierrelekoak sartzen asi zan...

—Ogeierrelekua ez da esaten; ogorlekoa, baiño...

—Ogeierrelekoak, ogorlekoak edo duroak, guztiak dira bat, sekulako txikiziñoa egiñ eben ingles-barkuko kubiarta gaiñean...

—«Egia bazan, sartu dedilla kalabazan».

—Egia da. Neure aittitta zaarrari entzunda daukat txiki-txikitan...

—Nor zan txiki-txiki, zeu ala aittitta...?

Beste bi atsoak ao-zabalka algaraz, errementa bear. Batek bi ortz orixkak erakusten ao-zapaian.

Besteak, iru. Nere amamaren ezpaitetako biboteak dar-dar barrearen-barreagaz...

\*e    \*ic

Europa'ko burruka mortala amaitzera zijoan, edo. Pleitak aundiak itxasoan eta Euskal-erriko ibai-erriberetan, euriaren ondoren udarako perretxikoak bezela, bela-barku «pleiteroak» sortzen ziran edonun (102).

Zumaia'k ere badu ibaiean erribera.

Donosti'rako zubi aunditik errirako bidean, etxe bakar foat zegoan: karibiñeroan etxea, gaurko egunez guardia-zibillen kuartela.

1918'tik 1919'ra izango zala uste dut. Nik sei edo zazpi urte besterik ez nitun, Zumaia'ra eldu nintzan egunean. Karabiñero-etxe-atzeko erriberan iru mastako barkua agertzen zan. Zuria, beladuna.

Eder-ederra.

Zuri-zuria.

«Nati» zuan izena eta bazuan motor-laguntzaille bat ere, portuetatik irten eta sartzeko. Botadura egiteko margodun ikurriñez apaindu zuten beetik-gooraiño...

Garai aietan Deba'ko Urasandi baserriaren ondoan ere sortu zan bela-barku aundi ederra, «Ego» izenekoa. Deba'n bezela erribera guztietan. Egaka ibiltzeko aalmena izan bagendun egun aietan, Euskalerrietako ibai-ertzak bela-barku ederrez estali ikusiko genduzten.

Gure kaiak ilda zeuden aspaldi; baiña, gerrate artan naikoa diru irabazi zuten.



—Gustatzen zazu, txotxo? Galdetu zidan amama Pillipa'k.

—Bai, amama. Eder-ederra da. Bertan joango gera...?

—Bai, umetxu.

—Eta, nora...?

—Baiona'ra. Zure aita ere joaten zan bere aitarekin «Fortuna» eta «Manuela» barkuetan...

Ontzi zurk marea-puntan bota zuten uretara. Botatze orretatik etorriko da nunbait, erderazko «botadura» ere.

An gelditu da ibai-erdkn kilin-kaknka, zuri-zuri, tente-tente.

Ontzi ariñ, panpoixa.

Emaztekoa zirudiñ uraren erdian, arro eta apaiñ.

Liraiñ.

Botadura orren ondoren, urdailleko-krria datorkit gogoan burura eta itzal-unea...

\* \* \*

Bi edo iru urte pasako ziran arrezkeroz. Aldi ortan Barakaldo'tik Lazkano'ra aldatu giñan. Lazkano'ko pelotalekuan nengoan, atzeko muturrean, pelota zaar bateri kolpeka.

—Anes, amak etxera joateko.

—Zer, ba...?

—Aitari okerra gertatu zaiola.

—Nun...?

—Malaga'n.

Ama joan zitzaigun Malaga'ra. Egun aietako izparringiak irakurri izan ditut gero. Etxean askotan aitatu ere.

Aita zetorren barkura errian konsinatarioa ikusi ondoren. Moillan barruko mariñel bat erriruntz:

—Kapitana, gasolin-usaiña dago aundia barruan...

—Zer pasa da ba...?

—Gasoliñ-potoren bat zulatuko zan bodegan...

Poxpolorik pizterik ez da konbeniko. Izan ere, kargea dakargu ederra...!

Kanarias'tik eldu dira Malaga'ko portura. Bodegetan petrolioa eta gasoliña ontzietan ...

—Gaur poxpolorik ez biztuteko aginduko dot.

Sartu da kapitana barrura. Illunabarra da. Barruko mariñel-gelan lau gizonezko kontu-kontari, illunpe goxoan.

Kapitanak dei eskotillatik:

—Txo, gaur illunpetan egon bearke dogu. Arriskua dago eta poxpolo...

P.ummm!!!

Kapitanaren abotza entzutean, Peru'k eldu dio pospolo-kajari eta piztu du bat.

Pummm!!!

Ondoren gertatu ziranak Jainkoak daki.

Dunbatakoa Malaga osoan entzun da.

Sua kaiean.

Eleiz-dorre guztietako kanpaiak dili-dalanka.  
Bonberuak. Karabiñeruak. Jendetza... Istillua  
eta iskanbilla.

\* \* \*

Barkua erdibitu da.

«Txiki» arratoi-txakurra aidean dijoa eta  
moilla-erdian leertu-da. Txo-mutillak ere,  
Zumaia'koa, Txuriren biajea eraman du aidean;  
baiña, suerte obearekin, uretara erori bait da.  
Ur-azalean sua egon arren, murgilka eskeillara-  
-mailletara eldu da bizirik...

Kapitanak aize-kolpearekin korda eta sentzua galdu  
du. Miñaren-miñez, orraitio, suak esna-arazi du.

Eskerrak barku-zatia moillaren kontra gelditu  
dala. Irten du ontzitik moillara. Gizona  
dator beregana korrika... Begietan laiñoa...

Esnatu danean Malaga'ko hospitalean dago,  
oge zuri batean, esku-besoak lotuta zuriz. Beste  
lagunak aldamenetako ogeetan.

—<sup>^</sup>Danok al gera bizitzarako...?

—Txiki ill da. —Dio mutillak, negar-malkoak  
begietan...

Berak, gizarajoak, begiak bakarrik ditu agerian,  
beste gorputzeko zatirik geienak oial zuriz  
estalita ditu, zapietan bilduta.

Eskerrak. Txakur txikia ezik, beste guztiak bizirik  
atera dira inpernu artatik.

Erreta daude; baiña, bizirik eta bizitzarako,  
oker aundirik gabe izateko.

Illebeteak pasa zituzten bertan.

Eustaquio kapitanarentzat urte artan amaitu ziran  
bela-barkuko egun eder aiek. Bizitz arrek bazitun  
bere akatsak; baiña, bizitz trankilla zan. Zenbat  
aldiz, Deba'ko barra-aurrean (eta, nun ez?)  
kabretan ekin zioten. Bai Miarriz (Biarriz)  
aitzeetan lanpernetan ere... Ai, lanperna aien  
gozoa...! Urteak, asko, pasata gero ere, Deba'ko  
«El Casino» etxetik itxasora begira, larogei urte  
bizkarrean:

—Aizak, esaiok Fulanori utzi deiala bere itxas-  
-ontzia...

—Zertarako, baiña...?

—Miarriz'era joateko...

—<sup>^</sup>Miarriz'en zer egiñ bear dezu...?

—Lanpernak billatu.

—Baiña, aita, orduko lanperna edo pertzebak  
gastatu ziran Miarriz'en.

—Nik billatuko nituzte, oraindik ere...

Bela<sup>^</sup>barkuak zitun maite eta aiekin bere amesak.  
Bela-ontzietako bere garaiak, gazte-denbora izaki  
beretzat, garai ederrak eta bizi-modu lasaia.  
Aizearen mende; baiña, lasai. Kabratxo eta  
lanperna-egunak ere bai. Itxas-fruitu oberik ez da.  
Artean, ibaiak eta itxasoa garbi zeuden. Arraiña  
ugari uretan eta itxas-ertzetako aitzak biziak estali  
zeuden. Bizi aien artean, lanpernak ere bai. Ugari  
eta eder. Lanperna-zaletasuna berekin eraman  
zuan beste mundura...

Baporeko itxas-ontzietan ibilli-ta gero, Terranoba'  
'ra bidean asi zan. Bakaillautan zebillela sortu  
zan mundu guziko aizken guda zitala. Gerra

izanagaitik tartean, Terranoba'ra ibilli ziran urte bete osoan. Bigarren urtean, ordea, andik ez agertzeko eman zieten Kanada'tik ordena. Eta Kanarias aldera joan bear izan zuten arrantzara.

Bakaillauraren ordezt, korbina.

Egun gorriak ziran aiek eta korbinari ere errez sartzen zion ortza jendeak.

—Korfeina bakarrik arrapatzen al zenduten Kanarias'en aita?...

—Ez, motell. Langosta edo abakando ederrik erortze zan sare'barruan...

—Suertean ziñeten; garai aietan ez zuan edozeiñek abakandoz asetzeko suerterik izaten...

—Abakandoen ordezt lanpernak izan balira...

—Lanpernik, ez?

—Bai. Sahara'ko partean nai-aiña daude. Bertara, ordea, iru egun...

—Joaten al ziñan?

—Noiz-edo-noiz, bai. Gerturago egon balitz...

Txalupa uretara bota eta an joaten ziran aitzeetara. Sakukara pertzeba ekartzen zidaten mariñelak. Orain bertan ere, alogera, gabe, barkuaren zuzendaritza artuko nuke, noiz-beinka lanpernetan joateagaitik...

Bela-garaiko kutizi aiek itsatsita jarraitzen dute kapitan zaarraren barne-muiñetan. Zaartzaroan ere, biotza itxasoan, oiñak legorrean baditu ere.

Itxasoa ames.

Bela^barkuak ames.

Aizea oial zurietan putzaka ames.

Kabratxoak ames.

Lanpernak ames...

—Ontzi ura Zumaia'ra dijoa. Oraindik beste iru orduetan ez du marearik...


Antiojo luzeak begien aurrean, egun guztia itxasoari begira... Mariñelentzat bere sorginkeria badu itxasoak.

\* \* \*

Iturriaga'tik antxiñako arrantza-barkuetara pasa da dendako atsoen itz-jarioa.

—Beiñ batean Joan de Espilla etorri omen zan Lekeitio'ko kaiera...

Utzi ditzagun gure atsoak bere artan eta goazen Joan de Espilla'ri buruz Historiak zer esaten digun entzutera.



Orio. Foto Antton Elizegi.

## JOAN DE ESPILLA, KAPITANA

Joan de Espilla debarra zan jaiotzez. Bere garaiko Bataio-Liburua, Deba'n, «Espilla» abizenez beteta dago. Bere izenik ez, Lifourua 1550'an asten dalako eta bera, Joan, 1564'an kapitan zebillen.

Urte orretan Gonzalo de Landaverde bilbotar nagusiakin tratoan dafoill; Terranoba'ko bideak ditu trato orrek.

Geienetan ontziaren nagusia eta kapitana, biak persona bakar bat izan oi zan. Baiña, ez beti. Kaso auetan bakarrik idazten ziran eskribuz kontratoak, kapitana alde batetik eta nagusia bestetik. Tripulazioakin zituzten artu-emanak itzezkoak ziran. Utsik. Orregaitik ez dira gureraiño eldu, eskribuz ez zeudelako.

Baiña, gure arazo onetan Espilla zan kapitana eta Landaverde nagusia. Artu-emanak paperetan idatzi zituzten (103).

Bilbao'ko astilleruetan egin zuten ontzia eta «San Nicolas» zuan izena. Toneladak, 435. Bale-ontzia. 75 giza-seme barruan.

Galeoia zan: iru mastakoa eta iru mastak zituzten gurutzetik eta lau kuadroko oialak gurutzetatik zintzilik.

## JOAN DE ESPILLA

*Joan de Espilla, capitán, había nacido en Deva. En el año 1564 mandaba el galeón «San Nicolás», que hacía los viajes a Terranova en busca de ballenas.*

*El señor Landaverde de Bilbao era el dueño y el armador del barco, que desplazaba 435 toneladas y llevaba 75 hombres de dotación.*

*Salid de Portugalete con 30 tripulantes, de los que eligio el armador los siguientes: maestre y contra-maestre, carpintero y calafate, un marinero y un guardián.*

*El resto hasta 75 los eligid el capitán.*

*Para completar la tripulación salio de Portugalete rumbo a Guetaria. Desde aquí, a Terranova.*

*El galeon, de tres palos y cruces en los tres, iba armado de 18 cañones, arcabuces, ballestas y numerosas armas cortas de acero.*


*Llevaba de repuesto velas y jarcias, cuerdas y maromas; y chalupas bien equipadas. Además de pez, estopa y grasa de animal para calafatear el barco a la ida y a la vuelta de Terranova.*

*Arpones y sangraderas y demás instrumentos para fundir la grasa; elementos para construir los hornos... Carne, cecina, tocino, alubias, ha-*

Sei kañoi aundi eta amabi txiki: emezortzi. Bederatzi alde bakoitzetik. Arkabuzak (bi kintal polborakin), amabi ballesta (bakoitza bi dozena azkon edo fletxakin), eta eunka bestelako bur-nizko armak.

Jende asko barruan: 75 gizaseme.

Ontzia bere mende Portugalete'n artu zuan Espillak, ogeita amar lagun barruan zitula. Nagusiak aukeratu zitunak sei ziran: maixua, kontramaixua, arotza, kalafatea, mariñel bat eta zaindari bat. Orra danetar, sei. Beste guztiak berak, Espilla'k, aukeratu zitun. Lekeitio eta Deba'tik aukeratu zitun gizonak, batzuek beintzat.



GUETARIA

Beste berrogeta lau gizaseme geiago bear zitun, Portuga-lete'tik atera zitunak foaiño. Eta Getaria'ra etorri zan bear zitu-  
tuanak osatzeko.

Getaria'tik atera zan urte artan Terranoba'rako.

Tratoa zeukan nagusiarekin: nagusiarentzat lautatik bat.  
1.194 koipe-foarrika ekarri zitun biaje artan...

Baiña, utzi ditzagun oiek gerorako.

Terranoba'ra joan-etorria egiteko gauza asko ziran foarezkoak: masta, aingura, bela, soka era-guztikoak, txalupak foakoitza bere tresna guztiekin, amoko edo istupa, pikea ontzia istupatzeko (kalafatearen lana) eta abar.

Ontzia istupatu bear zan azpitik, aldamenetatik eta gaiñetik Terranoba'ra irten baiño leen. Gero, andik onerakoan, beste orrenbeste egin bear zan: ontzia (istupatu) amoko eta pikearekin, berriro. Oiek eramatekoak ziran, an ez bait zegoan ezer, arraiña besterik. Amoko eta pikearekin batera, lan oien osagarrirako, animalien koipe-kintal bat ere eramán bear zan.

Arrantzarako tresnak, zer esanik ez: txalupetatik asi eta arpoi, xafooliñ, estatxa eta abar... Ugari.

Baita ere labeak egiteko bear ziran gaiak. Eta labeetan koipeak urtutzeko bearrezko ziran aizkora, aisto, tiña, barrika eta abar. Egur-ikatsa labeak pizteko.

Janak eta edariak: ogia, aragia, sesiña, urdaia, babak, gailletak... Ardo, sagardo eta pattar...

Gaiñera arrantzale bakoitzak bota luzeak eramán oi zitun, larruzko jantziekin batera, arrantza toki otzetan egiteko aukurakoak.

«San Nikolas» Getaria'tik irten duanean, Doniane Loitzun'en (St. Jean-de-Luz) «Saint-Esprit» izeneko ontzia dabill Terranoba'ra bidean. 140 tonelada ditu (San Nikolas iru aldiz

*bas, galletas... Vino, sidra, chacoli L. y coñac o pattarra.*

*Cada pescador llevaba por su cuenta ropa de lana y cuero adecuada para las faenas de pesca en aquellas latitudes. Además de algunos alimentos como jamón, queso y bebidas espirituosas.*

*El barco fue construido y armado en Bilbao que era el puerto más importante para estos menesteres... En enero de 1564 el capitán Espilla anda buscando tripulación y vituallas, mientras el armador Landaverde busca dinero a crédito,*

*Había quienes lo prestaban al 25 y al 30 % de interés a cuenta del barco y de su carga.* L-- "j^

*Los contratos entre capitán y dueño-armador se hacían por escrito. Así se conserva un documento que nos da esta información.*

*Los contratos entre capitán y tripulación eran de palabra. Falta esta clase de documento.*

*Existe sin embargo un documento de esta especie en el «Archivo de Protocolos» de Marquina, data de 1585, en que se contrata para un*

*barco frances seis lekeitianos: tres arponeros y tres ayudantes...*

*De los peces, de las grasas y de lo que se encuentre en el mar, una tercera parte, como es costumbre entre los que van a Terranova; aparte las ventajas de cada uno...*

*Una profesion de tanto riesgo necesitaba de un seguro. Los ingleses aseguraban sus barcos despues de 1604.*

*Desde 1567 al 1569 Juan Lopez de Soto, en Burgos, ofrece sus seguros ia los capitanes vascos, entre los que encontramos a nuestro capitdn Juan de Espilla.*

*Tenia Soto sus intermediarios en San Sebastidn, Bilbao, San Juan de Luz y Bayona...*

*| Armado, avituallado y asegurado el  
| barco sale Espilla desde Guetaria  
| para Terranova en el mes de marzo.  
I Volverd para octubre haciendo una  
( tinica campaña. Mds tarde, despues  
de 1927, los bacaladeros de la P.Y.S.-  
B.E. saldrdn en febrero y volverdn  
para diciembre, haciendo dos cam-  
pañas.*

*En invierno los hielos impiden toda actividad alld arriba...*

aundiagoa da) eta ona zer gauza eramaten zitun barruan: 40 giza-seme, 20 tonelada ardo, tonelada bat polbora, 120 gaileta-kintal, 10 urdai-kintal, bi kintal t'erdi olio, 22 binagre-barrika, 120 libra kandela, barrika bat baba, eta beste bi barrika beste ale eta bi-tuallakin...

20 kañoi zitun, bi dozena pika aundiak eta bi dozena t'erdi pika txikiak...

Garai artan Bordeaux'en egiten ziran kondizio berean beste ontzien kargamentuak ere (104).

1770'an, Baiona'ko barkuak, berreun toneladara iristen ez ziran ontziak, Marinako Agintariak ziotenez, ona zer gauza eraman oi zituzten barruan:

230 galleta-kintal,  
60 sagardo-barrika,  
12 ardo-barrika,  
12 babafcarrika,

bakaillaua sikua sardiña zaarrekin (105).

Oietzaz gaiñera arrantzale bakoitzak pattarra, urdai-azpiko, gaztaia eta abar araman oi zituzten, jantziak gordetzeko zeukaten kutxatilletan.

1681'an lau ontzien berriak dakizkigu. Ontziak auek ziran: San Pedro, N.<sup>a</sup> S.<sup>a</sup> de Aranzazu, N.<sup>a</sup> S.<sup>a</sup> de Begoña eta San Juan.

Gizon bakoitzeko eraman zituztenak: bi sagardo-barrika t'erdi.

Lau gizonentzako, txakoliñ-barrika bat, (jai-egunetarako izango zan) (106).

Gaiñera auek beste tokitik ere eraman omen zuten edatekoa. Zer ote zan? Ardo? Pattarra? Urik ez zuten aitatuکو iñundik ere, bodegetan koipetarako zeramazten barrika guziak ur gezaz beterik zeuden, gero Terranoba'n koipea botatzeko garaian jariorik izan ez zezaten.



Terranoba'ra bakaillautan dijoaztenak onela jantzi oi dira:

Lenengo ta bat, iztarretaraiño bota luzeak.

Gaiñeko jantzi luzea botak baiño beerago, ardi-larruz egiña, bere illekin; larru-aldetik olio ondo igurtzia, urik pasa ez dediñ barrura. Onen gaiñetik beste larruzko soiñeko bat, gerritik beeraiño bota, uraren kontrako. Burua estaltzeko txapela, eskapulario antzeko txatakkin, lepotik bernetaraiño bota... (107).

Ango izotz artean ibiltzeko egokiak ziran. Bear bada, bale-arrantzarako ariño bota izango ziran; baiña, ariño izan-da ere, berogarriak eta uraren kontrakoak bear zuten, nai-ta-ni-ez.

\* \* \*

«San Nikoks» barkua Bilbao'n armatu zuten. Bii bota zan lekuri garrantzitzuenabarkugintzarako, bertan zeuden burni-olak geien. Astilleroak ere bai, ugari.

Orreraz gaiñera beste arrazoi bat ere badago eta auxe da: 1511'tik asi eta XVII'garren eunkiraiño bota, Ipar-Ameriketakin euskaldunek egiten zituzten artu-eman guztiak Bilbao'ko «Casa de Contratacion» deritzan alkartearen bitartez egiñ oi ziran (108).

Ez da ba arritzekoa San Nikoks galeoia Bilbao'n egiña izatea. Donostia'k eta Pasaia'k ere bazuten bere importanzia: bi auetatik Pasai zan geiago, berez portua duekko oso ederra eta segurua. Bale-koipe geienak Donosti'rako eta Bilbo'rako izan oi ziran. Baiña beti izan da Bilbao geiago, Donostia baiño (109).

Ifaraldeko euskaldunak, geienetan, La Rochelle eta Bordel (Bordeaux) errietara zuten joera. Arrantzarako tresna guztiak, sokak, kañoiak, gatza eta janariak erostera ara joan oi ziran.

Ontzi asko zebillen itxasoan gure San Nikolas'en antzera Doniane Loitzun, Ziburu, Bayona eta Kap-Bretonetik irtetzen zutenak. Negua itxasorako bear diran gauzak antoktzen, igaro oi zituzten bai kapitanak eta bai ontzi-nagusiak ere. Prantzia'n itxasora irtetzeko, agintarien baimena bear zan. Agiri bat. Bestela, paperik ez zunak, ori itxaslapur-bezela jotzen zuten, agintari oiek-eurak. Alaz ere, euskaldunek ez zuten itxasora irtetzeko paperik jasotzen. Agiririk gabe irten oi zuten Doniane eta Baiona'tik. Ez zuten paperetan sinismenik. Agiri oiek agiria ematen zutena aberasteko, foesterik ez omen zuten balio (110).

Gure Espilla kapitana Bilbo'tik dabill ilfoeltzean, ontzia antolatzen eta jende-billa. Nagusia, berriz, diru-eskean. Barku aundia zan; jendetza aundia barruan, eta oiek danak, eskabidea dakarte aundia.

Baziran dkua korrituan ematen zutenak.

Eta paperetan idatzita izen asko daude. Batzuen berri emango degu emen.

Coleccion Vargas-Ponce (L. V. n.º 38) deritzan dokumentuetan bada liburuxka bat. Domingo de Hoa eta foere emazte Mariana de Rober eta Salinas, diru-prestatzaillena zan liburuxka eta bertan idatzi zituzten foeren artu-emanen xeetasunak. Diru-aurreratzeak Otsaillaren 13'tik

Apirillaren 3'artekoak dira. Urtea, berriz, 1632. Korrituak eunetik 26, 28 eta 30 dira. Eta dokumentu oiek Juan de Aramburu edo Santiago de Telleria jaunen aurrean izenpetuta daude.

Ona zerrenda:

100 dukat Pierresfort de Araneder nagusiari eta, erantzukizuna artzen duan bere kapitan Araznabar jaunari, «Le Marie» Saint-Jean-de-Luz'eko barkuaren gaiñean.

100 dukat «Notre Dame» Doniane'ko barkuaren gaiñean (esan degun Pierrefort jaunari eta bere kapitan Miquelon Hirigoyen'eri).

200: kapitana Araznabar; nagusia, Matin Sanz de Aguirre, barkua «Le Jeane», Doniane Loitzun'goa.

200: kapitana Araznabar, maixu Pernatum de Aguirre, nagusia Miquelon de Hirigoyen. Barkua «Saint Pierre».

100: Justin de Larragoien... 200: Maria de Arrivillaga, nausia... 100: Justin de Larragoien...

200: Justin de Larragoyen... 200: Juanescot Elzardui... 100: Justin de Echevarria...

100: Justin de Arreche... 200: Juanes de Araneder Putil... 100: Joanes de Araneder Putil...

150: Antonio de Iturribelzaga... (111).

26 urte berandugoko beste dokumentu batek, 1658'an, Julio Domingo de Echevarri'k aurreratu zitun diruen kontua dakar: (112)

500 dukat zillarrezkoak, Martin Berrotaran'eri «El Espiritu Santo» ontziaren gaiñean: korritua % 25. Terranoba'rako.

500 dukat Berrotaran'eri, «San Martin» ontziaren gaiñean: % 25.

400 dukat, berdiñ, «San Martin» ontziaren gaiñean.

400 dukat berriro, beste ontzi baten gaiñean. Ez du ontziaren izenik esaten.

500 dukat Julio Egunkizari.

300, Francisco Orendaiñ'eri.

600, Nikolas Ayalderi, ontzi batengaitik.

400, berari berriro, beste ontzi batengaitik.

200 eta 400 Bernardo de Aguirre'ri, bi ontzien gaiñean.

500, Domingo Ardanza'ri... 500, Santos de Telleria'ri... 500, Bildosola, txikiari...

iv \*v

Itxas-ontziak neurri askotakoak izan oi ziran. Aundixamarrak ere bai.

1578'an Doniane Loitzun'etik 50'tik 80'ra aiña ontzi irten oi zuten Terranoba'ra. 3.000 gizaseme inguru. 50 gizon ontziko, bataz-beste (113).

Spitzberg arkitu ondoren 80 barku atera ziran leku aietara Doniane'tik (114). 1643'an Donostia eta Pasaia'tik 20 ontzi, 2.000 mariñelekin.

Aietatik zenbait ontzi 600 toneladakoak. Barku auetatik bat baiño geiago itxas-lapurak ziran ziur-ziur. Edo bestela berriz, 20 Donostia'tik eta beste 20 Pasaia'tik bear zuten ainbeste jende eramateko. 2.000 mariñel barkuetan 100 mariñel barkuko dira. Ogei barkuak bear zuten oso aundiak izan; barku normal batek 50 gizaseme,

eramaten bait zitun. Bi milla mariñel berrogei barkuetan (eta ez ogei ontzietan) 50 gizon ontziko dira. Neurri ona. Berrogei ez badira, ogei baizik, orduan auetatik batzuek lapurretarako izango ziran. Lapurretarako ontzi txikiak ere berreun gizaseme eraman oi zitun da. Pasaia'ko paper zaar batek dionez ontzi bakoitzeko 50'tik 70'ra gizon eraman oi zituzten bakoitzak (115).

y.

Joan de Espilla kapitanaren garaian itxasgizon asko zebillen Terranoba'rako bidean. Donostia, Pasaia eta Deba'ko kapitanen izenak dakarzki ainbeste alditan aitaturako Coleccion Vargas-Ponce dalakoak (Legajo I, n.º 18). Urteak 1550-1555.

Ona izenak: Martin Cardel, Domingo de Albistur, Pablo de Aramburu, Francisco de Ularreta, Marin Saez de Echave, Domingo de Mendaro, Miguel de Iturain, Juannes de Lizarra, Juanot de Villaviciosa, Juan de Erauso, Juan de Lizarza, Miguel de Egusquiza, Martin Ruiz de Echave, Perez de Hoa, Domingo de Gorocica, Martin de Zaldivia, Cristobal Arias, Juan de Ansorregui, Martin de Ochoa de Irazabal, Martin Dabile de Aguitre (116).

'w 'i'

Badago Markiña'n (Bizkaia) «Archivo de Protocolos de Marquina» (Registro de Escrituras del Escribano de Lequeitio Martin de Iturarte) deritzan lekuan, 1583'an egindako dokumentu bat. Iturarte jaunaren aurrean egiña dago Abenduaren 19'an, eta Jean de Susiondo ziburutarrak izenpetua. «Catherine de Saint Vincent» izeneko ontziaren nagusia zan Susiondo.

Bale eta bakaillautarako barkua. Bederatzi gizonekin egin du tratoa: iru txalupa-maixu, iru arpoilari eta beste iru •aurrekoen laguntzaille. Txalupa bakoitzean iru lekeitiar: maixu, arpoilari eta laguntzaille. Terranoba'rako ziran. Ontzia Pasaia'ko portuan zegoan. Lekeitiarrak auek ziran, bere izena dokumentu-pean ipiñi zutenak: Micolao de Arrasate, Aparicio de Irelegui, Pedro de Goicoa, Juan Iñiguez de Meabe, Miguel de Alzaa, Domingo de Irelegui, Myn. de Hormaegui, Juan Lopes del Puerto, P.º de Loniquiz, eta Sancho de Hormaegui...

Ziburutarrak eraman bear zitun Pasaia'raiño. Ontzia bear zuen arrantza-tresnaz eta beste pertretxoz ondo ornitua egon. Arraiña eta koipeak saldu bear ziran era onenean eta probetxu geiena atera zezakean tokian eta an bertan eman bear zitzairen beuren eskubideak; arraiñetatik eta koipeetatik eta beste gauzaetatik, baita bidean arkituetatik ere, irutik bat Terranoba'rako bideetan dabiltzaten ontzietan oitura dan bezela. Ondoren datozte bakoitzari zor zaizkion abantaillak edo sariak. Ona dokumentuan bertan datozten bezela:

«primeramente a cada maese pinacero mareaje y medio de pesca de trece ducados en dineros si no traxieren en el dicho viaje sus varriles, o carretes de grasa segun eostumbre, e si traxieren la dicha grasa les aya de dar a cada diez ducados, y a cada tercero marinero que llaman axete a cada mareaje y medio de pescado y quatro ducados en dineros y al paje que dicho

Nicolao llabare se le de la soldada que los demas pajes de la dicha nao llefoaren.»

Gero foakoitzari dirua aurreratzen die abantailla eta sarien kontura:

«Primeramente Ju.º Iniguez de Meabe recibio seys escudos en horo... Domingo de Iralegui trece ducados de a once rreales castelknos el ducado... Aparicio de Iralegui, seys ducados... Ju.º Lopes del Puerto dos ducados... P.º de Loniquiz dos ducados... P.º de Goicoa tres ducados... Sancho de Hormaegui... quatro ducados... Miguel de Alzaa Urquiza recibio ocho escudos en horo.»

Ondoren eskatzen diote ontzi-nagusiari iru txalupa-maixuek txalupa bana knetako egokia eta ondo ornitua. Gañera barkuan bearko ditu eraman bear aña mariñel eta mutillak, oietako ibillaldietan oitura dan bezela.

Bere aldetik, berriz, mariñek beartzen dira kapitanaren esanetara egotera beti itxas-gizon zintzoak bezela. Kapitanak bearko ditu ondo mantendu bere menpeko gizonak. Auek berriz, beuren buru eta ontzia defenditzeko, arma egokiak bearko dituzte eraman. Testigu bezek agertzen dira: Domingo de Alzaa, Min. de Ybieta eta Ju.º Iniguez de Mendiola Alsurra...

«y el dicho Juº de Suciondo e Aparicio de Iralegui firman de sus nombres y por los demas que no sabian escriibio el dicho Myn. de Ybieta.» (117).

\* \* \*

Baiña, ainbeste arrisku zuan ekintza batek, bearko zitun segurantzkk nola-edo-ala.

Eta bazitun.

Artean inglesak ez zuten barkuen segurantzirik egiten 1604'ren urterarte. Euskaldunek aurrea artu zien ingleseri berrogetamar urte gutxienez. Tresna, ontzi, bakaillau, koipe, gizasemeak, orra oro seguroean jarriak Burgos'ko Juan Lopez de Soto'ren bitartez. Bera zan segurantziak ematen zituna (118). 1567'tik 1569'ra gizon onek egin zitun seguroen berri Burgos'ko Konsuladoan daude. Bi urte oietan makiña bat izen euskaldunik agertzen da. An daude Deba'tik Juan de Espilk, Domingo de Sorazu, Miguel Zerain; Itziar'tik Pedro Otxoa de Arriola; Mutriku'tik Esteban Lete eta Domingo Gantxegi; Elgoibar'tik Andres de Alzola eta Joanes Bolibar; Azpeitia'tik Juan de Otxoa; Azkoitia'tik Martin Perez Idiakez eta Domingo Lopez Irazarra; Oñati'tik Juan Igarza; Oiartzun'dik Migel Isasa; Pasaia'tik Domingo de Villaviciosa eta Ramon de Arrieta; Errenderi'tik Juan Zubieta; Donostia'tik Migel de Erauso eta abar...

Bitartekoak ere bazitun Soto jaunak Donostia'n bezek Bilbao'n ere, Baiona'n eta Doniane Loitzun'en. Ifar-aldeko euskaldunak La Rochel eta Bordel'era ere joan oi ziran beuren barkuen segurantziak egitera.

\* \* \*

Joan de Espilk, gure kapitanak, negua pasa zuan ontzia antolatzen eta mariñelak biltzen. Baita

segurantzia ere egiña zeukan eta negua amaitzearekin batera, irten zuten, beste guztiak bezela, Terranoba'rako bidera. Bale-arrantzarako. Beste batzuek, bakaillautan. Bietarakoak ere baziran tartean.

Emendik ara illabete bear zuten itxasoan. Martzoan irten eta apirillaren aizkenerako Terranoba'ko lurraldeetan. Maiatzak arrantzan arrapa oi zitun geienetan eta geienak.

Irten aurretik, portuan biltzen ziran Jainkoaren onespena artzeko; apaiz foatek ontzi batean Meza eman ondoren. Sardan joan oi ziran, bidean sakabanatzen baziran ere...

Terranoba'ko arrantza otsaillean asi oi zan eta PYSBE'ko ontziak ere ala-moduz egiten zuten oraintsu arte. Baiña, euskaldunak maiteago zuten arrantza geldirik egiñ, batetik bestera ibilli gabe. Eta arrantza orretarako aukeratuta zeuzkaten tokiak, Otsaillean oraindik izozpean zeuden eta maiatzerako garbitzen ziran.

Toki oietan, Terranoba'ko sartaldean eta Labrador partean, garagarilletik asten da bakaillau-arrantza

eta St. Laurent ibaiaren aoan agostuaren asieran asten dira baleak batetik bestera ibiltzen Bitartean geldi daude toki aietan. Agorraren asierako euskaldunek prest egon oi ziran etxera itzultzeko.

Martzoan etxetik irten eta Urrillean (Otubrean) etxera eldu.


Urrilletik Martzora?

Etxetik baleak arrapatu, ala gertatu ezker. Edo bestelako arrantzara jo. Aurretik, ordea, mariñelak badu zer-egiñik. Dirua irabazi du «Indietan» ugari eta aiek gasta arteko egon-eziña...! Irabazi guztiak ondatu arteko zalaparta eta istillua...!

Burrukak eta iskanbillak gauero (119).

Oituak zenden itxaso zabaletik ibiltzen, burrukan izaki osoarekin, etsaiekin konpetentzian eta, errira eltzean, pratikera beroakin, erri osoa eurena zala uste...

Udarako diruak neguak jan. Udaberrian beartuak zeuden berriro Indietako bideak artzera.



Orio. Construcción de naves. Hoy como ayer.  
Orañi bosteun urte bezela.




Foto Antton Elizegi.




Foto Antton Elizegi.



H

## MARIÑERU - BILLA

—Dandan...

—Zeiñ da...?

—Emen bizi al da kapitaria...?

—Bai... Zer nai?

—Berarekin itz egiñ.

—Aita, emen mutill bat daukazu zure zai.

—Zer nai...? Eustakio kapitanak mutill gazteari.

—Ba, nik bakaillautan joan nai nuke...

—Nungoa zera?

—Nafa'rrokoa. Lizarrausti-inguruko baserri batekoa. Muga-  
tik bertan... Emen Ataun ondokoa...

—Eta, nundik eta nora jakin dezu mariñel billa gafoil-  
tzala... ?

—Ba, «Eskalu» ataundarrak esan zidan. Laguna dut... Eta,  
bide batez, amak eman dizkit auek zuentzako... Gauza gutxi dala,  
baiña... Mendiko zerriekin egiñak dira lukaikak...

Ori esatearekin batera lukaika-sorta bat erakutsi digu, pa-  
per batean bilduta.

—Ez zenduan ezer ekarri bearrik. Alaz ere, estimatzen di-  
zut ekarria. Anes, bete akiok oneri eskafoiderako dauden ageri  
oietako foat.

PYSBE'k artarako zeuzkan agiri bat foete nion:

Izen-abizenak, urteak, gurasoak, erria, zuzenbidea... Beste  
gafoe footako zitzaiola abisoa noizko eta nola prestatu beariko zan:  
jantziak, oiñetakoak (gomazko bota luzeak iztarreraiño) eta abar...

H

## BUSCANDO MARINEROS

*De vez en cuando aparecen en los  
roles de los barcos que andaban a  
la ballena y el bacalao en Terranova,  
hombres del interior...*

*Cuando P.Y.S.B.E., en 1927, inicia de  
nuevo la pesca del bacalao olvidada  
hacia 200 años, se enrolan cantiddS  
de aldeanos del interior de Gui-  
puzcoa.*

*En nuestra casa de Lazkano sonaba  
la puerta constantemente, en busca  
de un puesto para Terranova. La  
mayoria eran agricultores de los ca-  
serios circunvecinos...*

*Venian a ganarse unas pesetas du-  
rante unos pocos años, para retirar-  
se despues; pero algunos terminaron  
sus vidas de marinos-pescadores.  
La comida y bebida la daba el bar-  
co; los dias de puerto eran uno cada  
mes... Se podia ahorrar algun di-  
nero.*

*Y ahorraban los aldeanos. Rara vez  
los que eran pescadores de nacimien-  
to...*

*No sldo viajaban aldeanos del Goyeri guipuzcoano en aquel primer barco de la P.Y.S.B.E., los habia tambien gallegos.*

*Oficiales y maquinistas erah marinos de la costa, en su mayoria.*


*Como contrapunto a la labor de Joan de Espilla buscando marineros, hemos evocado aqui aquel primer enrolamiento de hace medio siglo en la P.Y.S.B.E. para la pesca del bacalao en Terranova.*

«Eskalu» ataundarra zan. San Gregorio-baillarakoa uste dut. Ez naiz bere izenakin gogoratzen, beti «Eskalu» esaten bait genion. «Eskalutarrak» esagunak ziran Ordizia'tik Ataun'era bitarteko bideetan... Bai, orixe.

Zergaitik jarri zieten «Eskalu» goitizena...?

Mingaiñ gaiztoek ziotenez —garbi jakiñ ez, ordea,— «Eskalutarrak» ardandegia omen zuten, eta, tabernakin gertu, erreka. Errekan, eskaluak. (Tortillan jateko ain goxoak diran arraiñ txikitxo oiek).

Beñ batean, Biona'ko Prontzio'ri ardoa serbitzean eskalua agertu zan igari basoan.



Entre hielos,  
Izotzetan artuak.

—Esaten diot nik oneri-senarrak emazteagaitik-ura bota bear bazaio ardoari iturritik botatzeko eta ez errekatik...

Arrezkero «eskalu» izan zuten gaitz-izen.

Ortik eta onera, orra nun «Eskalu» bat gertatu zan bakaillautan Terranoba'n. Arraiñ txikiak, aundia jan, alegia.

Olaberria'tik bi gizonek eman zuten bere izena. Bat zan oso aundia; bi metro bai luze eta metro bat zabal. Begi-bista eskasa zeukan eta «Antiojus» esaten genion. Gatz-emallea zan barkuan eta saladore guztien buru izan zan beti ill arte.

Berarekin batera, beste gazte bat, txikiagoa eta txirindulari ibillia. Atlantiko-erdian, aruntz zijoztela ilenengo aldiz, nere aitak oso mareaturik zijoan zikliztari:

—Aizak, itxaso zabal au kamiñoa balitz eta emen bizikleta bat euki... Zer?

—Gaiñean jarri eta Olaberria'raiño gelditu gabe...

Baiña, bereala oitutzen ziran eta bear-bezelako itxas-gizon jatorrak biurtzen ziran Goierriko baserritar auek.

\* \* \*

Garai artan etengabeko ate-jokak izaten genduzen gure etxean. Kapitanenean, alegia. Aietako asko, lenengo nafarra bezela, esku-erakutsiekin etorri oi ziran lan-eske.

Bat gogoratzen zait bereiziki. Melar xamarra. Beasain'go baserri bateko semea zala uste dut.

—Zer nai...?

—Terranoba'ra bakaillautan.

—Bizi-modu eskasa dok ura, mutill. Oba dok baserrian gelditu.

—Zer dauka ba txarrik bakaillau-arrantzak... ?

—Izotz-artean, babesik gabeko kubiarta gaiñean lan egin bear dala... Bla, bla, bla... (Kapitanak melar-antzeko mutillari).

—Zu joaten zera ba!

Aitak ez zitun engaiñatu nai. Bizi gogorra zanez, eta ala zan izan ere, gogortasun oien berri ematen zien zeatz-meatz, argi eta garbi.

Beasain'go baserritar oneri, batez ere, gizon argalaren itxura zuelako, xeetasun guztiekin eman zion bere lanaren zailtasunaren berri. Mutillak uzte kapitana bera bildurtu naien zebillela. Bera bildurtu, Murumendi'ko baserritar gaztea...! Ezta amar milla Terranoba'k ere.

—Zuk egiten dezuna, zaarragoa izanik, nik ere egingo dut bai...

Bien lana berdiña zala uste gizarajo arrek.

Joan zan itxasora eta an ikasi. zuan kapitanaren lana eta berea ez zirala berdiñak. Kapitana an zegoan gaiñean, puentean, toki itxian eta kalefazio ederrez, bera berriz, beeran, kubiarta-gaiñean, trintxadore bezela. Izotz-artean, babesik gabe, kapitanak aurretik esan zion fozela. Arraiñ izoztuari eskuakin eldu bearrean...

Eskerrak kapitanak kafe beroa eta pattarra naikoa ematen ziela...

Bizia latza; baiña, fiñ jokatu ezkeroz, diru apur bat esku-artean izateko bide egokia zan.

Geienak baserritarrak ziran, Goierritik joan ziranak eta urte batzuek itxasoan egiñ ondoren, etxeratu egiten ziran. Banaka batzuek, ill arte, itxasorako gertatu ziran.

Basetritarrak diruaren balioa obeto esagutzen dute arrantzaie utsak foaiño, eta Terranoba'n irabazitako dirueri ondo begiratzen bazekiten aiek. Itxasoko jan-edanak barkuaren kontura ziran danak. Nai aiña. Kafea eta pattarra ere bai. Ugari. Nai zuten aiña, otzaren aurkaren eutsigarri.

Jateko, zer? Egozkariak, aragia eta arraiña. Baserritar geienak gizenduta etorri oi ziran etxera.

Asieran, txerri-kumeak ere eramaten zituzten bizirik, an arraiñakin gizentzeko. Bereala gizentzen ziran; baiña, okeleak arraiñ-kutsua... Laister utzi zioten eramateari.

Txerri oiegatik edo, jatorriz mariñela zan lekeitiar batek, Terranoba'tik etxera onela idatzi zuan:

—Aqui estamos comiendo patas de cuto y carne de mono... (120).

Nere amama Pillipa'ren asarrea!

—Zorritzto oiek; sekudan berorik jangabeko zorritzto oiek, ori esan...!!!

Bai ba, zorioneko karta ori eskutik eskura zebillen Lekeitio guztian eta Pillipa'ren seme Eustakio izan barkuaren kapitana...

Arrantzale-kumeak baserritarrak baiño errezago gastatzen zuan Terranoba'ko dirua. Askoetan, Pasaia'tik errira dagoen tartean, galtzen zituzten dirurik geienak. Baziran orrelakoak ere.

Diruari pasea ematen oraingo arrantzale-kumeak lengoen semeak dira: aien lepotik auek ere burua. Bale eta bakaillu-arrantzan irabazitako partilla ederrak su-ta-ke erretzen zituzten neguan... Aitak bezela semeek ere.

Kukua jotzen asterako, bizi-modu latza izan arren, Terranoba'n ziran berrirO arrantzan.

..

PYSBE'ko ohtzietan ez ziran euskaldunak bakarrik; naasian bazeuden gallegoak ere. Bere taddetxoa bazuten eta, sarritan, burrukak sortzen ziran taldeen artean.

Denborarekin PYSBE'ko barkuak ugaldtu ziran eta bakaillau-zaleak ere bai barkuekin batera.

Joan de Espilla kapitana arrantzale-billa dabillen artean, guk emen oraiñ berrogei urteko mariñel-billatzea ekarri degu (geuk geurez esagutu deguna), ez bait ziran orduko gauzak oraingoetatik oso alderantzi gertatuko.

Emen esandakoak istori-zeatzak dira. Neroni naiz testigu eta lekuko.

## I

## OIAL ZURIAK AIZEETAN

«San Nicolas» galeoia prest dago Getaria'ko kaian, itxasora egiteko.

Joan de Espilla ibilli da Getaria'tik Zarautz era, eta Zumaia'tik Itziar'era gizon-billa. Aukeratu ditu falta ziran berrogetabostak.

Arpoilariak, batez ere.

Dozenerdi bat gutxienez bear zitun eta alik eta onenak topatu bear.

Bazeuden famatuak Getaria, Zarautz, Orio, Zumaia eta Deba inguruan. Bai Mutriku'n ere.

Arraunetan edozeiñek zekian. Arraunlaria billatzea erreza zan. Argiña ere bearrezkoa, labeak egiteko. Errementari bat ere bai. Balea ebagitzeko gizonak, koipeak urtutzeko eta abar.

Langille^mota askoren bear.

Jan-edanak barruan dira. Usutibil'go sagardoa eta Getaria'ko txakoliña bart sartu dituzte barrura.

Gaur, Martzoak amabost, kapitanak ordena:

## I

## LAS VELAS AL VIENTO

*El galeon «San Nicolds» está listo para zarpar desde Guetaria. Espilla ha buscado con afán buenos arponeros.*

*Patrones para las cuatro chalupas ya los trajo de Bilbao: capitán, piloto, maestro y contramaestre...*

*Busca sobre todo buenos arponeros. Pertrechos, alimentos y bebidas, tripulación... todo está a bordo.*

*A mediados de marzo, con viento de sureste, Espilla da la orden de salida. Seis chalupas tiran del galeon para sacarlo a la mar. Allí se despliegan las velas al viento...*

*Adids. Hasta el otoño. Van bien armados porque el corso acecha a causa de la guerra entre Francia y España.*

*En pocos días pasan por cabo Finis-*

*terre en Galicia. Mds adelante, el  
alta-mar...*

*Despues de un mes de navegacidn, a  
mediados de abril llegan a Terra-  
i nova.*

*Se dirigen a Miningo, la Isla-de-los-  
Vascos. Dos kildmetros de largo por  
setecientos metros de ancho; fdcil de  
defender y buena para trabajar en  
ella.*

K Colocaron en una de sus calas un  
 \ mdstil con el nombre y la fecha de  
 l \ llegada del barco. Con pinos jdvenes  
 \ j j montan un embarcadero y levantan  
 NL/ una tejavana y una chabola con su  
 D almacen.

√ Desde sus primeras Uegadas al Golfo  
 \del San Lorenzo los vascos estable-  
 \cen relaciones amistosas con todos  
 Jlos indios de aquellas tierras. Rela-  
 ( ciones de comercio y de trabajo. In-  
 \tercambian pieles de castor por ins-  
 \trumental de acero, por sidra y por  
 galletas. Ofrecianles trabajo tempo-  
 \ral remunerado; pero no buscaban  
 colonizarlos.

*Los vascos se presentaban en la pri-  
mavera y se iban para el otoño... El  
San Nicolds a su llegada organizd  
una gran feria...*

*Sdlo faltaba comenzar la gran pesca.*

—Arria txikotak!

Erri osoa «San Nicolas» eri agur egiten. Guraso, emazte, seme-alaba, lagunak... Guztiak or daude, moillatik agurka.

—Talupak uretara!

Sei gizon txalupa bakoitzean ,arraunak eskuetan. Bost txalupak, ogeitamar gizon arraunean. Eldu diote sokaz ontziari eta itxas-zafolera dijoaz arraunean. Txalupak jaso eta oial zuriak mastan gora zabalik. Gaur sur-esteko aizeak jotzen du, oialak bete. Egaka bezela asi da galeoi zaarra...

Badijoa aurrera itxasoaren erregea...

San-Anton muturretik egiten diote azken-agurra.

—Agur. Udazkenerarte. Jauna dezazutela lagun...

Urte batzuek aurrerago burruka gogorak asita zeuden nazioen artean eta ondoren bezela, baita nazioarteko arrantzaleetan ere.

Frantzia eta Espaiña'k alkarren arteko burruka zeukaten. Espaiña'ko Erregeak «Real Cedula» bat foota zion Gipuzkoa'ri arazo oneri buruzkoa. Garagarrillaren 3 koa: bale-ontziak alkarrekin joan bear zutela eta itxasoko armadaren ardurapean. Gipuzkoa'ko Billera'k onela erantzun zion Erregeari:

Naiz eta 200.000 dukat gastatuak izan, naiago zutela joateari etsi eta utsi, gerra-itxuran joatea baiño. Ala, Antonio de Abadia bialdu zuten Erregearengana, artutako erabakia desegiteko eskatuaz...

Bakarrik foadijoaz ere ondo armatuak bait-dijoaz. Sei kañoi aundi ditu gure galeoiak. Eta amabi txikiagoak. Arkabuz, bai Uesta eta bestelako arma-klase guztiak...

Alkarri lapurretan egiten diote itxas-gizonek.

1555'an, Urrillean, udazkenean, Terranoba'tik barkuak itzultzeko illean, Donostia'n Junta Generalak dira. Martin Cardel, donostiar kapitana berriak ematen ari da Erriko agintarieri. Gipuzkoar kapitanen arten 42 ontzi prantzez arapa dituzte Terranoba'n, bakaillauz beteak eta bere artilleri osoakin.

Juan de Erauso, Juanes de Lizarza, Miguel de Iturain eta Pablo Aranburu'k amabi ontzi prantsez arrapatu zituzten Terranoba'n bakaillauz beteak.

Aranburu kapitan donostiarra zan eta ontziaren nagusia. 400 toneladako ontzibatean 300 gizaseme zeramazkin... Arrantzarako naikoak ziran berrogeitamar. Beste guztiak zertarako, lapurretarako ez bada...?

Bi urte baranduago, 1557'ko apirillean, Erregeak beste agindu au eman zuan: ez zedilla iñor Terranoba'ko biderik artu bere baimenik gabe. Gipuzkoa osoa protesta bizian jarri zan. Berriro agindua, ontziak taldeka joateko eta gerra-barkuakin.

Bi agindu oien aurka jeiki zan Gipuzkoa: naiago zutela bakoitza bere kontura joan eta bear ziran arriskuak jaso, guztiak moltsoan eta sardan joatea baiño.

Protesta auek erakarri zuten Erregea asierako esanetara: joan zedilla bakoitza al zuan eran, armakin edo arma gabe.

Aurrerago eta gauzak gaiztoago. 1587'an Felipe H'nak agindu berria: ondo armatuta joan bear zala Terranoba'ra, La Rochelle eta

Inglaterra'ko barku asko lapurretan egiteko asmoa zutelako (121).

Gure «San Nicolas» ondo armatuta abiatu da Terranoba'ra.

Aizea popatik eta laister ikusi zuten Santoña. Ondoren, Santander. Egun gutxi barru utzi zuten atzean Galizia'ko Finisterre •aizken-muturra.

Andik aurrera, itxaso-uts-borobilla... Ura alde guztietatik.

Oker aundirik ez zuten bidean izan. Legorreko mariñelen mareoa ez bada; beste guztia, ondo zijoan.

Etsairik gabe eta eguraldi onarekin, apirillaren erdirako eldu ziran A|(kadia eta Terranoba arteko pasadizora. Nora dijoaz?

«Euskaldunen islara»: Mikingo'ra.

Esana daukagu Mikingo (bertakoek ala esan oi zioten) ugarte txiki bat dala: bi kilometro duze eta zazpireun metro zabal. Barku aundi bat bezelatsu.

Defenditzeh ez zan gaitza eta Espillak eta bere beste kapitan lagunek bertan arkitzen zuten lanerako egoitza eta babesJekua. Iru labe zeuden bertan gutxienez eta iru labeek lan asko egin lezakete... Bertan biltzen ziranak alkarren lagun ziran eta alkar defenditzeko prest zeudenak.

Iru labe zeudela esan degu, irurak Kanada'ko Gobernuak arkitu ditulako. Bear bada, egongo ziran geiago ere... Geroak galtzen ditu gauzak...

Arazo onetan gauza bat dago garbi ikusten dana eta auxe da: isla artan euskaldunak lan egiten zutela. Eta, eurak bakarrik lan egiñ ere. Ortik datorkio ugarteari bere izena: Ile-aux-Basques = Euskaldunen ugarte.

\* \* \*

Millaka euskaldun zebillen inguru aietan, kai eta ondartzatza gordeak ugari bait zeuden nun-nai.

Barku batek kai bat aukeratzen duanean, bere lenengo lana izaten da, bertan enbor luze bat jasotzea, barkuaren izenakin eta etorri diran egunakin. Besterik ez da an sartuko, gerratean ez bada.

Ondoren, txabola luze bat egiñ bakaillaua eta koipeak maneatzeko. Eta, gizonentzako aterpea. Egurrezkoak. Bertako zurakin egiñak.

Piñata edo piñu mee-luzeekiñ egurrezko moillan antzeko bat jaso, legorretik txalupara eta txalupatik legorrera ibiltzeko, ibaietan egiten dituztenen antzera.

Beñ ara ezkeroz, bertako jendeakin artu-emanetan jartzen dira. Oitura ori asiera-asierakoa euskaldunen artean. Bertakoak arriaroko garaian bizi ziran oraindik eta Europa'tik eramaten zituzten tresna eta lanabesak, oso aurrerapen aundia zan aientzako. Gauza guztiak, baiña, batez ere, burni-tresnak. Indioek maite zituzten euskaldunek eramaten zieten aizkora, aisto eta abar. Oien truke eurak narruak ekartzen zituzten,

kastor-narruak; ugari bait zituzten beuren lurraldeetan.

Labrador deritzan peninsulako eskimalekin ez ziran aiñ ondo konpontzen. Asarre ere ibilli oi ziran. Azken aldian oso asarre ere bai.

Bestelako indio-mota guztiekin oso artu-eman onak izan zituzten beti. Beste batzuek joaten ziran ara, euskaldunak ez ziranak; baiña, indioekin tratoan besteak ez zuten abantaila zuten euskaldunek. Ona zer: lenengo ara agertutakoan artean euskaldunak zirala. Euskaldunek ez zirala ara kolonizatzerara joan... Artu-emanetan ibilli. ziran beti adiskide eta euskeraz ere erakutsi zieten zenbait esaera (122).

Beste nazioetako arrantzalekin zituzten burruketan, beti indioek euskaldunen alde joka oi zuten, laguntza emanaz... Pake garaietan, berriz, euskaldunekin lan egiten zuten...

\* -k \*

Indioek arrantzaleen zai daude. Neguan eizean ekin dute, kastor-narruak arrapatzen. Udaberria eldu da eta barkuen zai daude aspalditik.

«San Nicolas» ontziaren oial zuriak ikustean, Mikingo aurrean dauden kai eta ondartzetan agertu dira txalupeen zai. Aizkorak, aistoak, zulakaitzak, azagaiak eta tresnak ugari; beste aldetik berriz, ardoa eta sagardoa galletekin eta ogi zuria, gogorra foadara ere...

Azoka ondartzan antolatu dute. Kastor-narrurik ederrenak indioen eskuetan. Laister izango dira guztiak «San Nicolas»en foodegetan.



Bazuan narru arazo onek bere garrantzia urte aietan, askoetan aitatu ez bada ere gure kondairan. Esana daukagu, Labrador'eko eskimalak ez badira, beste indioek artu-eman paketsuak izan zituzten euskaldunekin. Auek Terranoba'ra arrantzara eta tratura bakarrik joaten ziran; ez lurralde aiek menperatzera. Udaberrian agertu; udazkenean joan. Bitartean, indioentzako aberastasun aundiak ziran tresnak eta gauzak ekarri. Indioentzako pozgarria zan euskaldunen etorrera eta, besoak zabalik, artzen zituzten beregan.

Urtero etorri; urteko joan. Pake santuan. Narru-tratoa ugaritu zanean, ontzi batzuek narrutan foakarrik joaten asi ziran. Bai konpetentzia sortu ere.

\* \* . \*

Arazo onek beste bi itz merezi ditula usten dut. 1606'an burrukak ziran euskaldun eta prantsez merkatarien artean. Auek, urte artan, atzeratu egiñ zuten beuren etorrera et Nouvelle Ecosse'ko indioek neguan bildutako 6.000 kastor-narru euskaldunek erosi zituzten denak. Prantsezak bere Erregearengana jo zuten protesta bizian. Idazten zioten, euskaldunek erosi zituztela narru guztiak aizkora, aisto, ispillu, sagardo eta artopillen truke...

Tadousac (indioz Thadayoz) Saguenay ibaiaren ertzean dago eta emen biltzen ziran euskaldunak Andre Thevet eta Gharle Voix aitek diotenez.

Echafaud-aux-Basques baiño gerturago dago. Izen au jarri zioten bertara euskaldunak joaten ziralako urrutian egon arren. Au esaten duena Aita Paul «Le Jeune» da, 1632'an. 1961'an leku orretan euskaldunen labe-erreusak arkitu dituzte (123).


1623'an Champlain esploradoreak Toudasec'en irurogei toneladako ontzia (txikia) ikusi zuan «sei edo zazpireun eskuduen merka-gaiak barruan zitula». Narru-merkataritzan zebillen ontzia.

Merkatu orretan euskaldunek izan zituzten etsairik gogorrenak La Rochelle, Bretaiña eta Normandia izan ziran. Baita, foeste prantsez batzuek ere, oiek ez zirenak eta narru-merkataritzan asi ziranak.

Merkatu onek izan zuan bere aldaketa izugarria, an bertakoen gertakizunetik sortu izan zana. Irokitar indioak itxas-baztarrean bizi ziran paketsu eta lekuari itsatsita. Baiña, Algozkin eta Montañar beste indioekin burrukan asi ziranean, beuren lurretik footeak izan ziran barru-aldera. Ordez itxas-ertzean gelditu ziranak, ez zuten bizi-leku jakiñik. Batetik bestera zabiltzan gelditzeke eta ortik sortu zitzaion galera narru-merkataritzari. Alperrik galdu zan (124).

\* \* \*

«San Nicolas»en mariñelak indioekin tratoa bukatu dute. Narruak barruan dira eta orain beuren lanera dijoaz, ez ~~-bait~~ dira Terranoba ra narrutan etorri, bale-arrantzan baizik.



Capitán y primer maquinista pescando bacalao. PYSBE.  
Arrinda kapitana eta bere lenengo makinista Groenlandia'ko itxasoan 1930  
urtearen inguruan.

## J

### SAINT LAURENT IBAIAREN AO ZABALA

Labrador, Terranoba eta Akadia, iru oien erdian osatzen da Saint-Laurent edo San Lorenzo ibaiaren aoa. Itxaso da lurrez inguratua.

Terranoba eta Akadiaren tartean isla batzuek daude, ao orretara sartzeko dagoen ate zabalanean.

Beste ate bat dago goialdetik, Terranoba eta Labrador'en tartean. Oso estua da eta Cartier jaunak arkitu zuan pasadizu ori; euskaldunak an zeuden egun artan arrantzan, Cartier jauna agertu zanean, 1534'an. Orduan adierazi zion munduari Terranoba ugarte edo isla zala... Cartier jaunak, alegia.

Lur-arteko itxaso ori oso da zabal eta luze: milla kilometro izango ditu alderik alde. Zabala izan arren babes geiago zegoan bertan Atlantiko itxasoan baiño. Beste aldetik berriz, kaiak eta ondartzak zeuden ugari-ugariak eta aukera-aukerakoak.

Baleak ere sardatan bizi ziran itxaso artan eta ia urte guztian ez zuten alde egiten, izotzak zetoztenean ez bazan.

Barru ori izan zuten euskaldunek maite asiera-asieratik. Mi-Ua toki badaude baztar oietan euskaldunek arrastoa utzitakoak. Bale-arrantzako arrastoak eta baita bakaillau-arrantza-arrastoak ere.

Paraje aietara euskaldunek bale-ondoren joan ziran eta bale-arrantzarako. Gero, an bakaillaua arkitu zuten itxaso-estali. Eta bakaillautan ere ekin zioten, bide batez. Orduko euskaldunen az-tarnetan naasian daude bale eta bakaillau. Bata besteengandik bereiztea oso zailla eta gaitza da.

Ez ditugu ba bereiziko.

## J

### EL GRAN GOLFO DEL RIO SAN LORENZO

*Abundan en este mar del Golfo del San Lorenzo las playas, las calas las bahias. Estid entre Terranova, el Labrador y la antigua península de Acadia. Tiene dos entradas: una por el sur-este, paso de entrada y salida para nuestros pescadores; y otra, estrecha, al Norte, el estrecho de Davis, por donde entro Cartier, en 1534, cuando dio la vuelta completa a Terranova y encontro en el Golfo a los vascos dedicados a la pesca de la ballena...*

*Este mar interior fue el lugar predilecto para los pescadores vascos. Llegaron allí a pescar ballenas y se encontraron con el bacalao, que tampoco despreciaron; aunque su objetivo preferente fue siempre la ballena...*

*La ballena discurre de un lado para otro en grandes manadas... El San Nicolds comienza su faena: una, dos, tres... van cayendo las ballenas bajo el tiro certero de los arponeros. Las chatupas las arriman al barco que las lleva a tierra. Allí opera el equipo de tierra encargado de fundir y almacenar la grasa...*

*95 barriles apiñados en el almacén esperando ser estibados en las tres bodegas del San Nicolás...*

*Los patos comienzan su emigración hacia el Sur. El invierno se acerca. Pronto estos mares estarán cubiertos de hielo. El calafate está terminando su trabajo. Barriles de grasa, «ballenas» y pieles están a bordo.*

*Cuanto trabajo, sudor y sinsabor han padecido desde abril en que llegaron... Han tenido chalupas hundidas y hombres heridos. Han visto desaparecer un barco, durante la tormenta, en el fondo del mar con toda su tripulación... Y por fin llega la hora de poner proa hacia casa. Despedidas y abrazos. Hasta la primavera próxima, amigos.*

*España, el capitán devarra, ha hecho su promesa a la Señora de Iziar. Su primer quehacer al llegar a Deva será el cumplirla a los pies de la Señora.*

Minigo'ra (Euskaldunen-islara) eldu dira gure «San Nicolás»eko arrantzaleak. Txabola eta etxola egin dituzte, labeak jaso ere bai, egurrezko enbarkaderoa zer esanik ez.

Itxas-ontzia kai batean aingucatu eta geldi-arazi dute. Legorrerako diran gizonak, legorrera. Itxasorako diranak, txalupetara, lanean asteko.

Lurreko diranak badute oraindik lanik emen urez beteta ekarri dituzten barririk lurreratu, mai luzeak egiñ bale-aragia zaitzeko eta abar...

Koipea Lekeitio'n fozela urtutzen degu. An esana dauka eta ez degu berririk emango...


Barkuaren barna utzitu dutenean eta gizonak legorreratu; besteak, itxasora. Bale-sardak batetik bestera. Egurt zoragarriak eta arrantzak ere bai...

Lenengo balea menperatu dute. Teknika esagutzen degu... Islara dakarte.

Txakoliñ-eguna gaurkoa: festa, alegia.

Balea ebagi, seiña urtu, barriketan ipiñi, txafoola luzean gorde.

Gero, foigarren foalea... Irugarrena... Laugarrena..



Ibillean dabiltzala Labrador aldera jo dute. Orduan bere izena ez zan ori foeste auek baizik: Grande Baye, Grande Anse eta Pays-des-Esquimaux.

1582'an Richard Whitbourne jaunak paraje aietan ikusi omen zitun euskaldunak. Balea ill eta koipeak ateratzen omen zeuden.

«Toki auetan egiten dute arrantza euskaldunek», zion Ghamplain jaunak (125).

Labrador'en zegoan Lesquemin kaia (Les Escoumins = indioz Cuscam).

1674'an Denis de Rotis pillotu euskaldunak, berriz, Uskimiñ idatzi zuan. Bale arrantzarako tokirik aberatsena: emendik asi eta Saguenay ibaieraiño. Aurrerago joanda dago Echafaud-aux-Basques deritzan kaia. Kanada'ko kostaldeak dira eta euskaldunek maite zuten tokia. Ortxe daude Lesquemin inguruan Bon-Desir eta Anse-aux-Basques ere. Bietan arkitu dituzte euskaldun-labeen erreusak (126).

Balea ugari dabill eta legorrekoak ari dira gau-ta-egun saina urtu eta barrikak betetzen.

«San Nicolas» ontziak ibillaldia ere egindu-ta aldamenean dakartzki lotuta bi bale: ama ta bere kumea. Oiek islan utzi eta egoaldek abiatu da «Pointe a la loupe» deritzan kaira. Islatik kanpora dago lur-utsetan. Gertu dago Euskaldunen Isla'tik eta lagunak ditu Espilla'k

bertan. Labea ere badute euskaldunek toki orretan (127).

\* \* \*

Eguraldia udazkenekoa da. Ifarraldetik atak datoz, etengabeko errenkadatan, ego-alderuntz. Izotzetik igesi doaz. Negua gaifiean...

«San Nicolas» ontziaren erraietan 1.195 koipe-barrika daude beteak. Bale-bizarrak ere pillo aundia. Narruak ere foai...

Zenbat izardien ordaiña...!

Zenbat arriskuen fruitua...!

Egun guztiak ez dira berdiñak izan. Egun garbi zoragarriak eta egun nabar laiñotsuak... Alkar ikusi eziñ... Alkar jotzeko arriskua nun-nai... Ekaitzak ere maiz.

Beñ bale batek txalupa ondoratu zien eta bi gizon zauritu. Oker aundirik gabe atera dira aurrera. Medikurik ez. Hospitalik ez iñun...


Argia eta laguntza zerutik eskatu bear.

Ekaitzak jota, 70 toneladako barku txikia ikusi zuten ondoratzen. Gizon asko galdu ziran eta kapitanari oiñak izoztu zaizkio:



Hundimiento de un velero portugués en Terranova hacia 1946. Testimonio de una revista gráfica  
Portuges-ontzia ondoratzen.

«Ontzia ondoratu-ta,  
 itxasotik jaso ginduztenean  
 gizon baiño  
 espiritu-itxura obean  
 jaso ginduzten...  
 Lur gurea,  
 lur maitea  
 oso gutxik  
 zuten ikusi.  
 Ta kapitanari  
 bertan  
 Terranoba'ko foankuetan  
 izoztu zitzaizkion  
 bernak...» (128).



San Juan Talako'ra joan oi ziran lekeitiarrak  
 otoiçzeta, itxasoa orruka asarratzen zanean


«Erruki gaitzatzu, Jauna...  
 Kristo, adi egon guri...  
 Erruki gaitzatzu, Jauna, arren...»

edo itxasoko foeste ezfoearren bat sortzen zanean:  
 Espilla'k eskeintza egin dio Iziar'ko Ama'ri.

En la capilla de La Dolorosa de la parroquia de  
 Deva existía un cuadro, en el que se leía lo  
 siguiente:

«El Paauebot de la Rl. Compañía de la Habana  
 nombre del Paq. San Miguel, (alias) el iinico, su  
 capitán dn. Joachim de Larraguibel, salio de dho.  
 Put. para el de Cadiz el dia 14 de agosto de 75:  
 el 1.º de Sepr. desemboco con toda felicidad la  
 Canal de Bahama con viento Norte: el 17 dcho.  
 hallándose unas 68 leguas de Oeste de la Bermuda,  
 le entró el Equinocio con tal furia que no es  
 pinderable, el queal duró 48 horas sin amaynar nada  
 de su primer vigor antes por momentos se hiba

*aumentando la tormenta: le dia 9 parecia la mar  
 una brasa de fuego de modo que unidos los tres  
 elementos de agua, viento y mar a qual mds fuerte  
 temimos se anegase el Barco. En este conflicto no  
 hallamos otro recurso que dar la popa al Viento y  
 pedir a esta Divina Sra. se dignase aplacar la  
 tormenta, pues nunca se veia el barco sobre el agua,  
 sino combatido siempre bajo los golpes de Mar  
 de suerte que a las 4 de la tarde fue preciso cortar  
 el palo mayor: a las 9 de la noche entre muchos  
 golpes de Mar vino uno tan furioso que arrasó todo  
 un costado, llevándose tambien toda la Popa, Alcazar,  
 Castillo, cubierta, Artilleria, Lancha, bote, palos y  
 Respetos Vrn. y dos hombres, guedándose hecho  
 una boya: en esta postura estuvo el barco debaxo  
 del agua arriba de 9 minutos hasta que desagud  
 por las portas de los cañones. El dia 10 abonanzo el  
 tiempo y hallándonos absolutamte sin tener de qe.  
 hechar mano pa. armar una bandola, fue preciso  
 cortar baos y tablas, con lo que determinamos  
 arribar al Puto. de Charlestoun en la Carolina y  
 entramos en el 28 de dcho. y habiendonos reparado  
 allá del todo salimos p.: Cadiz el 31 de Enero de 76,  
 en cuyo Pto. llegamos el 28 de Marzo de...  
 dia de esta imagen de DOLORES. ES VOTO a  
 esta Virgen Dolorosa.»*





## K

## KAPITANAREN JAIERAK

«Nati» bela-barku-pailebota, Malaga'ko portuan ondortuta zegoan, erdifoï egiñ bait zan leertu zanean.

Buzoa zer topa zebillen ur-azpian. Beste gauza askoren artean, Lekeitio'ko Antigua'ko Ama'ren irudia zekarren gora. Litografia bat zan antxiñakoa, eta ertzak zitun alde guzietatik erreta; aldara eta Ama Birjiña'ren irudia, biak zirauten osorik.

Geroago, Terranova'ko foideak asita zegoala kapitana, irudi ura ikusiko degu oe-fouruan kapitanaren gelan. Ertzak berritu zizkion kuadroari; baiña, beste guztia buzoak ur-azpitik aterea zan.

Antigua'ko Ama Birjiña'renganako jaiera eta debozioa, Eustakio'k bere ama Pillipa'ren aotik ikasi zuan. Bai erritik bertatik ere, jaiera aundia bait zioten lekeitiarrak beuren Antiguako Ama'ri.

Gelako aldameneko orman, oean etzanda zegoala ezkerretik ikusten zula, Aita San Antonio ren irudia dago zintzilik. Ez dakit nundik-nora sortuko zitzaion jaiera ori. Bizitzan zear izan zitun gerora, jaiera artako arrazoibideak, «bere-bereak»...

Ona:

Irlanda'ko portu batean (iDublin zala usten dut) tabako-libra batzuek aduanan agertzea aaztu zitzaion. Berak ez zuan erretzen eta tabako bearrik ez zuan; besteeri emateko, bai.

Ondoren, karabiñeruak errejistroa egitean, bere ao-azpiko kutxatilla batean, an agertu ziran tabako aiek.

—Aizu, nundik-nora dituzu tabako aiek...?

—Ez dakit zer esan ere... Emen zeudenik ez naiz gogortu ere...

## K

## LAS DEVOCIONES DEL CAPITAN

*Cuando el pailebot «Nati» se hundió en el fondo del puerto de Málaga, los buzos trataron de sacar a flote todo lo aprovechable.*

*Entre otros objetos apareció una litografía de la Virgen de la Antigua de Lekeitio. Se había quemado ef borde, pero quedaba intacta la imagen.*

*Cuando más tarde el capitán navegaba por Terranova, este cuadro remendado de la Virgen de la Antigua, presidía la cabecera de la cama del capitán.*

*En el panel de la izquierda, otro cuadro: el de San Antonio de Padua. El capitán le tenía devoción. Según él, justificada. En Dublin le salvó de una multa por un contrabando de tabaco involuntario.*

*En 1936 mandaba el el barco Tramontana, que fue llevado a Valencia sin su capitán. Después de tres años de guerra, al recuperar el barco en Orán, lo único que quedaba en su camarote, en uno de sus cajones, era el cuadro de San Antonio. Tres años de singladuras bajo pabellón republicano sin perderse. San Antonio,*

*patrdn de las cosas perdidas, no se habia perdido...*

*No es extraño que les tuviera devocidn a la Antigua y a San Antonio. Todos los años les hacia su visita: a San Antonio en Urquiola.*

*Era el año 1929 tal vez, pescando en aguas de Terranova con el Galerna, un día de niebla espesa como el pure, fue abordado por un barco portuges que le metid la proa en la bodega. Gracias a que estaba repleta de bacalaos, pudieron llegar por sus medios a Pasajes. ^Suerte? No la tuvo el Tifdn, tambien de P.Y.S.B.E., que abordado a plena luz del mediodia, se hundid en diez minutos... El razonaba sus devociones.*

*Una novena de La Antigua, en vasco, le sirvid para otro menester: el cable de la maquinilla segd la cabeza de un marinero. Lo enterraron en Groenlandia. Una cruz de madera y un grupo de pescadores con su capitdn.*

*Este dirige la ceremonia del entierro. Lee en vasco una oracidn a la Virgen de La Antigua y termina con Padre Nuestro...*

*||Joan de Espilla visitd el Santuario ) de Iziar. El mismo habia recogido Ia unos ndufragos; habia visto hundirse a otros; pero el habia vuelto | sano y salvo... Justificada en su co-razdn su devota visita.*

—Ez, ee...?

—Ez, ba. Egia diozut. Nik ez dut erretzen eta erriko laguentzako ditut...

—Aizu, jauria, iñuzu aurpegia al daukagu, ala...?

—Ez didazu sinisten...?

—Ez.

—Egi utsa esaten ari nazaizu. Sinisten ez badidazu zeorrek ikusi zer egin.

Burua beko kajoitik jasotzean, polizikoak San Antonio'ren kuadroa ikusten du aurrez-aurre eta bere lagunari kiñu egiñaz, one-la dio nere aitari:

—Katolik...?

—Yes.

Beste gabe alde egin diote foiak kamarotetik. Sinistu zioten, nunbait. San Antonio'ren kuadroari eskerrak...

Ez da, ordea, ori guztia.

1936'an gaude. Terranoba'tik etorri-berri dira. Pasaiako portuan milla tonelada bakaillau daude «Tramontana» ontziaren sabelean. Ekaina da. Garagarriila, Gipuzkoan esaten danez.

Deskargarako langilleak oporretan daude. Eskabideak egiñ dituzte eta erantzunik ez duten artean, lanik egin nai ez... Barkua lo dago, moillan kontra. Beste aldietan amabost egun naikoak izan oi dira, bakaillaua ontzitik atera eta berriro Terranoba bidean jartzeko... Aurten, ordea, amabost egunak illafoete luzatu dira...

Auzia erabakitzen ez.

Egunak luze.

Bat-batean, Uztaillaren 19'an, itzulia.

Jai-eguna zan: domekea. Goizeko zortziretan, mezatik- netorren Lazkano'ko errian, Aresone'ko atari-aurrean, Napparro'tik zetorren kamioi bat geldi. Ardo-barrikaz beteta. Inguruan jendetaldea bilduta. Urreratu nintzan. Txoferra izketan:

—Estella'tik igarotzean, barrikada bat bidean bidea itxizten eta gizonak armak-eskuetan:

—No dispereis camaradas! Esan nien eta eurak erantzun:

—Que camaradas ni que cojones! Viva Cristo Rey...!

Esan nien ez ziralá nereak ardo aiek eta nagusiari zer esplikazio eman foear nion...  
Dana dala, utzi didate pasatzen eta emen nago.

Txoferrari ao-zabalik entzuten arri-ta-zur geudela, orra or nun agertzen dan Beasain'dik ziklista bat. Kamioiaren berri jakin zuanean, onela esan zion txoferrari:

—Pasa rapido que van' a volar el puente de Beasain.

—Que volen! Que volen! Ekin zion Juxto xaarrak pozik ardo-barririk errian geldituko ziralakoan. Arima eta axala, besterik ez zuan gizarajo arrek. Egun osoan oillo zaintzen, automofoilten azpietara sartu ez zitezen. Zaintzen baiño automobill-azpira eramaten, geiago saiatzen zala esan oi zuten errian. Bai ba, poza agertzen bait zuan aundia oillo batek bere lumak automofoil-azpian uzten zituanean... Nere osafoa Joxe Mar'k askotan esan oi zuan:

—Purgatoriotik arima bat ateratzea nijoa.

Jeiki lanean zegoan tokitik eta Juxto artu ta Lukasene'ko tabernara, txikito edo baso-erdi bat ardo edatera. Juxto lanik ez zuan egiten, edadetua zalako; erretirotik ez eta praktetako sakelak beti utsik. Beasain'go zufoiak ausi ezkeroz kamio-ardoa errian gelditzen zalako:

—Que volen! Que volen! deadar egiten zuan.

Aste foete pasa orduko agertu ziran errian napar erreketek, oraindik tirotik botatzeke.

Bitartean eta gero ere bai, Donostia'ko irratia entzuten genduan eta egun batean:

—«Tramontana» barkuko kapitana agertu dedilla Pasaia'ra, ontzia bere mende artzeko...

Baiña, foarku eta foere kapitanaren tartean gerra ikaragarria sortuta zegoan. Pillotuak eraman zuan ontzia, bakaillauz beteta, Bilbao'ko portura, eta andik, Valencia'ra. Espainia'ko urreak Errusia'ra botatzeko «Tramontana» erabilli zuten Valencia'tik Marsella'ra bidean.

Iru urte luze egon ziran barkua eta bere kapitana alkarrengandik uruti. Iru urte pasa-ta gero, nausiek bialdu zuten kapitana Oran'era barku-billa. Afrika'n agertu bait zan.

Ura barruko dardara kamarotean sartu zanean. Pasaia'n gauzez ondo ornitua utzitako kamarotea, an zegoan utsik. Ezer ez.


Ez dut egirik esan. Zer-edo-zer badago. Oe-gaiñean amalau kiloko idazteko tramankulua, bi-tekla-saillduna. Museo baterako ez litzake txarra izango... Gelako kajoi guztiak utsik. Kutxatilla guztiak utsik...

Baiña... ba al dakizute, aizkeneko kajoiaren barren-barrenean, zer zegoan...?

Aita San Antonio'ren kuadroa.

—Gauzak galdu ez ditezen eta galdu badira, eurak arkitzeko, foa omen du bere zera Aita San Antonio'k...

—Ja, ja, ja!



PYSBE. «Tramontana» bakaillau-ontzia. 1934.

—Parre egiten dozu, txotxo...? Ara berau emen, galdu gabe ainbeste denboran...! Iru urte luze.

Fedea zion.

Bi barku galduak zitun aurretik eta irugafrena gaddu nai ez edo...

Larri ere ibilli zan ba...! Gutxiagorekin baterenbat joango zan ondora.

«Galerna» baporakin zan. 1928'an, edo. Gero, gerratean, Espaiña Urdiñeko gerrako barkuak ondoratu zuten Galerna ura berbera. Sarasola

lekeitiarra zan Galernaren kapitana barkua ondoratu zutenean. Aurretik nere aitarekin pillotu ibillia.

«Galerna» Terranoba'tik zebillen negu artan. Itxaso aietan maiz laiño izan oi da. Egun artan laiñoa zegoan.

Laiño itsua.

Alkar, dabilzatenean, ikusi eziñ. Bat-batean, eskubi aldetik danbatako izugarria. Beste barku baten aurre-aldea sartu zitzairen bodegan. Eskerrak bodega ori bakaillauz beteta zegoala eta bakaillau artean moteldu zala kolpearen bizia. Urik ez zan barruan sartu.

Suerte!

«Tifon», PYSBE'ren feeste barkuak, ez zuan suerte ori izan. Egun argitan portuges ontzi batek popatik eraso dio eta makina-gelan muturra sartu. Amar minutuan «Tifon» ur-azpian ondoratu zan...

Suerte... ?

Orra «Galerna» eta «Tifon» biak anaiak eta biak suerte desberdiñakin.

Barkurik galdu nai ez. Aita San Antonio'k edo, suertea ekarri dio... Zaldi-perra aiñakoa bada.

Itxasotik zetorreanean, egingo dio Aita San Antonio'ri Urkiola'n bere bisitatxoa.

Auek orrela izan dirala neuk dakit.

+

Joan de Espilla Itziar'era joatea legezkoa zan garai aietan. Besteak, batzuek Guadalupe'ra eta

Begoña'ra dijoaz. Ondarrutar eta lekeitiarrak beuren Antigua'ko Amarengana... Eta abar.

Ikustaldiak eta promesak.

Barkuak zintzilik elizeetan.

—Otoitz egiten ikasi nai baduzu, zoaz itxasora.

Dio esaera zaarrak.

Bela-barkuetan joan, alegia.

Itxaso aundietara joan; batez ere, bale eta bakaillau-arrantzara.

Espilla'k gizonak jaso zitun itxasoan galduak.

Beste gizon asko, ordea, an gelditu dira betirako.

Urteero gerta oi diran gertakizunak dira.

Eustakio'k orrelakorik ikusi izan du bat baiño geiago.

Bat aitatu du emen:

Groenlandia'n daude. Lurralde izoztuak.

Basamortuak, zuri. Egun luzeak udaran; gauak luzeago, neguan. Itxas-ertza. Gizon-mordo ibat egurrezko gurutze baten aurrean.

Lurra arrotuta dago. Lur arrotuaren azpian, gorputza.

Okerrak gertatu oi dira, ustegabeen. Gizona ilda. Bakardade aietan, errian ekartzen ez duten gaitz askoek, ekarri lezateke eriotza an.

Gaurko okerra bestelakoa izan da:

makinillaren kableak lepoa moztu dio gizonari.

Gorpua uretara botatzea izan oi da oitura itxaso zabalean. Baiña, kapitanak naiago du, egun batzuen gora'bera orregaitik, bideak egiñ eta legorrera eraman.

Egurrezko gurutze bat egin dute barruan. Zuloa egiñ ondoren, gurutzea sendotu dute, gorpuaren buru-aldetik. An daude guztiak bilduta.

Kapitana apaiz-ordeko:

—«Gure Aita zeruetan zerana...»

Berak latiñerik ez daki. Ez du illetetarako otoitz eta liburu bereizirik; baiña, Antigua'ko Ama'ren bederatziruennatik egingo dio otoitza euskeraz.

Eta, ala egin zion. Goietan aingeruak irripar gozoa...

Zenbat mariñel ote dago baztar aietan eortzirik! Batzuen berri izan oi degu. Oietakoak dira Plazenzia'ko tonbeetan eortzi zituztenak. Auen berri gerorago emango degu. Beste askoren sepulturak ez ditugu sekulan ezagutuko.

Ile Percee. Isla onetara Baiona eta Doniane Loitzun'ekoak etorri oi ziran.

Ile Percee: 1686'an, Hirigoyen kapitana aitatzen dute paper zaarrek isla orretan. 1690'an, foerriz, 30 kañoi bakoitzak zituzten bi fragata inglese, bakaillautan zebiltzan bi ontzi euskaldun



Kanada: Gaurko egunean ere gure aurrekoen antzera legortzen dute bakaillaua.

eta beste bi prantsez arrapatu zituzten. Udaberria zan. Ontzi batek 45.000 bakaillau zeuzkan barruan. Gizonek txalupetan iges zuten legorrera eta basoan beuren buruak izkutatu...

Akadian bertan, egoalderago dago Miscou kaia. Ara 1613'an zer gertatu zan:

Joan Araneder loitzundarra bakaillautan zebillen bi barkuekin. Bata zan «Grace» eta bestea «Marie de St. Vincent». Andik euskaldunak botatzeko bi gerra-barku eraman zitun ara Nouvelle France'ko Almirante jaunak. Beste askoetan bezela, an gertatu zan zalaparta aretan, indioek euskaldunen alde agertu ziran...

Arazo oneri bumz Champlain jaunak onela dio:

Joan Araneder kapitanari itxasoan ibiltzeko agiria eskatu zion agintariak. Paper oiek ez zirala bearrezkoak itxasoan ibiltzeko, erantzun zion kapitanak, paperak ematen zutena aberasteko ez baizik. Eta, berak ez zula alperrikako paper oiek ateratzeko oiturarik. Orduan agintariak preso artu Araneder kapitana eta gerra-barkura eramane... Une artan gerra-barkuko agintariari onela eraso omen zion euskaldun batek:

—Guri kapitana kentzea ez da orrelako okeir aundia guretzat. Aizkeneko txo gazteena artu eta kapitan jarri genezakegu ontzian; barruan, edozein bait gera barkua eramateko kapaz...

Bitartean, Araneder'ek bere burua itxasora bota eta eskuartetik alde egin omen zien. Bere barkura igo eta bertatik, nagusi bezela, gerra-barkuko gizoneri agindu zien, arrapatu zieten armak biurtzeko berriro. Beste bere barku euskaldunen laguntzarekin bi edo iru kañoi-kolpa bota zien...

Legorreatan zeuden gizonak, koipea urtutzen eta bakaillaua ondutzen, txalupetan bi barkuetara itzuli ziran Almiranteak ez zuen biotzik izan aurpegia emateko, eta preso artzera etorri ziranak, euskaldunen eskuetan preso gertatu ziran... (152).

Miscou'tik egoalderago Ile St. Jean dago (Ile du Principe Eduard). Euskaldunen kaia ifarretik dago, baiña sartalderuntz. Gaurko egunez «Cascumpeque Bay» deritza. Kai ori arri-esiz inguratu zuten euskaldunek.

1623'an ona zer ikusi zuan bertan Nicolas Denys'ek:

Iru euskaldun ontzi aundi; baiña, kai-barrura sartzeko operazio asko egin bear zituzten. Lenengo, ontziak utsitu. Gero, alboka etzan ontzia. Irugarren, etzanda dagoen ontzia, erremulkan, txalupekin tiraka, barrura sartu. Barruan ur aundiak daude; sarreran, ordea, txikiak. Barru artan arrain asko eta aundia dago. Inguru guztian ere bai. Udazkenean etxera joateko gauza oiek berberak egin bear dituzte, baiña, alderantziz: barku utsa kaltetik atera, etzanda; gero, itxasoan, zutitu eta bakaillauz eta gauzaz bete (153).

San Lorenzo ibaiaren auzo zabalari jira osoa eman diogu.

Aldetik aldera, milla kilometro luze oietan, eunka ondartzat eta kaiak daude. Balea eta bakaillaua ugari. Paraje oietan gure aurrekoak izan ziran jaun da jabe...

Onela zion, 1670'an, aitaturako Nicolas Denys jaunak:

Euskaldunek dirala bakaillau-arrantzalerik onenak; oien ondoren datoztela besteak... (154).

Gauzak ez dira, ordea, txiripaz izaten. Ikusi zergaitik ziran onenak:

*Jantziak:* Txalupa-maixuak eta bere lagun guztiak dituzte arrantzarako bear diran jantzi bereziak. Lenengo ta bat, iztarretarainoko bota luzeak. Gero, soin-gaiñeko jantzi <luzea, botak estaltzeraino, ardi-narruz egiña, bere ille eta guzi. Narru aldetik olioz ondo ingurtzia, urik beste



aldera pasa ez dediñ. Onen gaiñetik beste narruzko soiñekoa; gerritik beerakoa eta uraren kontrakoa au ere. Burua estalitzeko txapela ere bai, eskapulario antzeko txatalekin, lepotik beera, bizkarretik bezela bularretik ere...

Jantzi oiekin irten oi dute euskaldunak txalupetan bakaillau-billa arrantzara, euriaren eta kresalaren bidlurrik gabe. Soiñeko aukerantzale euskaldunek biñaka dituzte bakoitzak...

Beste arrantzaleak, euriagaitik, arrantza utzi eta legorrera joan oi dira foabes-billa; baiña, euskaldunek ori nekez egiten dute, ondo jantziak daudelako. Orrela gauzak dirala, gero, zer gertatzen da...? Besteak txalupa-erdi bat betetzerako euskaldunek osoa betetzen dutela. Orregaitik besteak gorroto diete eta sorgiñ-aztiak dirala esan oi diote. Baiña, guzti ori bekaizkeri eta inbiria da, eurak diralako arrantzarako beste nazio guztiak baiño abillago (155).

*Arraiñ gordiña eta arraiñ sikua..*

Euskaldunak ez dute nai izaten arraiñ gordiñik ekarri, sikua baizik. Gerora, bakaillau-arrantza 1927'an Euskalerrian berri zanean, PYSBE'k arraiñ gordiña ekarriko du, gatzetan, Bretoiñan antzera.

Aurrekoek, ordea, ez. Ez zuten arraiñ gordiñik ekartzen.

Zergaitik, ori? Euren lurraldeetan, bero egiten duanez, arraiña galdu egiten zaielako. Gaiñera, sikutan, arraiñ geiago artzen du barkuak... Arraiña sikatzen eurak asi ziran lenengo aldiz

Terranoba'ko lurraldeetan eta San Lorenzo ibaieko kaietan...

Esan dezagun aurretik, bakaillaua arrapatzeko txalupetan irtetzen zutela itxasora. Txalupa bakoitzeko iru gizon. Amua eta kordela erabiltzen zuten arrantzarako. Barkua, kai-bazterrean gordea. Ainguratuta. Kaietatik ur-aundietara txalupetan irten, goiz-aldean, egunsentiarekin batera. Eguerditik ordu pare batera, emen dira guztiak arraiñez beteak, kaira. Arraiña sikatzeko legorrera joan bear. Itxas-ertzean daukaten txabola luzean, arraiñak bota. Burua kendu eta erditik zabaldu (trintxadoreen lana da). Txabolan dute Ian oiatarako aukerakoa, mai luze bat. Bertan zabal-zabal ipiñi. Ondoren gatz-ontzietan eduki eta aizeetara jarri aitz-gaiñetan. Sei ordutan an eduki ondoren, berriro gorde, urrengo egunean ateratzeko berriz ere. Geroago, alkarren gaifian tolestatu eta aizeetara zortzi egunez. Ondoren txabolan gorde barkura eramane arte.

Lana ondo aterako foada, lañorik ez du egon bear; lañoak usteldu egiten bait du arraiña. Eguski aundirik ere konfoeni ez; eguzkiak gorritu egiten du arraiña...

Giro goxoa eta aizetsu. Orra zer konbeni dan (156).

1706'an, Ile Percee'ko kaiean euskaldunak (Baiona eta Doniane Loitzun) normandarrekin zeuden alkatuta. Euskaldunek ez zuten arraiñ gordiñik nai; normandarrak, berriz, sikurik, ez. Euskaldunek naiago zituzten arraiñ txikiak, ondo


legortzeko errezagoak; normandarrek, aundiak  
Tratoa egiñ zuten alkarrekin: guk zueri aundiak  
eta, oien truke, zuek guri txikiak... (157).

#### *Partillak.*

1670'an euskaldunek irabaziak banatzeko  
bereziko xistema dute. Lenengo ta bat, zenbat  
arraiñ-kintal arrapatuko dituzten asmatu.

Oietatik, berreun edo irureun zati egiñ. Geroago  
bakointzari onenbesteko zati banatu: kapitanari  
onenbeste, pillotuari, arrenbeste... eta orrela,  
beste guztieri ere.

Etortzean, gauzak pentsa bezela gertatu badira,  
asmatutako eran partilla egiñ. Gutxiagokin  
etorri badira, orduan partilla bakoitzetik  
proporzioan kendu falta dana. Geiagokin etorri  
badira, geitu^.. (158).



Bakaillautan gure aurrekoek egiten zuten antzera.

## N

## ALKARRI GEZURRETAN

PYSBE'ko bi lenengo barkuak «Euskal-erria» eta «Alfonso XIII» (gero oneri Errepublikara garaietan, izena aldatu zioten «Hispania») zortziraiño geitu ziran urte gutxi barru.

Gerora, berriz, amar, amabi, amalau, amasei... Beti biñaka.

Kapitan asko, pillotu asko, mariñel asko, arrantzale asko bakaillautan... Guztiak lagun; guztiak alkarren etsai, arrantza joku kuan nor-geiagoka...

—Guk zortzireun tonekda...

—Guk zortzireun eta amar...

—Guk geiago...

—Nagusi, geu...

Eztabaidak mariñel artean. Eztabaidak pillotu aretan. Eztabaidak kapitan artean.

Azkenik eztabaidak Pasaya'ko errian (Donianen):

—Fulanok geien ekarri omen du...

—Ez, jauna, Zutano omen da aurrean...

\* i< \*

Lenengo bi barkuen kapitanak, kapitan zaarrenak, Paskual eta Arrinda izan ziran. Baiña, bi kapitan auen pillotu guztiak, lenengo kanpaiñakoak alegia, amar urte baiño leen, barku baten kapitan ziran.

Agirre zan (Begoña'ko semea bera) Arrinda'ren lenengo pillotua. Irugarren urterako bera ere kapitan.

Zortzi lendabiziko PYSBE'ren kapitanak, zortzirak bi lenengoko barkuetan alkarrekin ibilliak.

Alkarren malezi guztiak zekitenak:

—Agirre, (Arrinda Eustakio'k radioz) zenlbat asi zerate arrapatzen... ?

## N

## EL MENTIDERO


*Los dos primeros barcos de la P.Y.S.B.E. (Euskalerrria y Alfonso XIII, luego Hispania) pronto se convirtieron en ocho; de modo que todos los pilotos de ellos fueron nombrados capitanes.*

*Se conocían, pues, mutuamente muy bien. La Compañía les tenía ordenado que se comunicaran entre sí los datos de la pesca. Pero se mentían.*

*Podía más el amor propio y la vanidad, que el interés común de aumentar la pesca.*

*Mi padre había navegado en barcos de vela y conocía a muchos viejos patronos veleros. Uno de estos, Miguel «Calar» de Deva, vino con su hijo Antonio a mi padre para que lo metiera en la P.Y.S.B.E. Anduvo con mi padre de agregado y piloto. Le favoreció la suerte y pronto Uegd a ser capitán.*

*Antonio y mi padre fueran tal vez los únicos que se dijeron la verdad; por supuesto, en lenguaje cifrado para que no lo entendieran los demás.*



Buena pesca en el vapor Euskalerría.

«Euskalerría» PYSBE'ko ontzia, Antonio Andonegui debarra kapitán. Berrogei urte igaroko ziran arrezkero.

—Lau sare-feotaldietan amalau saski bakaillau.

—Entzun dok (Arrinda'k bere pillotu lekeitiar Luis Goikoetxea «Oyes»eri). Gezurretan ari dok. Amalau saski...? Amalau otar...? Amalau otzara...? Amalau tonelada bai seguruago.

Alkarri gezurretan amorratzen.

—Bai, txo; etorri onera. Emen bakaillaua area baiño ugarriago... ondarra baiño geiago...

—Ez ari joan, iñundik ere... Gezurra dok eta...

\* \* \*

Migel «Kalar» Andonegi'tarra, Deba'ko semea zan Joan de Espilla bezela. Bela'barkuko patroia. Ontzi «pleiteroa»: karga-ontzia, alegia. Eustakio ere bela-ontzietan ibillia izan eta alkarren lagun ziran. Aspalditik.

Antonio Andonegi, Migel «Kalar»en semeak Lekeitio'n egin zitun Nautikako ikaskizunak eta ondoren nere aitarekin ibilli zan itxasoko egunak betetzen, «agregadu» bezela.

Amairu urte nituan, Antonio'k emezortzi, alkar esagutu genduanean. Ume-umetatik itxasorako miña nabaitzen nuan neure barruan:

—Aita, noiz eramango nazu zeurekin itxasora... ?

—Inglaterra'ra eramango zaitut...

Egun aietan nere aita Santander'eko «LUIS LIAÑO» konpañian zebillen, «Cantabria» izeneko barkuko, kapitana.

1925 urtea zan. Baiona'ra etortzeko ziran, piñatak Cardif'era eramateko, ikats-minetarako apeak. Ama eta iru anaiok an giñan Baiona'ko Boucau portuan. Landas'etako piñatak ziran.

Andik, Cardifera.

Gaueko amarretan irten genduan Baiona'ko barratik itxas illunera. Agorra zan ill ura: udazkena eta goiz illuntzen zuan.

Ontzia uretan urrutiratu ala, argiak bistatzen asi ziran. Miarritz'eko faroa eta erriko argiak... An urrutian, lur-barruan ere argiak ikusten ziran:


*La llegada de los barcos a Pasajes era una especie de Olimpiada. Se trataba de llegar el primero, traer la mayor carga y el mejor bacalao...*

*En 1966, en una visita a la factoria de Pasajes de San Juan, me decia Antonio Trecet, que era su director: —La marca de su padre con el Abrego nadie la ha borrado todavia. Mi padre estaba retirado hacia seis años de la pesca del bacalao y del mar.*

*Por la prisa en salir con mal tiempo, o por exceso de apurar el carbon para poder cargar mds bacalao, alguno se quedo en medio del Atlántico sin combustible... Eran gajes de la competición que se habian organizado los capitanes y las tripulaciones...*

*Cada tripulante cobraba su soldada mensual, mds una prima por tonelada pescada despues de las 400 primeras que no la tenian. Tampoco todas las toneladas tenian la misma prima: esta aumentaba a medida que aumentaba el numero de toneladas. Era interesante en extremo llegar a las 800. Superarlas era ya una loteria. Estas ultimas toneladas tenian un % de prima muy elevado.*

*Tenian otra ventaja: en los tiempos libres los tripulantes podian preparar «kokotxas» y carrilleras de bacalao para si mismo...*



Primer bacaladero a motor de la PYSBE. El Abrego mantuvo ímbatido el record de pesca obtenida en un año.

*Normalmente hacían dos campañas: de febrero a junio y de junio a diciembre. En junio necesitan quince días para descarga y preparación del buque. En invierno pasaban dos meses en casa.*

—Ura zer da, aita...?

—Dax erria...

Goiko puentean nengoan zorabiatzen illunbe zabalari bej  
ra; legorreko argiak gero eta txikiago, gero eta urrutirago...

Azkenik, bistatik galdu ziran.

«Derrota» deritzan gelan sartu ninduen lotarako. Ontziaren erdi-parean, mogimentu gutxien sentitzen dan tokian. Mareatzeko arriskurik gutxien izateko lekuan...


Lo egiñ nuan gau guztian esnatzeke. Goizeko zortziretan, esnatu nintzanean, era bat maceatuta nengoan. Itxasoko gaitzak artu nindun burutik urdailleraño. Nere itxasoko amesak, gonbitolarriak itto zizkidan sekulako... Egun aietan galdu nitun Terranofea'rako bideak.

IfoilMdi artan Antonio «Kalar» zijoan agregadu barkuan. Aita PYSBE'rako izan zanean, bera ere bai. Lenengo pillotu eta laister egin zuten kapitan.

*El bacalao lo pescaban al arrastre con grandes redes y cada uno en solita'rio. En cubierta trinchaban y abrian el pescado, para salarlo en la bodega. El secado se hacia en Pasajes de San Juan, donde disponia la Compañia de grandes tuneles con aire caliente...*

*2) la sal de  
Tinas*

*El bacalao que traian nuestros mayores llegaba sin duda en mejores condiciones. Lo secaban al aire y a medio sol. Solo despues iba a las bodegas del barco.*



El Tifón de la Pysbe. Hundido en Terranova.  
«Tifón» ontzia, amar minutoan ondoratu zana Terranoba'ko itxasoan.

—Aizak, Antonio, asmatu bear diagu alkarrentzako klabe bat; emen gezurra besterik ez zegok eta...

—Bai, Eustakio, iñori sinisterik ez dago...

Terranoba'ra, bakoitza foere ontzian, irten baiño leen, eratu zuten alkarrentzako jokabidea eta xistema:

—Euri'a dago emen goian-beeran, arraiñ asko dagoela esan naiko du... Eguzkia popatik, berriz, legorra eta ezer-eza... Laiñotsu eta siri-miri, erdi-ipurdi...

Orrela, alkarri laguntzen zioten.

PYSBE alkarreak bere kapitaneri agindua emanda zeukan, danen onerako, alkarri lagundu eta arraiñaren berri emateko... Baiña, bai zera... Arrokeria geiago zan, interesak baiño.

\* \* \*

Udara eta neguan PYSBE'ko ontziak Pasaia'n agertzen ziranean, aurretik burruka eta dema sortzen zan, kapitanen artean, zeñ lenago etxera eldu, zeñek arraiñ geiago eta aundiago ekarri...

Bakaillauaren «olimpiada» bi aldiz izan oi zan: Udaberriaren azkenean eta Neguaren atarian. Urteero bi kanpaiña egiten bait zituzten, geienak beintzat... Bakarrekoak ere izan oi ziran... Bost illebeta kanpaiña bakoitzak: Otsailletik Ekainera; Uztalletik Abendura. Neguan illebeta, illebeta t'erdi, eta suerte askorekin, bi illebeta etxean...

1966'an Antonio Trecet, Pasaia'ko PYSBE faktoriaren buruak onela esaten zidan:

—Zure aitaren markarik ez du emen iñork arrapatu.

Egia zan. «Abrego» ontzia zan geien arrapatutakoa: milla toneladatik gora, naikoak.

Orren gomutaz, PYSBE'k aitari eman zion zillarrezko kopatxo bat 1952'an, ordurateko marka aitak zuelako. Onela dio kopatxo orren idaztiak:

«A Dn. Eustaquio Arrinda  
25 años al servicio de PYSBE  
1927-1952.»

\* \* \*

Asko arrapatzea zan bat. Aundia arrapatzea, zan bigarrena. Lenen Pasaia'ra etortzea, orra irugarrena.

Agirre kapitana, Begoña'ko semea (Begoña'ra erretiratu zan eta an bertan ill ere). PYSBE'ren lenengo biajean pillotu izana, irugarren kapitana. Oso ona zan arrantzan. Nere aitak eta biak, beti alkarrekin burrukan ekintzen zioten, zeñ geiagoka... Batek kanpaiña bat irabazten bazuan, urrugoa besteak kenduko zion... Biak ziran onenetakoak.V.

Bakoitzak zenbat besteak arrapatzen zuan jakiñ nai, noiz etxera bidean jarriko zan igartzeko:

—Noiz zoazte Pasaia'runtz...?

—Oraindik ez dakigu ziur... Bodegan oraindio tokiak utsik dauzkagu...

Gau artan, gezur ori esan da gero, iges egiñ du Agirre'k etxeruntz. Lenen eldu nai Pasaia'ra.



Bodegetan ez da bakaillau bat geiago sartzen. Garaipena berea du. Laiñoak ere lagundu dio iges egiten.

Ikats-foaporak ziran aiek: Euskalerrria, Hispania, Galerna, Vendaval, Tramontana... Ikatsak leku asko artzen du barruan, bakaillauaren ordez. Ikats gutxirekin konfoeni zan irtetzea Terranoba'tik, bodegak bakaillauz obeto betetzearren...

Gero, bide-erdian, ikatsa artu eta kito.

Ondo kalkulatu ez, edo uzte baiño aize geiago aurretik, edo eguraldia gaiztotu bide-erdian... Dana dala eta dena den, Agirre gelditu zan itxas-aundiaren erdian ikatsik gabe:

—Arrinda, arrantzari utzi eta zoaz Agirre'ri laguntzera. PYSBE'k agindu.

Eustakio Agirre'rengana urbildu zanean, holandes erremulkadora zeukan onek alboan zai, laguntza eskatzera noiz beartuko zan Agirre. Laguntza eskatu balio, ontzia eta foere kargaren erdia erremulkadorak eramango zuan sari. Orrelako petxarik gabe barkua egoera artatik ateratzea, garrantzi aundiko arazoa zan PYSBE'rentzat eta orregaitik agindu zion Tramontana'ko kapitanari arrantza utzi eta joateko laguntza ematera...

Amarrak bear bezela Iotu eta an ekarri zuan aitak bere «etsaiaren» ontzia erremulkan Azores isleetara. Pasaia'n atsedendu ziranean, amar milla peseta eman zioten kapitan salfoatzailleari, Agirre'ren bizkarretik... PYSBE'k ez zuan ezer galdu.

Bakaillau asko, bakaillau aundia, ondo maneatutako bakaillaua, kanpaiñak denbora gutxian egitea... Oiek danak nai zitun PYSBE'k, eta guztiak bear ziran txapeldun izateko...

\* \* \*

—Aizu (ispetoreak gure aitari) sare-jostorrazak palta dira... eta aurten sare asko galdu dituzu... Nola galdu ditezke ainbeste sare... Zer egiten diozu sareeri...?

—Egosi-ta jan.

Etxean, gure aitaren asarrea...!

—Oiek arraiñ asko eta aundia nai dute. Ondartzan arraiñ txikia badabill, aitz-artera jo bearda aundiaren billa. Eta, arri-arterean sareak galtzeko arriskua dago... Baiña, txupatinta alu auekin nora joango gara ba...!

—Ispetore izendatu dutenean...

—Ispetore...? Eta, jostorrazak zenbat falta diran kontatzen asi...! Auek, zer pentsatzen ote dute...? Guk jostorrazak, sareak eta bizitza jartzen ditugu arriskuan Pasaia'ra len-bait-len bakaillau ugari eta ederrez barkua beteta ekartzeko... Baiña, iñusente kuadrilla onekin nora joan bear degu...!

Jostorrazena eta sareena egiak dira. Neuk dakit.

Itxas-gizonak ez ziran konforme.

Legorrekoak, arriskurik ez. Irabaziak eta segurantzia, foiak eurentzat. Edozer gauzagaitik kalera bota oi zituzten, bai mariñel, bai pillotu, bai kapitan... PYSBE'tik ateratako gizonek

erabili eta aurrera eraman zituzten beste tokietan sortu ziran bakaillau-arrantza-alkarteak: Santander'en bezela, Galizia'n ere... Une onetan PEBSA eta GOPIBA ditut gogoan.

—Auek, ondamentira dijoaz, foeste neurri batzuekin itxas-gizonak neurtzen ez badituzte...

Gure aita profeta-igarle gertatu zan. Berak ez zuan ikusi, ordurako ilda zegoalako; baiña berak igarri bezela, PYSBE'k fondo jo du 1973'an, 46 urte bakaillautan igaro ondoren...

Eta beste konpañi guztieri bakaillau-arrantza erakutsi ondoren.

\* \* \*

Barrukoak, itxas-ontzietako gizonek, alegia, bakoitzak bere soldata zeukan: illsro onenbesteko bat. Gero, berriz, lareun toneladatik gora, toneladako abantailak eta sariak zituzten. Zenbat eta tonelada geiago, ainbat eta sari tonelada bakoitzeko aundiago. Lareundik gorako toneladak sari gutxi zeukaten. Bosteundik gorakoak, sari aundiagoa. Seireungoko sariak aundiagoak...

Aizkeneko tonelada ziran beti interesgarrienak.

Itxas-gizonek, barkuaren kaladotik eta gatzaren pixutik, ateratzen zuten arraiñ-toneladak zenbat izango ziran:

—Zortzireun eta irurogei toneladakin gatoz...

Baiña... gero izaten ziran an kontuak. Neurketak PYSBE'k egiten zituan: bakaillaua barkutik-atera ala, 50 kiloko neurrietan neurtzen zitun.

Zenbat neurketa aldi bear ziran 800 tonelada-bakaillau neurtzeko? 800 tonelada, 800.000 kilo dira.  $800.000 : 50 = 16.000$  neurketa-aldi. Amaseimilla neurketa aldietan, bakoitzean kilo pare bat kenduta ere 32.000 kilo galtzen dira: 32 tonelada. Amasei milla aldi oietatik milla kontatu gabe utzita berriz: 1.000 berrogeita amar aldiz 50.000 kilo dira: 50 tonelada... 16.000 neurketa-aldi oiek zeñek kontuan eramaten zitun? Legorreko gizonek.

Terranoba'tik etorritako bakoitzean izaten ziran eztabaidak eta asarreak arraiñ-neurketeeri buruz...

Abantailak izateko lareun toneladatik gora ekarri bear zan bakaillaua. Nundik eta nora atera zuan PYSBE'k neurri ori?

Leendik ere esana daukagu, bakaillau-arrantza ikasteko bretoiñak ekarri zituztela Prantzia'tik Pasaia'ra. Bretoiñ aiek ez zuten sekula 400 toneladatik gorako arraiñik ekarri. Aien goi-goieko maila artu zuten, sarien eta abantailleen maillaren asierako. Andik gora zeuden sariak.

Beste abantaila bat ere izaten zuten itxas-gizonek eta auxe zan: foehren laneko ordutik at arraiñ-mingaiñak eta fouru-matraillak gatzetan ipintzen saiatzen ziran, gero beurentzako izateko... Itxasoko legea da. Oiturak jarria. Errespetagarria. Mariñel guztiak ekartzen zituzten kajatxo batzuek etxerako. Lazkano'ko errian ez ziran famili askorik izango gure aitak Terranofoa'tik ekarritako bakaillau-mingaiñak eta matraillak jan gabekorik...

Sari eta abantailla aundienak kapitanak zitun. Ondoren, pillotu eta makinistek. Kontramaixuak. Gero beste guztiak: mariñel, sare-zaitzaille, trintxadore, gatz-emaille eta abarrek...

Bi arrantza-aldi egiten zituzten. Udar an asieran amabost egun bear zituzten ontziak uztu eta ezbearrak zuzentzeko. Orrenbesterekin itxasoan ziran berriro.

Pasaia'tik Terranoba'ra amabost egun bear zituzten bidean eta etortzeko beste-orrenbeste. Bela-barkuak, berriz, illebeta joateko, illebeta etortzeko. Ez ziran aiñ geldi ibiltzen...

PYSBE'ko arrantzaleak bederatzi illebeta inguru pasa oi zituzten Terranoba'ko itxasoetan, bi alditan. Gure aurrekoek, berriz, bostetik seira, aldi bakar batean. Biderako beste bi bear zituztela, orra danetara zazpi edo zortzi illebeta itxasorako. Etxerako berriz, lau edo bost.

Orduko Terranoba-zaleak gaurkoak baiño obeto... An bertan ere egualdi biguñakoak arkitzeh

zituzten Apirilletik Urrillera. Udazkena asita bela etxean ziran... PYSBE'koak ontziak zituzten obeak... Aiek amu eta kordelakin eskuz arrapatzen zituzten eta ondoren legorrean sikatu. Auek, berriz, sareakin eta gatzetan ipiñi barku-barruan, leengo bretoiñ eta normandek egiten zuten antzera. Gauza auetan ez gera gure aurrekoen jarraitzaille izan; bretoiñ ena baizik, auengandik ikasi bait gendun aaztutako arrantza-ofizioa... Arazo onen alderdi guztieri begiratuta, nik esango nuke, gure aurrekoek bakaillau-arrantzan obeak zirala, bakaillau ohea ekartzen zutela eta lan gustosoagoa egiten zutela. Arriskuak aundiago eta barkuak eskasago; lana, ordea, gizon batentzat egokiagoa. Sarean arraiñak multsoan arrapatu bearrean, banan-banan arrapatu arrantzak dakarren pozarekin. Bodegetan gatz-ematen egon bearrean, legorrean eguzki-epeletan bakaillaua sikatu (gero jateko, ohea). Pasaia'n PYSBE'k ere aize berotan legortzen zitun; baiña, bodegetan, pillotuta, illebetak pasa ondoren...




Foto Antton Elizegi.

## O

## B U R R U K A K

1553'an, Ekainak 3, Gipuzkoa eta Bizkaia'ko ontziak agindua artzen dute Espainia'ko Erregearen aldetik, bakarka Terranoba'ra ez joateko, alkarrekin bilduta eta gerra-fearkuen ardura-pean...

Espainia Prantzia'kin dabill asarre burruka-bizian. Prantsezak, etsai.

Ez dutela agindu ori bete nai, izan zan Gipuzkoa eta Bizkaia'ren erantzuna. Naiago zutela bakarka joan...

] 556'an, iru urte beranduago, Apirillak 21, ez dedilla ontzirik Terranoba'ra joan kañoirik gabe. Felipe II erregeak agintzen du.

1587'an, bi agindu dira bata Martzoaren 23'koa, bigarrena Apirillaren 25'koa: Terranoba'ra ondo armatuta joateko, alegia.

«San Nicolas» ikusi degu (Espilla'ren ontzia) 18 kañoiekin eta gaiñera gaiñerantzekoak (arkabuz, baillesta, ezpata eta abar). Ba ziran agindu auetarako arrazoi-bide bereziak, nazioarteko burrukak itxasoraiño eltzen bait ziran, Terranoba'raiño. Toki au toki aberatsa izanik, lapurretarako aukera-aukerakoa zan. Gerraren aitzakiakin eta gerraren babesean, lapurretak mundu zabaleko baztarretan. Gerra guztien ondorena.

## O

## EL CORSO

*En el año 1533 reciben Guipuzcoa y Vizcaya una orden del rey, mandando que fueran a Terranova en grupo y bajo la custodia de la armada. Contestan que prefieren ir solos.*

*En 1566 Felipe II manda que todo barco vaya armado. Ya vimos al San Nicolás armado con diez y ocho cañones y otras numerosas armas. La guerra entre las naciones llevaba la lucha al mismo escenario de la pesca. Y al recorrido hasta Terranova. Cada nave tenía patente de corso. Y a su vez era una presunta víctima de los corsarios.*

*La historia de Terranova está toda salpicada de piraterías. Los vascos las sufren de parte de ingleses y holandeses sobre todo; pero tampoco se quedaban mancos al hacerlas...*

*Por los restos arqueológicos últimamente aparecidos en Canadá, por la toponimia del lugar abundante'-nn. nombres vascos, por las palab.ras vascas que usan los indios, por el modo que estos tienen de arponear la ballena, por todo esto y por más —dice el escritor canadiense Sr. Belanger— se ve que los vascos fueron los primeros en llegar y comenzar sus relaciones amistosas con los indígenas...*

*A pesar de todo, Inglaterra, Francia y Dinamarca se apoderaron políticamente, haciéndose dueños de aquellas tierras y de aquellos mares, hasta expulsar de ellos a los vascos... España dominaba desde Mejico hasta Chile y tenía abandonada la zona del Norte donde campaban los ingleses, que buscaban por la zona de hielos una salida a la China. Los vascos decidieron hacer la guerra por su cuenta... El corso.*

—

*Después de larga guerra Francia y España hacen la paz en 1598. Francia envía a Terranova, de la que se había apoderado políticamente, un gobernador.*

*El Gobernador pone orden y quita libertad.*

*Al mismo tiempo se aprovecha para hacer el negocio en su provecho, tanto en la pesca como en el trato de pieles de castor...*

Aítatu ditzagun emen' historiak gogoratzen dizkigun zenbait lapurreta, beste askoen exenplu bezela.

1591'an, inglesak Doniane Loitzun'eko «St. Esprit» ontzia, 215.000 bakaillauez betea, arrapatu dute, Terranoba'tik etxera datorrela.

Inglesek ere, Martin D'Agerre'ri ontzia arrapatu diote 100.000 bakaillauekin Terranoba'tik zebillela.

1594'an, iru urte beranduago, Doniane eta Ziiburu'ko arrantzaleek barrabasadak egiñ dituzte inglesen kaltean, Europa'ko itxasoetan. Gero, inglesak Terranoba'n kulparik gabe dabiltzan giza-joeri, ordaiñak ematen dizkiete.

1606'an, holandesak (Rotterdam'goak) iru ontzi donostiar, koipez beteak, arrapa dituzte Kanada'n (Nouvelle France'ko inguruan).

1608'an, bi urte beranduago, Martin Darretche kapitan euskaldunak Dupont Grave jauna jotzen du Tadoussac'en, eta eritu ere bai. Laforador'en dago kai ori.

1624'an, Abenduak 7, Pierre Haraneder, Doniane'ko «Marie» barkuaren kapitanak dionez, Termnoba'tik datorrela, bidean, bi armatutako ontzi holandesek zekarren guztia arrapatu diote...

A \* \*

Terranofoa, Kanada, Groenlandia, iru oiek lurralde berriak dira, Amerika osoa foezela. Berria europarrentzako, alegia; bertan bizi ziran indioentzako zaarra zan Amerika osoa.

Euskaldunek izan ziran asiera-asieratik ara jo zutenak arrantzarako. Gerorago etorri ziran besteak. Emen ainbeste aitatutako Belanger, kanadatar jaunak, ala dio bere idaztian. Onela jarraitzen du berak: (159).

Arkeolojiatik, tokien euskal-izenetatik, indioen arteko euskal-itzeetatik, bertako jendearen arpoia-jotzeko modutik, gauza guzi oietatik ateratzen da euskaldunaren arrastoa Kanada'n.

Labe eta txabolen errestuak asko dira eta geiago billatzeko bide-an jarriak daude Kanada'ko jakintsu aztarlariak.

Ez da arritzeko, euskaldunak lenen etorri baziran, eurak euskeraz jartzea izenak emengo tokieri. Gerora etorritakoak, beste era batera izenak jarri arren, oraindik irauten dute euskaldun-kutsuzko izenak edo ta euskaldunak aitatzen dituzten izen-tokiak: Pointe-aux-Basques, Anse-aux-Basques, Ile-aux-Basques eta -abarrek... Euskaldunak indioekin euskeraz jardun izan zuten, euskera erakutsiaz; baita ere indioen izkera ikasiaz ere. Angoekin naastuta ibilli zirala esaten dutenak ez dira palta. Eta eskimaleen aita euskalduna izan zala esaten dutenak ere badira Kanada'n...

1689'an andik Euskalerrira etorri ziran, Baiona'ra, arpoiarien billa, ara eraman eta bertakoeri arrantzan erakusteko. «Euskaldunek erakutsia ondo erakutsia izan zan, noski; teknika ura oraindik dirau, batez ere Excoumins jendearen artean...»

Auek denak esaten ditun Belanger jauna, Kanada'ko semea da, Excoumins oien artekoa. Zer esaten duan badaki.

Gauza auek ala izan-da ere, politika-bidetik sartu zirari lurralde aietan In'glaterra, Prantzia eta Dinamarka. Iruen artean ango lurralde guztiak menperatu zituzten:

Kanada, inglesentzako;

Terranoba-ingurua, prantsezentzako;

Groenlandia, danesentzako.

Eta, euskaldunentzako, zer...? Espaiña'ko agintariak bazuten nun burrukan egiñ Mexiko'tik asi eta Ghile-raiñoko lurralde guztietan. Euskaldunak gelditu ziran beuren toki aietatik kanpora boteak. Kalean.

Protesta guztiak alperrikakoak izan ziran.

Bakoitzak bere aldetik egingo du burruka, eta indarrez; baiña, aizkenean, lan guztiak, burruka guztiak alperrik... Norberekeriak galdu gaitu beti. Bakoitza bere aldetik. Etxearen jaun da jabe. Barkuaren errege. Askatasunaren gose-amorrotua 'beti barnean. Ez gera sekula alkartu ezertako ere...

*Los vascos reaccionan recurriendo <d corso y asi les vemos en 1607 llevándose el barco «Le Jonas», del Gobernador, con 6.000 pieles de castor d bordo. La guerra está declarada abiertamente.*

*Los de San Juan de Luz protestan ante el rey francés por la ingerencia del Gobernador; y la de las grandes compañías que ha creado...*

*Reclaman una y otra vez la libertad absoluta para pescar y mercar por toda la costa del Canadá y la península de Acadia...*

*Al final todas las protestas fueron inútiles. Los vascos tenían la fuerza de la razón; pero otros la razón de la fuerza.*

*Los vascos siempre mantuvieron relaciones amistosas con toda clase de indios. Jamás pretendieron colonizarlos, ni tomar posesión de sus tierras...*

*Sin embargo, en 1610 los esquimales se enfadaron de verdad con nuestros pescadores. Enfado que duró más de un siglo y fue a muerte. Por culpa de los nuestros que raptaron a la mujer de uno de los jefes.*

*Esta enemistad que costó la vida a muchos de los que en tierra se dedicaban a la obtención de la grasa<sup>grasa</sup> fue ocasión para el capitán Martín de Sopita (Zubita), natural de Ziburu, inventara el sistema de fundir ( la grasa a bordo de las naves. jj*

Beste aldetik, foerriz, indioen askatasunari begirunea izan zioten foeti. Aien askatasunaren aurka ez zuten ezer egiñ, eta orrek goratzarrea ^merez du.

\* \* \*

1598'an, Prantzia eta Espaiña'k egin zuten alkarren arteko pakea (Vervins'ko) Ituna eta Nantes'ko Editoa, biak illabete aldeakin atereak, izan ziran pakearen asiera). Une artan amaiera eman zioten prantsezak anai arteko beuren burrukeari... (160).

Henri IV zan Prantzia'ko Erregea (Henri de Navarre); gaskoiña eta euskaldunen lengusua. Ameriketan, Guyene'ko Probintzian Gobernadore izana eta itxasoarekin oitua. Bazuan beregan itxasoko amasa eta euskaldunenganako begirune eta errespetoa. Bere Erreinoan ordena apur bat jarri naiean, ordezkoak bidaldu zitun Kanada aldeko inguru guzietara.

Ordezko auek, foere agintaritzaren medioz, ez zuten ordena jartzen bakarrik ekiñ eta askotan gertatzen dana gertatu zan an ere:' ordena jartzeko aitzakiaz menpekoen askatasuna galdu arazi... Artu-emanetan, sal-erosketan ba zan libertadea eta orixe galdu zan. Bitartean, euskaldunak andik bota eta inguru aien arrantzarako atea itxi...

Burruka zetorren.

Eun urte aurretik euskaldunek libertade osoan egin zuten arrantza San Lorenzo-ibaiaren ao zabal osoan, eta ez zuten gauzak foertan-feera utzitzeko asmorik.

1603'an, Henri IV Erregeak Pierre de Gua (Monts'eko Jauna) aukeratu zuan, Kanada-inguruetan, Prantzia'ko interesak defenditzeko. Akadia peninsulan, «Euskaldunen-Isla» dagoen lurraldean, bete bear zuan bere zaindaritza.

1604'an, Otsailak, 10, agintariak berak sortu zuan arrantza eta merkaturako konpañi bat. «De Monts» jarri zion izena.

De Monts Konpañiak, bere nagusi Agintariak zitun eskubideak artu zitun. Akadia'ko agintaria zan Pierre de Gua, Monts'eko Jauna, eta foere Konpañia ere Akadia'n nagusitu zan eta indioekin merkaturatu egiteko eskubide guztiak bere gaiñ artu, beste guztieri kenduta gero... Baifia, ez ziran Akadia'rekin bakarrik konforme gelditu. Gero, bere Jaunaren indarraren babesean, San Lorenzo ibaiaren ao-zabalean zabaldu zuten beuren agintaritza.

Baiona, Doniane eta Ziburu aldeko arrantzaleak ez zeuden batere pozik, eta Erregeari, kezka betetako protesta bat idazten diote. «Factum» du izena idazti orrek. Bertan esaten zaio Erregeari, berak bialdutako De Monts jauna, Akadia'tik Quebec (Kanada) aldera pasa ditula bere agintaritza eta eskubideak, beste guztien eskubideen kontra... 1604'an Lesquemens, Saguinay eta Tadoussac aldeko kaietara eldu dala... Buskalduneri oker aundiak egin diela, eta beste askoeri ere bai... Toki oietan ez dala kolonorik gelditu, bada-ezpadako lurak diralako edo eta ez dirala geidituko ere... eta toki aietan, eurak, euskaldunek pake santuan egin dituztela arrantzak betidanik... Gaiñera arrantza



ori iru illebeteen bakarrik egiten dala...

Eskariak auxe eskatzen du: Jaun orrek kendu ditzala beure ontzi eta gizonak Kanada eta Saguinay kosteetatik... (161).

Gipuzkoa eta Bizkaia'ko jendeak beste era batera jokatu dute:

1607'an, iru urte De Monts'en Konpañia fundatu ondoren, 6.000 kastor-narruekin zetorren Gobernadorearen ontzia, «Le Jonas» zeritzana, arrapatu diote Akadia aldetik:..

1609'an, «Factum» orren ondoren, beste eskabide bat bialtzen diote Erregeari Baiona, Doniane Loitzun, Ziburu, Urruiñe, Hendaya eta beste Lapurdi osoko agintari eta erriek: askatasuna eskatzen dute arrantzan egiteko eta merkatzeko Kanada eta Akadia guztian (162).

Erregearen erantzuna: baietz, baiña De Monts jaunari ontzi bakoitzeko, kargaren neurrian, ordaiñak emateko.

1620-21'an, Konpañia berri bat sortu da Caen'errian «Compagnie des Sieurs de Caen» edo «de Montmorency». Guillaume eta Emery, osaba illobak jarri zituzten Konpañiaren buruzagi. Biak protestante-hugonoteak ziran. Erljio-burruka itxuak aurrera eramatea beste pentsamenturik ez zuten beuren buruetan. Laister izan zuten euskaldunek ezbearra: Terranoba'tik zetozen Martin Sopite, Joannis de Arretche, Martin de Arretche, Miguel de la Ralde, Martin Dachepto (ziburutarra), Joannis de Laobillage (d'Arranbillage), Martin de Hirigoyen, Pierre Garat, Jacob Mucheron (Doniane'koa). Azaroa

eta urtea 1621. Arrapa zituzten Konpañi sortu-berrikoek eta Dieppe'ko kartzelan sartu euskaldun guztiak, Abenduaren 31'arte. Urte berriakin libratu dituzte; baiña, erabaki arte, ontziak eta arrantzak kendu dizkiete. Terranoba'tik zetozen bakoitza bere ontzian.

1622'an, Maiatzak 1, Erregearen agindua Konpañia Montmorency berriro eratu, eta lengo Akadia eta Kanada'ko «De Monts» konpañia zaarreko bazkideeri eskubideak eman konpañi berri onetan sartzeko. Nouvelle France'ko, euskaldunen-arrantza-lekuko merkatu guztia beuroren esku bakarretan uzten zien Erregeak, 15 urterako.

1622'an Apirillak 29: Erregearen agindua Caen'go Guillaume eta Emery'ren kontra: kendutako ontzi eta merkantzi guztia biurtu deiela Martin Sopite eta bere lagun kapitaneri... Gaiñera, 2.000 libra egindako okerragaitik.

1624'an, Apirillak 19, Doniane'ko Agintariak Erregeari eskabidea: kendu deiola Konpañia «Montmorency»ri eman zion eskubideak (osoak eman bait zizkion beste guzien kaltean) euskaldunen eta betiko eskubideen kontrakoak zirelako.

1624'an, (amasei egun beranduago), Mayatzak 4, Erregearen agindua «Montmorency» konpañiaren kontra, Doniane'ko eskabidea artu ondoren, emana.

Andik berrogeitamalau egun: 1624'an, Ekainak 27. Doniane'ko euskaldunek «Montmorency» Konpañiaren aurka egindako eskabidea ukatzen dute Paris'en (163).

Politikaren jokabidea orrelakoa izan oi da:  
lenengo eman, gero kendu; lenengo baietz, gero  
ezetz... Euskaldunek arrazoa, besteek indarra...

*it it -k*

Besteen merituak gutxietsi gabe (dio Belanger kanadatarrak) ordua da euskaldunak argitara ekartzeko; batez XVI'garren eunkian egiñ zuten lanagaitik. Urteero agertzen ziran, Udaberrian. Lenengo lana izaten zuten talai-gizonak mendi gaillurretan jartzea (Euskalerrian egiten zuten antzera). Gero, txabolak jaso eta bakaillaua eguzkitan legortzen jartzeko egurrezko tresna bereziak. Ez ziran lur-billa zebiltzen esploradoreak, ez eta lurrearen jabe egiñ nai zuten kolonioak. Naiz eta, lenguaiea ikastearren, negua batzuetan bertakoekin igaro, beuren saioak udarakoak izan oi ziran bakar-bakarrik. Gauz auek bide dirala, bertako indioekin artu-emanetan jarri ziran asiera-asieratik adiskidetasun ederrean, eta lagun bezela iraun zuten, eurakin narru-tratoan; burnizko tresnak ekartzen zituzten narruen truke... (164).

Eskimalen aita euskalduna izan zala dioten idazleak badira Kanada'n bat baiño geiago. Alaz ere, 1610'an oso asarratu ziran alkarrekin eta asarre orrek eun urte iraun zuan (XVII'garren eunki guztian, alegia). Burruka-asieraren errua euskaldunak izan zuten, eskimal buruzagi bateren andrea arrapatu zutenean. Eta erru ori ez zieten eskimalek euskalduneri sekulan barkatu (165).

1635 urtearen inguruan, euskaldun Martin Sopite kapitanak, bale-koipe ontzi-barruan, barkuan bertan alegia, urtutzeko labea asmatu zuan. Arrisku aundia zan, barruan koipeak urtutzea; baiño, legorrean egiteak arrisku aundiagoak zekarren eskimalen asarreagaitik. Bale-Baya portutik beera, egoaldera zebiltzan euskaldunak, Labrador partetik, eskimaleen erasoak jaso bear. Indioek euskaldunen txabolak erre eta bertan lan egiten zuteh gizonak iltzen zituzten... Ortik sortu zan, itxas-ontzietan bertan, koipeak urtutzeko oitura eta era (166).

Arrisku berbera jaso bear zuten bakaillaua sikatzen zebiltzetanak. Orregaitik, aal zutenean, erri-esiz inguratzen zituzten lan-tokiak. Edo, bestela islatxo bat aukeratu, edo defenditzen errezak ziran kaiak aukeratu.

\* \* ● \*

Artxiboak azartu ditut (dio Belanger kanadatarrak) eta iturriak uste baiño ugariagoak dira (Doniane Loitzun'en); Espaiña'koak, berriz, ez dira oraindik agortu.

Terranoba'ko paper zaarrek «español»-ontzia esaten dutenean, geienetan «euskaldun» esan nai dute, Bizkaia edo Gipuzkoa'ko ontziak, alegia. «Euskaldunak» diotenean, berriz, ez da garbi ikusten zer muga-aldetako euskaldunak diran (167).

## BESTE ERRI ASKOREN MAIXU

Euskaldun arrantzaleak Terranoba, Kanada eta Groenlandia'ko bideak ibilli oi zituzten. Bada, oso goian, Polo Artikoaren inguruan, isla multso bat, Spitzberg izena duna. Terranoba ingurutik balea alde egiten asi zanean, orduan, oso berandu, arkitu zuten Spitzberg.

Alaz ere, 1613'an, Spitzfeerg'erako bidean ziran bi Doniane Loitzun'eko ontzi: bata «La Grace de Dieu», 600 toneladakoa, oso aundia, Miguel Haristeguy kapitana, eta bestea «Les quatre fils Aymon», Miguel d'Etcepare kapitanaren ardurapean.

Euskaldunek arrantzan, foatez ere foale-arrantzan zebiltzen artean, beste nazioetako itxas-gizonak lur-berri-billa zebiltzen, esploradore, gero lur oiek menperatu eta kolonizatzeke.

Baiña, lan orretan dabiltzala, euskaldunen jarduna ikusi zuten. Kutiziak eraginda, eurak ere arrantzan asin ziran. Orduan, Spitzberg'era joanik, arkitu berri zuten-da, probetxurik ateratzen ez zuten, lana ondo egiten ez zekitelako (168).

1578'an, arrantzaleak bide berrietan zebiltzela, jo zuten Spitzberg'era. Urte orretan edo ondoren, ingelesak Doniane Loitzun'eri laguntza eskatu zioten; bialtzeko Ingalterra'ra, alegia, bale-arrantzale iaioak, maixu bezela, erakustera. Ingalterra, Holanda eta Dinamarca'ra joanak omen (169).

Holandesak euskaldunen aotik ikasi zuten Groenlandia'rako bidea, Davis itxas-sarrera estua, baleak arrapatzen, saina urtutzen eta koipea fintzen, (170).

XVII'an 50 edo 60 ontzi euskaldun joan oi ziran Groenlandia'ra bale-arrantzarako. Holandesek ere nai izan zuten aberastan ura aprobetxatu; orretarako euskaldun arpoiJariak eta txalu-

## MAESTROS DE OTRAS NACIONES

*Aunque nuestros pescadores preferian el Golfo para pescar, Groenlandia les era familiar y ya en 1613 los vascos hacian las rutas de Spitzberg, grupo de islas al Norte de Groenlandia.*

*España y Portugal exptoraban toda America, dejando a las demds naciones solamente el extremo Norte. Por el enviaron estas a sus exploradores, buscando por los hielos un camino hacia China. No lo encontraron; pero si mucha pesca que estaba enriqueciendo a los vascos.*


*Ingalterra, Holanda y Dinamarca deciden aprender el oficio baltenero y reclaman del Pais Vasco arponeros y maestros de chalupa, las dos piezas importantes.*

*El primer capitdn ingles, Jonas Poole, sale para la baiiena en 1611 y lleva a bordo tres arponeros y tres patrones vascos. Los seis muy hdbies en su oficio.*

*Los holandeses aprendieron de los vascos et camino de Groenlandia, el paso de Davis, la pesca de la ballena, el derretido de la grasa y su purificacion.*

*Las grandes Compañías que han creado ingleses y holandeses llevan en sus barcos, además de arponeros y patronos de chalupa, otros expertos en el fundido y purificación de la grasa...*

| *Mientras tanto, se imponen severos*  
| ^ *castigos que impiden esta evasión*  
| J \ *de brazos y cerebros del País; pero*  
| *Apuede mds el reclamo de las Com-*  
| *pañías extranjeras y la avaricia per-*  
| - *sonal...*  
V' ^ *Las prohibiciones se suceden duran-*  
| | *te en el ss. XVII y el XVIII. Todo serd*  
| | *vano...*



*Estas grandes Compañías que aprendieron de los vascos el secreto de la ballena, contribuyeron, además de las razones políticas, a la ruina de*  
| ^ *la pesca multiseccular...*  
*Los ingleses exploran y colonizan las tierras en cuyas aguas pescan los vascos.*  
*Cuando ellos han aprendido a pescar, empiezan a poner impedimentos a la acción de sus maestros.*

Autoridades *politico-militares, grandes Compañías balleneras y otras comerciantes, todos hacen la guerra*  
^ *a los pescadores vascos, que actúan cada uno por su cuenta.*

*Para colmo de males la ballena, perseguida sin descanso en el Golfo del San Lorenzo, huye a mar abierto, a la zona de Groenlandia y Spitzberg. Inglaterra se opone a que*

pa-maixuak eraman zituzten beurokin, kapitana aiñeko guztia bere mendean jarriarik (euskaldunen mendean, alegia) (171).

1927'an PYSBE'k bretoinañ ekarri zitun Euskalerrira, ba-kaillau-arrantza erakustera. Auek ere, kapitana aiñeko guztia, benren mende artu zituzten.

1611 'an bialdu zuan Ingalterra'k lenengo aldiz, bale-arrantzarako barku bat. Jonas Poole zan kapitana eta berekin iru arpoilari euskaldun eta beste iru txalupa-maixu, euskaldunak auek ere, eraman zitun. Seirak oso iaioak (172).

1611'an «Compagnie de la Moscovie» zeritzan bale-arrantzarako ruso-ingles elkarteak sei arpoilari euskaldun eraman zitun Doniane Loitzun'etik. Auek ziran arpoilarien izenak: Jean de Bagnone, Jean de Aguirre, Martin de Karre, Marsene de Morizada, Dominique de Sarria eta Adan de Bellecke (173).

1612'an, Holandar Muyden jaunak amabi euskaldun daramazki bere ontzian Spitzberg'era: iru arpoilari, iru txaiupa-maixu eta sei gizon balea ebagi eta seinu urtutzeko (174).

1612'an, Spitzberg'en ingles barku bakoitzean amabi euskaldun zeuden: iru arpoilari, iru txalupa-maixu eta beste sei balea maneatzeko (175).

1614'an auxe, idazten du A. Thomazzi jaunak: Ifarraldeko itxasoetarako bale-ontziak prestatu zituztenean (holandesek) euskaldun asko («grand nombre des Basques») ekarri zituzten arraiñ-aundien arrantzarako (176).

1616'an Ingalterra eta Holanda'k ez zuten probetxu aundirik atera bale-arrantzatik eta Gipuzkoa'ra idazten dute laguntza eske (177). Merkatarien bidez, arpoilari, txalupa-maixu eta mariñelak erbestera iges egiten zuten, euskaldun agintariak ori oso debeatuta euki arren.

Debebatze ori aurretik zetorren.


1608'an, Errenderia'ko Sindikoak eskabide au egiten die Agintariari: euskaldunak estranjeriako ontzietan enrolatzea debeatzen duan agindua bada, eta bete bedi (178) (Colección Vargas-Ponce).

1613'an, Martzoak 22, idatzitako karta bada Martin de Arostegui sekretarioak idatzia (Coleccion Vargas-Ponce). Karta orretan, ingles-bale-barkuekin itz emanda dauden mariñeleri, bere asmoa foete aal izan ez dezaten, eragozpenak jartzeko baimena ematen du.

1614'an, Martzoak 4, Naparroa,ko Agintari Nagusiak Handes, Holanda eta beste estranjerietako bale-ontzietan mariñel euskaldunik enrolatzea debekatzen du. Eriotza zorretan agindua betetzen ez duanari...

*los vascos suban hasta alli; pues ella domina aquellos mares... Ingleses y holandeses unidos arremeten contra nuestros hombres...*

*Como remedio, se intenta crear tambien aqui grandes Compañias balleneras; pero el intento no pasa de la creacidn de sus oficinas correspondientes...*



1614'an, Martzoak 9, bost egun beranduago, Mutriku'ko alkateak, eriotzaren zorra leguntzen du: 50.000 marafoedikoa izanen da zorra eta zigorra, gaiñera lau urte arraunean jardun bearko dute soldatarik gabe... (179).

Euskaldunek etxe-kalte ibilli ziran, euskalerrietako bale-arrantza era bat ondoratu arte:

«Txin-txin txin-txin  
diruaren otsa,  
orrek ematen dio, maitia,  
biotzean poxa...»

Diru-zaletasuna aundiagoa beste arrazoi-bide guztiak baiño. «Bakoitzak berea...» «Neu ondo izan ezkeroz, bestdak, or-konpon...»

Gero, ondorenak, alakoak.

Eun urte geroago ere, oraindik euskaldunek estranjerietako barkuetara jotzen zuten.

1728'an, Abenduak 18 eta 1729'an, Abenduak 10, Erregearen aginduak datoz berriro, debeku zaarrak berritzen.

1732'ko notiziak daude Ondarrabia'ko artxibuetan. Bertan esaten digutenez, kapitan, txalupa-maixu, arpoilari edo mariñelak estranjerietako ontzietan joatea, ori askoetan debekatu zala... (180).

Euskaldunek arrantzan zebiltzan artean, beste nazioak lur-berri-billa zebiltzen, esploradore. Au aurretik agertuta daukagu; baiña, xeetasun geiagoz esan ditzagun gauzok.

1492'an, Kolon'ek Ameriketako lurak argitara ekarri zitun.

1493'an, urte bete beranduago, Alejandro VI'k, Maiatzaren 4'an, mundua bi zatitan egiñ eta bata Espaiña'ren eskuetan eta bestea Portugal'enetan jarri zitun bi zatiak.

Ez ziran ingles eta holandesak gustora gelditu mundu-banatze orrekin. Errespetoa bazuten, ordea, bildurra ez-ezik eta, beartuta bazan ere, onartu zuten erdibitze ori.

Erdibitze orren barruan sartu ez baziran, bere egaletan ibilli ziran, orratio.

1497'an Txina'rako beste bide berri baten billa asi ziran ingles eta holandesak, Ifarraldetik.

Baiña, izoztutako itxaso aietan ez zuten biderik arkitu. Ez eta beste ezer onik ere. Ori bai, euskaldunak arrantzan, orixe aurkitu zuten paraje aietan. Bale-arrantzan, alegia.

1578'an, ia eun urte beranduago, billa dabilzetela, Groenlandia'kin topo egin dute... Egin-alak eginda ere, Txina'rako biderik ez zan arkitzen iñundik. Izotza lurretik, izotza itxasotik... Geiago, zer...? Narruak eta arraiña. Orra bi gauza.

Ingleseri buruz ari gera.

Besterik ezean, narru eta arraiñaren billa astea erabaki zuten. Ordukoak dira inglesen euskaldun-ondoren ibilli-bearrak.

Holandesekin beste orrenbeste gertatu zan: Txina'rako bidean dabilzetela, Spitzberg'era eldu dira (181).

XVI eunikiaren azken-aldera Terranoba'rako joera moteltzen asi zan Gipuzkoa eta Bizkaian.

Arrazoiak? Bat foaiño geiago, beti oi dan bezela mundu onetako arazo guztietan.

1598'an il zan Espainia'ko Felipe II erregea eta nazio guztia argalduta zebillen. Alde batetik petxa aundiak jaso bear zitun arrantza onek; bestetik, berriz, ontzi eta gizonak erregearen serbitzurako eramaten zituzten... (182).

Etxean oiek orrela zirala, etxetik kanpora, itxasoetan burrukak eta konpetentzia nun-nai.

1585'an Rouen'goak asi dira Terranoba bidean, narru-merkatuako «bretoiñek eta euskaldunek aspalditik egiten zuten antzera...» Erri bat geiago, konpetentzirako.

1607'an, San Lorenzo ibaiaren txoko guztietan (euskaldunek ain maite zituztenak eun urte aurretik eta gero ere) sartu dira holandesek (183).

•Burruka eta konpetentzia alde guztietatik.

Beti bezela, euskaldunek bakoitza bere aldetik dabill. Ingles eta holandesak, berriz, alkarte aundiak sortu dituzte bale-arrantzarako, aberastasun arreri zegokion eran. Aberastasun aundiak ikusi bait dituzte euskaldunen eskuetan...

Ordurarte euskaldun bale-arrantzaleak askatasun osoan ibilli oi ziran, beuren arrantzak nai zituzten lekuetan egiten. Baiña, Konpaiñi aundi auek agertu ziranean, lenengo-ta-bat, lurraren jabe egiten ziran, erregearen izenean eta serbitzurako. Beiñ

lurraren jabe egiñ ondoren, bere nagusitasuna agertzen zuten itxasoan ere...

Akadia'ko Gobernadoreakin izan zituzten burrukaldiak ikusi ditugu. Aurrerantzean euskaldunentzako Ingles, Holandes, Ruso eta Dinamarca'ko ontzi-konpañi guztiak sortuko dituzte ezbearrak eta eragozpenak. Euskaldunek erakutsi zieten arrantzan eta ikasi eta gero, euskaldunak kanporako izan ziran. Toki guztietatik bota zituzten. Euskaldun salatarien jokabideak ez zitun ondorio ederrak ekarri Euskalerrarentzat...!

Eragozpenak sortu ala, kutizi aundiagoa Euskalerritik kanpora joateko: estranjeritik jasotzen bait zituzten irabazi errezenak. Beste aldetik, berriz, zenbat eta euskaldun geiago estranjerira joan, ofizio erakustera alegia, ainbat eta gauzak estuago euskaldun arrantzaleentzat...

Zulo orretatik atera eziñ. Emen gaizki gaudelako, kanpora joan; kanpora joanakin bertokoa gaiztotu...

Gauzak okertzen asten diranean, erabat okertu arte ez dira gelditzen. Eta, euskaldunen arrantza-arazoa okertzen asita zegoan aspaldi.

Balea bera ere euskaldunen artetik igesika asi zan. San Lorenzo-ibaieko kaietatik eta ingumari guztietatik alde egiten du itxaso zabalera. Itxaso aiek, orde, ingles eta holandesen eskuetan zeuden. Groenlandia eta Spitzberg eurak arkitu izan zituzten; lurraren jabe egiñ ere...

Euskaldunen laguntzarekin, bale-arrantzarako eratu ziran, Lagunarte aundiak eraiki ere artarakoak. Gero Konpañi oiek nagusi egertu

ziran eta beste, arrantzale guztieri eragozpen gogorrak jarri ere. Baleak Terranoba'tik alde egitea eta ingeles-holandes-danesak bale-arrantzan astea, bi gertakizun oiek batera izan ziran eta oker aundiak ekarri zien euskalduneri...

1612'an itxas-ontzi euskaldun bat eldu zan Groenlandia'ra (70° 30") eta an ikusi zutena, ikustekoa zan: balea zegoan itxasoa estali.

1613 'an, urte foete beranduago, berri onak azkar zabaltzen dira-ta, Donostia'tik bertatik amar ontzi abiatu ziran Groenlandia'ra. Beste kaietatik, besteak... Holandes eta prantsezak ere baziran, bale-ugaritasunaren deiara joanak. Baiña, «Moscovia-Company», bi urte aurretik arpoilari eta txalupa-maixu euskaldunak eraman zitun konpainiak, zazpi gerra-barku aundi bialdu zitun Spitzberg'era, Groenlandia'ra. An zebiltzen bale-ontzien tresna eta koipeak kendu eta bota zituzten andik. «Moscovia Company» inglesa zan, rusoeekin bat eginda.

1614'an, amalau bale-ontzi holandes, iru gerra-barku lagun zituztela, etorri ziran Spitzberg'era eta ingelesek pasatzen utzi zieten. Euskalduneri, berriz, ez.

Aurrera ez zan geiago pakerik izango. Gerra itxaso guztietan. Gure koplak zarrak emen du bere giro egokia:

«Jeiki! Jeiki! Euskaldunak  
laister dator eguna,  
laister dator eguna.  
Sorkaldetik ageri da  
holandesar oiala...»

1631'an, Gipuzkoa eta Bizkaya'n bakaillau-arrantzaleentzako beste oker au sortu zan: gatzaren prezioa bi errealetik amabira igo zan bat-batean. Gipuzkoarren protestak sonatuak izan ziran...

\* \* \*

Bitartean zer egiten zuten agintari euskaldunek? 1613'an. Azaroan, Junta Jeneralak Mondrago'en bildu ziran eta andik karta bat bialdu zuten Madrid'era aurretik eta ondoren Juan de Erauso, donostiar kapitana «Moscovia Company» alkarteak egiñ zitun kalteak agertuaz eta Gobernuaren indarra eskatzen zuten Ingalaterra' ren aurrean... Erauso bi urte oso Madrid'en pasa ondoren, Donostia'ra biurtu zan ezer onik lortu gabe (184).

1628'an beste nazioak Alkarte aundiak sortzen zituztela ikusirik, Madrid'en bildu ziran persona batzuek Konpañia bat eraiteko edo jasotzeko... Bilbao eta Donostia'n izango zitun bere «Camara General de Administtacion»... Barkuak baiño leen, ofizinak. Asmo utsetik ez zan pasa (185).

Doniane Loitzun'en ere sortu zuten «Compagnie de mer Sant-Joan-de-Luz». Nagi ifoilli ondoren, 1648'an beste Ifarraldeko (Prantzia'n) elkarte batekin bildu zan eta foat egiñ zuten. Paris'en zuten biotza eta ardatza. Prantzia'ko Gobernuak baimena lortu zuan Dinamarka'ren aldetik, ontziak Groenlandia'ra joateko. Baiña, ez zuten ezer onik egiñ halandesek bale-koipea merkeago saltzen bait zuten Prantzia'n, bertako ontziek ekartzen zutena baiño... (186).



R

SPITZBERG'EKO ARTZA ZURIA

Pillotuak kapitanari:

—Legorrera goaz; etorri nai badezu...?

—Zertara zoazte...?

—Denfoora pasa. Gaur jai-eguna eta zure baimenarekin egurastera goaz. Spitzfoerg'eko lurraldeak ikusi eta oiñ-azpian zapaldu nai...

—Ez dakit lurrik zapaltzerik izango dezutenik. Emendik, izotza ikusten da or ugari...

Zakari eta beste iru lagunek txalupa bota dute uretara. Itxaso nafaor dagi. Uraren gainean izotz-zatiak; etxekoandreak larrainean zafaldutako lixubea dirudi. Edo gaztai zati zuriak... Zeru-zapaia, urdiñez...

Arraunean dijoaz. Gazteak dira eta indarra gañezka dute. Lau gizonen txalupa, gazta-zatien arteko txingurria.

Aurrera doaz.

Barrenean, ondartza. Legorrera dira eurak eta ontzia; ez bait dago nun loturik...

Beste gabe, abiatu dira legorrean barrura.

Lenengotik, zelaigunea. Aurrerago, muiñotxoak. Zeru-urdiñ-azpian mendi-tontorrak, elurrez: aitz-gorriak, zuri...

'i -k rk

Izotzetik at zer ikusirik ez bada ere, lurralde berrkk begiekin ikusteak badu bere sorginkeria...

Uste-gafoean, lau ordu igaro dituzte sentitzeke.

Munduaren Ifar-muturreko eguna, luze... Gau-erdian ost-osta izkuta oi da itxaspean eguzkiaren bola gorria.

R

EL OSO BLANCO DE SPITZBERG

*Los bacaladeros de la P.Y.S.B.E. tambien subian por Groenlandia y Spitzberg.*

*Una mañana limpida, el primer piloto y tres compañeros mds, arrian un bote para desembarcar en tierra. Dejaron la lancha varada en seco junto a la orilla...*

*Peaueñas lomas recubiertas de hielo. Todo paisaje nuevo tiene su embrujo y embrujados pasaron las horas, hasta que tras un montículo aparece a la vista un oso blanco.*

*Corren hacia la lancha y se les abrieron los ojos de espanto: había bajado la marea y el bote estaba a cien metros del mar...*

*Los cuatro a una empujan la lancha hacia el agua. La competencia es epica y un duelo a muerte.*

*Las zancadas del oso se sienten cada vez mds cerca. ¿Llegardn al mar antes que el oso a ellos? Con sus prismáticos el capitán desde el barco asiste a esta competencia extraña entre sus oficiales y el oso. Ni han llevado armas; ni han tenido en cuenta la marea.*

*Ya sienten en sus nuca el aliento de la bestia, cuando consiguen meter la proa en el agua.*

—;Menos mal! —grita en el barco el capitán.

*El oso tos sigue en el agua y esto será su perdición. Desde el barco lo matan a tiros. Peso 800 kilos y su piel se exhibió en Pasajes.*

—(Lo pasasteis mal? —le pregunto al piloto.

—Figurate, Hubo **un** momento en que estuve a punto de dar la orden de volcar la chalupa y meternos dentro...

—Y al subir la marea... ¿ique?

—Aizak, i, emen Bilfoaoko ArenaPeaño baño estropozo gutxiago egiten ziauguk alkarri...

—Bai, gizona, gure Soraluze (Plaentzia) lur-erpiñak aiñeko zabalera bazegok emen...

—Ez dok kristauren arrastorik ikusten... Ez dok emen kristaurik bizi...


—Ez kristiñau eta ez jentill...

\* \* \*

Bat-batean izotz-muiño baten atzetik, tonelada bateko artza

« \* \* \* »

Cjurre gizonok ez dute eurakin armank, ez aundi eta ez txirikirik. Esku utsik daude.



Zer egiñ... ? Anka-jokoari eman. Ariñ-aringa, korri-korrika, salta saltaka... itxas-aldera, txalupa-billa. Beuren salbamen-portua... txalupa da.

—Txalupara, guztiok! Pillotuak agindu.

Arnas-estuka ondartzara eldu diranean, biotzak salto barruan, lertu bear: txalupa, ur-ondoan utzi dutena, itxasotik urrutian dago.

Marea-beeran, itxasoak alde egiñ du urrutira.

Barkutik kapitanak lau txingurri-beltz-txikiak ikusten ditu an, legorrear, laisterka ipurdia galdu bearrean, itxasoruntz.

—Zer ote dute...? Txo...?

—Zer, jauna...?

—Begira egiok ara... Zer ikusten dok...?

—Laisterka dabiltzala...

—Ekarrrik aintiojuak.

Bista-luzekoak artu ditu:

—Arranoa...! Artza dakarte beuren atzetik...

Artz aundi-zuria... Tonelada bat gutxienez bada... Begira egiok ara...

Aurretik gizon beltzak; atzetik artza zuria.

—Sekula orrelako ariñ-aringarik...! Berreun metro ez daude bien artean...

—Gizonak ariñagoak dira.

—Ez dot usten. Anka-jokua ariñagoa da gizoneena; baiña, artzen pausoak, luzeago...

—Txalupari eldu diote. Baiña, itxasotik aparte daude... Arrapako ditu artzak. Ezbearra galanta

danontzat, arrapatzen baditu...

Eldu diote txalupari danon artean. Baiña, nekez daramate aurrera. Pixua ere bai. Ondar gaiñeko lorketa neketsua da.

Geure mutillok gaiñera zetorkien artzari emana zeuzkaten begiak. Beso eta bernetako giarrak, txalupari. Eten-bearrean; baiña, etenik izateko astirik ez.

Izardia bekokian.

Izardian galtzarpeetan.

Izardia gultzurrunetan.

Lepoan, eztarrian, asku-muturretan, txorkatilletan... Nun, ez...? Gorputz osoa, blai.

Eztarriko zaiñak leertzeko eran:

—^Danok batera: Eup...! Eup...! Eup...!

Eupada bakoitzeko txalupa metro bat aurrerago:

—Eup, eup, eup, eup, eup, eup, eup, eup, eup, eup, eup, eup, eup...!

Eupadak gero eta estuago. Geroz eta larriago:

—Eman, mutillak! Eup, eup, eup, eup, eup, eup, eup, eup, eup...

Larritasuna, indar-iturri gerta oi da:

—Jo aurrera! Ura bertan daukagu. Eup, eup, eup, eup, eup, eup, eup, eup...

Barkutik kapitana begira eta larri:

—Arrapatuko ditu... Gaiñian da... Ene...!

Txalupak ura ikutu du. Artzaren lurriña, gizoneen kokotean. Txalupa uretara eta artza berarekin batera.

Bi arraunlariek arraunean eta beste biak  
arraunakin artzari buruan...

Artzak bere indar guztiak galdu diru uretan. Alaz  
ere, txalupari darraikio...

—Estropadak oraiñ, berriz... anka-laisterketaren  
ondoren... Txo, artu fusilla eta egon erne!  
Kapitanak bere pillotuari, bigarrenari.

—Eta, zer...!

—Artza gerturutzen danean, eman buruan...

Gizonak lasaitu dira. Irripar zabala aoan. Uretan  
geiago dira eurak artza baiño.

Piztia, txaluparen ondoren. Barkura gerturatu  
dira...

—Pum! Pum! Pum!

Dar-dar animaliak. Ille zurietan odol-ariak gorri...  
Ura gorritu da artzaren inguruan... Artzaren  
azkena.

—Larri ibilli zerate!

—Bai.. Bi segundorik ez zaigu sobra...

—Ez dozute mariarik kontuan artu... ?

—Ez genduan uste orrelakorik... Une batean  
zalantza bat izan dut...

—Zer zalantza...?

—Txalupari buelta eman eta gu bertan  
gordetzekoa, azpian...



—Eta, marea-goran...?

Narrua zan zuri-aundia... Ederragorik eziñ...  
Pasaia'n eduki zuten erakusteko, begien pozgarri.

RR

## G A I Ñ - B E R A

XVI'garren eunkiaren aizken-aldera euskaldunentzako gauzak okertzen asi baziran, okerrago joan ziran ondorengo XVII'garren eunkian. Eunkia osoa gain-foera bat besterik ez zan izan bale eta foakaillau-arrantzarako.

Prantzia'aldeko euskaldunak, zenfoait gauzeetan, suerte obea izan zuten. Esate foaterako gatzaren arazoan: 1613'an gipuzkoar eta bizkaitarrentzako gatza biretik amabira igo zitzairen prezioa; Doniane ingurukoak, berriz, merkeago erosten zuten Prantzia'n. Eskimalek sortu-arazi zituzten eragozpenak ere, gipuzkoar eta bizkaitarrentzako ziran bakarrik; besteak ez bait ziran Labrador aldera joaten.

XVII'ren asieran, gauzak arrantza arazoan, beeraka joan arren, Ifarraldeko euskaldunek, orain dik 50'tik 80'ra ontzi bialtzen zituzten Terranofoa'ra, 3.000 gizonezkoekin.

1631'an, gatza galeztitu zan urtean alegia, onela zioten donostiarrek:

Prantzia aldeko euskaldunek Terranoba'n aberastu zirala; beuren erregeak ez zietela petxarik jartzen; lagundu, baizik. Loitzun, Ziburu eta inguruak ogei urteen fouruan 25 etxetik 500'ra pasa zirala. Eta, urte orretan, Doniane kaiatik 1.200 gizon atera zirala Terranoba'rako. Portu orretatik, bakarrik.

Bost urte beranduago, 1636'an, Prantzia eta Espaiña'ren arteko burruka zala bide, Loitzun'eko ontzi asko arrapatu eta ondoratu zituzten. Ortik etorri zan ango ondamendia.

1685'an, 18 ontzi bakarrik zeuden Doniane'ko kaiean eta 721 arrantzaile, foesterik ez (187).

Giputzak eta lapurtarrek alkarrekin pakean ifoiltzen alegindu ziran, foeuren gainetik gerra egon arren. Eta, orrela gipuzkoarrek beuren erregeari eskatzen diote, Lapurdikoek Gipuzkoara koi-

RR

## CUESTA ABAJO

*Las dificultades para nuestros pescadores empiezan al final del s. xvi, y se van acumulando durante todo el s. xvii. Los vascos del Norte han tenido siempre un poco mejor suerte.*

*Asi en 1631 para Guipuzcoa y Vizcaya el precio de la sal sube de dos a doce reales; mientras en Francia es mds barata y para San Juan de Luz la epoca es esplendida...*

*Para ellos el mal lo trae la guerra entre Francia y España desde 1631, a pesar de que Laburdi y Guipuzcoa procuraban mantenerse en una mutua paz, incluso por medio de tratados mutuos, llamados «concordias» o «convexas».*

*La suerte de estas concordias fue muy diversa...*

*Asi en 1653 las dos orillas del Bidasoa unieron sus esfuerzos en busca de la paz; pero, al año siguiente, Paris dio por bueno el corso contra los guipuzcoanos.*

*Mientras tanto las cosas en Canadá empeoraron, sobre todo para los vascos del Sur.*

*Los del Norte tenían su apoyo en Paris que disponia de un Gobernador en Terranova.*

*No obstante, en 1661 los pescadores de San Juan de Luz y Ziburu se quejan al rey contra el Gobernador de Placentia en Terranova, exigiendo una absoluta libertad para pescar y mercar en aquellas aguas y tierras.*

#### EL PUERTO DE BILBAO Y EL BACALAO

*Desde 1598 Bilbao pretende todo el mercado del bacalao para si por medio de su Consulado, que fue pieza fundamental para el desarrollo del comercio marítimo en nuestras costas, pues todo el comercio con America del Norte se hacia a traves de el.*

*Durante el s. xvii todo barco vasco recibia el nombre de «vizcaino».*

*En 1625 hay una real orden por la que toda clase de barcos, incluso extranjeros, puedan libremente llevar sus cargamentos a Bilbao. Con esta ocasion ingleses y holandeses median de contrabando toda clase de mercancías.*

*I Otro mal para la pesca fue la constante requisita de balleneros para la armada. Desde 1639 al 1649, el rey Felipe IV prohíbe esa requisita; pero el remedio Uega tarde. La pesca de la ballena agoniza y en 1686 está prácticamente convertida en pesca del bacalao en Terranova, a donde a duras penas podían Uegar gracias a las «concordias» con los de Laburdi.*

*Las dificultades aumentaban al Uegar a Terranova, donde el Gobernador de Placentia los mandaba detener. Esto dio por resultado el que los barcos guipuzcoanos tomaran capitanes de bandera francesa...*

peak eta arraiñak ekartzeko baimena; eta berdiñ, emengoak ara eramateko (188).

Prantzesek ez zuten erabaki ori ontzat artu eta Terranoba'tik zetozten ontzi egoaldeko euskaldunenak arrapatu zituzten.

1653'an, bederatzi urte beranduago, egoera negargarri orre-ri amaia emateko, Bidasoa ibaieko bi aldeak alkartu ziran pakearen billa, eta pakea lortzen zan bitarte guztian, alkarren artean libertade osoan ifoilli aal izateko.

Baiña, urrugo urtean, 1654'an, La Rochelle'ko gerra-barku batek, Terranoba'tik zetorren gipuzkoar koipez betetako bale-ontzia arrapatu eta La Rochelle'ra araman zuan. Erregeak, ordea, ontzia beuren jabeeri biurtzeko agindu zien.

1655'an, berriro, La Rochelle'koak beste gipuzkoar ontzia arrapatu zuten; eta Erregeak, ontzat eman. Gaiñera beste au ere egiñ zuan erregeak: lapurtarrek Gipuzkoako ontzietan enrolatzea debekatu (189).

«V / V «V

Bitartean Terranoba-inguruko Nouvelle France'ko agintariek egunero geroz eta bearkizun geiago zituzten. Bearkizuneri aurpegia emateko narru-tratoari eldu zioten. Kanpotik tratora zetoztenari, eta bertan ordena apur feat jartzearen ere, Labrador'en Gobernadore militarra jarri zuten. Une artan amaitu ziran arrantza-librearen egunak. Andik aurrera, Kanada'ra euskaldunek, edo gerra-barkuekin, edo bertan gelditzera joango dira.

Gauzak orrela zeudela, 1661'an, Doniane eta Ziburukoak, beste lapurditarren izenean, Louis XIV'ari idatzi luze bat egiten diote, Plaisance (Placentia)'ko Gobernadorearen kontra (aurreko urtean izendatua) eta bide batez, beurok beti izan duten arrantzarako askatasuna eskatzen diote. Koipea eta bizarrak saltzeko askatasuna. Plaisance'ko portuan sartu-irtenak askatasun osoan egiteko betiko eskubideak, gizaldietan zear izan dutena... (190).

Prantzia'ren mende zeuden euskaldunentzat orrelako eragozpenak sortzen baziran, kontuak atera beste euskaldunentzako nolakoak ez ziran izango.

## *BAKAILLAUA ETA BILBAO'KO PORTUA*

Atal oneri amaiera emateko eman dezagun emen Bilbao'ri buruzko foerri bereizi batzuek.

Balea eta balearekin batera, bale-koipea urritzen zijoazten bezela, ugaritu zan bakaillau-arrantza. Aundia paltatzean, txikiari eldu bear.

1658'an, Bilbao'k bakaillau auek beretzako nai zitun, eta Doniane Loitzun'eko ontziak bertara etorri aal izan zezaten, artarako bear ziran baimenak eskatu zitun. Berez, barku oiek Donostia'ra jo oi zuten; Bilbao'k, ordea, euskal-kostalde guztiko ontziak bereganatu nai zitun.

Bilbao'k bazuan Consulado de Bilbao izeneko elkarte. Garrantzi aundiko elkarte: Ifarraldeko Amerikakin bere bitartez egiñ oi ziran trato guziak. Consulado ori medio zala, Euskalerrietako ontzi guztiak nai zitun bereganatu, naiz eta beste kai guztien ondamendia asmo orretarik sortu.

Donostia, Pasaia eta Ondarrabia'ko bale-ontziak koipea Bilbao'ra eramateko oitura bazuten; baiña, orrekin bakarrik etzan Bilbao konforme. Guztiak foeretzako bakarrik.

1625'an (Urrillak 20) Erregeak agindu eman zuan Biibao'ren alde. Barku guztiek, naiz eta prantzesak izan, Bilbao'rako sarrera libre zeukaten. Bakaillau aitzakiarekin Holanda eta Ingalaterra' 'tik beste jenero asko ere sartu oi zan azpi-jokuz eta azpikeriz.

Consuiado de Bilbao onek itxas-merkatua ugaritu eta zabaldu zuan, bere menpean eta aita Lhande jaunak dionez (L'Emigration Basque liburuan) XVII'garren gizaldian, «Bizkai»ko euskaldunek merkatu guztiaren monopolioa zuten eta, orrela, merkaturako ziran euskaldun ontzi guztieri «bizkaitar» deitzen zieten... (192).

## *AURRERA NAIA*

1639'tik 1649'ra, amar urte oietan, baie-arrantza berpizteko asmoekin, Errege Felipe IV'k aginduak eman zitun gipuzkoar bale-ontziak arma-barku ez foiurtzeko iñolaz ere, ez eta beste edozeiñ lanetarako beartu ere. Arrantzaren petxak gutxitu zitun eta estranjeritik bear zituzten tresna eta estatxak ekartzeko baimena eman. Tresnak eta jakiak. Baiña, danak alperrik...

1645'an, Bilbao, Bermeo eta Gernika'ko erritar batzuek amabi ontzi erosi zituzten merkataritzarako...

Baie-arrantzarako jartzeko esan zieten Consulado de Bilbao'ko jauntxoak, beurak lagunduko ziela zailtasunak errezten... Dana alperrik izan zan: bale-arrantza, eriotzara dijoan bale-zaurituaren antza zuan alde guztietatik.

1686'an, bale-arrantza bakaillau-arrantza biurturik zegoan aspalditik, Liga de Ausburgo sortuta Prantzia eta Espaiña'ren arteko gerra asi zanean.

Bitartean, gerrak izan arren nazioen artean, gipuzkoar eta lapurtar arrantzalek euren arteko artu-eman paketsuak gordetzen zituzten eta

«concordia» edo «conversa» zeritzaten iritz-batasun edo itunak alkarrekin egiten zituzten alkarren pakerako.

1690'an itun oiek austeko agindu zuan Erregeak. Gipuzkoarrak ez zuten agindu au gogoz artu; ez bete ere, noski. 1693'an, iru urte geroago, Bergara'ko Junta Jeneraletan, Erregeari eskatzen diote bere agindua desegitiñ dezala... 1694'an (XI,3) Espaiña'ko Agintariak eta (IX,8) Prantzia'koak ontzat ematen dituzte euskaldunen arteko itun oiek, naiz eta eurak alkarrekin burrukan ibilli (192).

#### *TERRANOBA'KO GORA-BEERAK*

1695'an Lapurdi'rekin zeuzkaten itun aueri ezkerak, gipuzkoar bakaillau-arrantzaleek Terranoba'rako bideak irikita zeuzkaten. Eta, pakean zebiltzan.

1696'an, ordea, bertara arrantzara joan zan ontzi gipuzkoarra preso artu zuan Plaesance edo

Plazenzia'ko Gobernadoreak. Lapurtarrak ondo portatu eta garbi jokatu zuten auzi onetan eta erregeari euskaldun ontzia Gobernadorearen etzaparretatik askatzeko eskatu zioten... Ordurako Terranoba Prantzia'ren koloni egiña bait zegoan...

1697'an Prantzak eta Espaiña'arteko pekeak egiñak ziran. Alaz ere, egindako alegitiñ guztiak alperrikakoak izan ziran: Espaiña'ko ontzientzako Terranoba'ko ateak betirako itxita gelditu ziran...

Madrid'era jo zuten euskaldunek laguntza-billa. Alperrik. Madrid eta Paris ez zeuden alkarri mesedeak egiteko giroan. Naiz eta Lapurdi eta Gipuzkoak alkarren arteko itunak eginda euki, ez zituzten itun oiek ez batek eta ez besteak onartu: ez Madrid'ek, ez Pais'ek.

1699, 1701, 1702, 1705. Urte oietan auxe gertatu zan: gipuzkoarrek prantzes banderako kapitana artzen zutek ibeuren ontzietan, Terranoba'ra joateko (193).



S

## PLAZENZIA'KO TONBAK

Plaesance edo Plazenzia Terranoba'ko kaia dala esana daukagu. Garai bateko erririk nagusiena. Izena XVI gizaldiako itxas-karteetan agertzen da.

Ur-aundiko kaia; aize guztietatik gordea. Bakaillauz aberatsa. Defenditzen erreza... Doniane Loitzun'eko arrantzaleen batesa... Maite zuten Plazenzia'ko kaia Bidasoa-ibaitik goruzko euskaldunek...

Ez da ba, arritzeko, bertan euskaldunen arkeoloji-arrastoak arkitzea. Badira labeak bizitzarako ziranak, eta badira ere, illobiak eriotzarako. Euskaldunen illarriak daude Plazenzia'n.

Eta, euskeraz erebai.

1902,an, bost illari zeuden Plazenzia'ko anglikano-eliz-barru batean. Aurrerago, illarri oiek illerri edo zimitorio batean zeuden aizeetan eta bertako Gobernadoreak eleiza-barrura ekarri zitun, galdu ez zitezten. Aien berri Howley, Terranoba'ko arzobispo jaunak, eman zigun 1908'an (194).

Illarri oiek puskatuta daude.

Batak auxe dio bakar-bakarrik: *Joanes Sara.*

Bigarrenak: *Joannis de Hiriart.*

Beste bi illarri bakar bateren zatiak dira eta prantzesez daude: CY GIS JOANNES DE SUGARAICHIPI DIT CROISIC CAPITAINE DE FREGATE DU ROY 1694... Illarri onen beste alde, laugarren zatia, gero ikusiko degu.

Bostgarren arria, zaarrena, euskeraz idatzia: 1676.

Onela dio arriak alde batetik:

DAHEMEN  
HILA I...O  
MAI I 1676.

S

## LAS TUMBAS DE PLACENTIA

*Hemos hablado de este puerto que era el refugio habitual para muchos barcos de San Juan de Luz y de Ziburu.*

*Abundan allí los restos arqueológicos vascos, y entre ellos unas Idpidas funerarias.*


*La primera dice: Joanes Sara. La segunda: Joannis de Hiriart. La tercera, mds completa, es de Joannes de Suigaraichipi, capitán de fragata. Año 1694.*

*La mds antigua (año 1616) está redactada en euskera y dice: Yace aquí Gannis de Salece, hijo de Ana Usanonene.*



Los cuatro se llamaban Juan, pero su redacci6n en frances se presenta en cuatro formas diferentes: Joannes, Joannes, Joannis y Gannis.

La de Joannes de Suigaraichipi estd en dos trozos. Tenia por mote «Croisic»; era capitdn de la fragata francesa «Envilux» y murid en lucha con sus enemigos el a6o de 1694. Fue enterrado en Placentia (Plaisance).



Beste aldetik berriz:

GANNIS  
DESALE  
CE...ANA  
USANNO  
NENECO  
SEMEA.

Legasse Jaunak (Prefet Apostohxjue de St. Pierre de Miquelon), euskalduna eta euskalzalea lurralde aietan agertu aurretik, ezta-ta-larri zabiltzen bertako jaki6iak illarriari antzik eman ezi6nik. Howley berak, Legasse jaunarekin itz egi6 bai6o leenago, ildakoaren izena DAHEMEN zala esan oi zuan, eta abizena HILAIRE... Eta, beste guztiak, berriz, Jainkoak daki zer.

Howley jaunak, Legasse'rekin egon ondoren, onela lotzen ditu illarriko itzak:

DA HEMEN ILA I...O MAI I 1676.

I eta O oien tartean zerbait palta da. Jaki6 ez zer dan, ordea.

Arraiaren beste aldea onela irakurtzen du:

GANNIS DE SALE CESANA USANN ONENECO SEMEA.

Eta, prantzeseraz onela:

«Ci-git mort le ler. Mai 1676  
Jean de Sale Ce... ana  
Le fils (ou hereditir) de (la maison)  
de la plus douce odeur».

Gogoan eduki 'bear da GANNIS DESALECE ondoren zirriborro bat dagoela illarrian, eta Howley jaunak zirriborro orren orde, euskeraz, SA jartzen dula bere kasa; prantzesez idazten duanean, berriz, puntu batzuek (...).

Nik uzten dut arria bera argiagoa dala, berez, onela bait dio:

GANNIS DE SALE CE, ondoten zirriborroa, ANA USANNON-ENE-CO SBMEA.

Nere uztez ez da GANNIS DE SALECE, baizik. *Saletxe*

baserria bada Itziar'en. Gannis de Salece euskeraz, Saletxe'ko Joan izango litzake.

Beste aldetik, berriz, ez dut uzte USANN ONENE danik; USANNON-ENE baizik, Anton-ene, Paskual-ene bezela. USANN ONENE «le plus douce odeur» aldatzen du prantzesera: usai onena. USANNON-ENE bada, ordea ENE ori ez da *onenaren* zati bat, etxea agertzeko gramatikan erabiltzen dan atzizki bat baizik: Anton-ENE, eta Paskual-ENE bezelaxe.

ANA USANNON zer dan asmatu bear.

Ona lau ildakoen izenak:

Joanes Sara, Joannis de Hiriart, Gannis de Salece eta Joannes de Suigafaiohipi.

1676'koa zaarrena: Gannis de Salece.

1694'koa berriena: Joannes de Suigaraiohipi.

Lurak dute izena berdiñ: Joan.



Lurak era desberdiñean: Joanes, Joannes, Joannis eta Gannis.

\* \* \*

Eldu daiogun orain prantzesez dagoan laugarren illarriari (bi zatietan dagoena, alegia).

Alde batetik diona: CY-GIS JOANNES  
DE-SUIGARAICHIPI  
DIT-CROISIC-CAIP  
AINE-DE-FREGATE  
-DU-ROY  
. 1694 .

Beste aldetik: L'ENVEUX POUR  
L'HONNEUR DE MON  
PRINCE-IALLOIS-NE  
SUIVANT-SA-CARRIERE  
-ATTAQUER-LES-ENNE  
MIS-EN-LEUR-MESME  
. D M






Foto Antton Elizegi.

T

### SUIGARAITXIPI ITXASLAPUR-KAPITANA

Joannes de Suigaraichipi, ibere illarriak dionez, edo «Suigaraytchipi», beste toki batzuetan agertzen dan lez, Baiona'ko errian jaio zan, Galuperie karrikan, 3 zembakian.

Bere emazte Sabaudine de Haramburu'tik lau seme-alaba izan zitun: zaarrena, aitaren antzera, itxas-gizona; bigarrena, Bayona-Arrantzale-Kofradiako Sindikoa. Beste biak: alabak, Marie eta Catherine.

1694'an Terranoba'n illa. Plazenzia'n lurperatua, «En-vieux» gerra-ontziaren kapitan zalarik.

Egun aietan burrukak eta lapurketak alde guztietatik. «En-vieux» barkuak Terranoba'ko bideak egiten zitun arrantzale prantzesen babeserako.

Gure kapitana (DIT-CROISIC = gaitzizenez «Croisic») ill eta urrungo urtean, 1695'an alegia, «En-vieux» ontzia ikusten degu berriro Terranoba'ko San Joan kaiean. Abustuaren 12'an, andik Plazenzia'ra dijoa eta Plazenzia'n geldituko da Agorraren aizkenerarte; arrantzaleak beuren lanak bukatu arte, alegia. Aiek bere babesean ekarriko ditu etxera.

Suigaraitxipi kapitanak bere ezurrak Terranoba'n utzi zitun, beste euskaldun askoek bezela. Auen izena betirako galdu zan. Gure kapitanarenak dirau. Baditugu berriak. Ona emen (195).

Merkatari-ontzietan luzaro ibilli ondoren, 1691'an fragata ariñ bat «Legere» izenekoa prestatu dute Sugaraitxipik eta foere lagun batzuek. Garai artan Louis XIV zan Prantzia'ko errege.

T

### SUIGARAICHIPI EL CORSARIO

*Nacid en Bayona, calle Galuperie, numero 3.*

*Inicia su vida como marino mercante; pero los tiempos andan revueltos, el es audaz, y le tienta el corso.*

*Con la ayuda de unos amigos arma una fragata ligera, obtiene la patente de corso y sale a luchar contra españoles y holandeses.*

*Sus exitos son tales que el Gobernador de Bayona le solicita como socio; incitando a otros muchos capitanes a prepararse como corsarios, «arruinando el comercio español».*

*En los relatos siguientes hacemos uso del periodico «Gazete de France» que nos da amplia informacion de este corsario por sobrenombre «Croisic».*

*Enero de 1692: dos años antes de su muerte. Al salir con su fragata «Legere» de la barra de Bayona, se encuentra con el barco de guerra inglds «Princese», con 64 cañones.*

*Vna fragata tenia el casco alargado y ligero de una carabela, con tres mástiles de velas de cruz como los galeones. Podria tener 24 cañones; no mds.*

*Se enfrenta al ingles en condiciones de inferioridad; pero su maniobrabilidad y, sobre todo, su coraje suplen al resto. Detiene al barco y lo trae a Bayona. Fue vendido para la armada real y el nombrado «capitdn de fragata del Rey», como reza su epitafio.*

*A continuacdn de este nombramiento le vemos en la fragata «Aigle» de 300 toneladas, 26 cañones y 250 hombres.*

*Al año siguiente, 1693, realiza una serie de hazañas que relata día por día el mismo peridico.*

**Enero 28 de 1693:** *El Gobierno frances le envia a Spitzberg con una misdn de castigo. La expedicdn la componen, ademds de el «Aigle» de Croisic, la fragata «Favory» de Harismendy, de 26 cañones tambien, el buque-insignia «Pelican» de 50 cañones con capitdn de Saint-Malo y tripulacdn vasca y otro buque de Saint-Malo con tripulacdn normanda. Iban a undir holandeses e ingleses, desde Groenlandia 'hasta Spitzberg.*

*Salen el 20 de junio; el 20 de julio llegan al paralelo 63. Suigaraichipi pasa al buque-insignia para urgir la suhida inmediata a Spitzberg. El*

Itxas-lapurretarako baimena (patente de corso) lortu ondoren, espaiñol eta holandarren aurka bildurgarri agertu ornen zan. Ausarta zan bildurgafocia, eta ontziak ontzien gaiñean arrapatu zitun. Asko eta aberatsak ziran barku oiek; orregaitik Baiona'ko Gobernadore zan Gramont Dukeak, biak alkarrekin erdi-bana izateko eskatu zion gure kapitanari...

Gure kapitanaren ibillerak eta irabaziak, suzperu zitun Baiona'ko inguru guztiak itxas-lapurretarako griña sortu-araziz. Ontzi asko antolatu ziran itxaslapurretarako («ruinant le commerce des Espagnols») espaiñoleen merkataritzaren kaltean. Ingles eta holandesak ez zuten suerte oberik izan...

Askoren artean, aurrerago joateko bidea emango digun gertaera foat azalduko degu emen «Gazzete de France» izparringiak zekarren bezelatsu.

1692'an. Illbeltza. Kapitana ill foaiño foi aurte aurretik.

«Croisic», gaitzizenez, egun artan Baiona'ko barratik aurrera zijoan bere fragata ariñarekin. Izena ere alakoa zuan: «Legere».

Fragatak izaten ziran iru mastako ontziak. Iruetan eramaten zituzten gurutzeak, lau-kuadroko oialak esegitzeko beuretatik. Mastak eta oialak galeoiaren antzekoak; ontzia, berriz, karabalarena bezelakoa; ariña, alegia.

Ona 1680'an, 200 toneladako fragata ariñ baten neurriak: killak 84 oiñ zitun (27 metro eta 28 zentimetro), luzero osoak, 95 oiñ (30 metro eta 85 ztro.); killa baiño luzeago bait da ontziaren goiko-zatia, zabaleroak, 24 oiñ (7 mtro. 79 ztro.), beetik-gorakoak, 10 oiñ (3 mtro. eta 24 ztro.).

Gure kapitanaren ontzia au baiño apurtxo bat aundiago izango zan.

Barratik irtetzeairekin batera, «Princesse» zeritzan gerra-foarku-inglesarekin topo egiñ du. Etsaiak ziran. Inglesak 64 kañoi; berak erdirik ere ez.

Ausarta zala esana daukagu eta emen agertu zan berriro

bere barruko sua. Aurpegia eman dio ingelesari, eta, itxuraz bufruka desberdiña izan arren, bera gertatu zan irabazle eta txapeldun.

Baiona'ko portura sartu-erazi zuan ingles ontzia.

Gertakizun onen oroimenez, Suigaraitxipi'rentzak medailla bat eskatu zuan bere lagun Baiona'ko Gobernadore Graumont jaunak. Medailla bakarrik ez; andik bi illebeta, Martzoan, gure kapitana Erregearen armadan sartu zuten zuzen-zuzenean eta kargudun. Orregaitik Plazenzia'ko illarriak esaten digu:

«CAPITAINE DE FREGATE DU ROY».

Bai ba, barku inglesa armaz eta munizioz ondo ornituta zetorren, eta Rochefort'era eramanez ondoren, Erregearen serbitzurako gelditu zan.

Gertakizun auen ondoren, «Aigle» gerra-barkuaren 'buru ikusten degu; Fragata ariña au ere: 300 tonelada, 26 kañoi eta 250 gizon barruan.

Ontzi onekin egiñ zitun egitekoak.

1693'an, *Ilbeltzak* 28, urte bete ill-aurretik. Frantzia'ko Gobernuak, holandesen kaltean, ots aundiko osterata bat prestatu du Spitzberg'era.

Spitzberg oso goian dago, ia Ifarraldeko lur-ardatza-muturrean, «polo artiko» deritzan inguruan. Isla edo ugarte-saill batean dago Spitzberg. Ingumari aietara joanak ziran badeak igeska; baita arrantzaleak ere, balearen segika. Batez ere, holandesek.

Gobernuak antolatutako ontziak lau ziran: bi euskaldunak «Aigle» eta «Favory», Suigaraitxipi eta Harysmendi Louis (Biddarte'koa) biak kapitanak. Irugarren ontzia «Pelican» zeritzan, aundia, 50 kañoiduna. Berau zan talde osoaren buruzagi eta bere kapitana, Varenne jauna. Saint-Malo'ko barkua zan; baiña, Baiona'n zegoan, eta, Varenne ez, beste guztiak euskaldunak ziran barrukoak. Laugarren ontziak bazitun 40 kañoi. Mariñelak, kapitana eta ontzia, guztiak ziran Saint-Malo'koak. Kapitanaren izena, Beauchesne.

*comandante se resiste: auiere ejecutar la segunda parte de la misidn abandonando la subida a Spitzberg. Convocados los capitanes deciden seguir mds arriba.*

**Julio 29-31:** *capturan varios daneses que dejan en libertad y siete holandeses.*

**Agosto 1:** *de la zona de los hielos viene en la madrugada Suigaraichipi. Trae dos barcos holandeses y ha hundido otro. Hay 50 mds entre hielos. Dentro de pocos dias se verdn obligados a salir. Hay que ir en su busca. El comandante, que no sale. Que vayan ellos, los dos vasos.*

**Agosto 6:** *Niebla. Han capturado entre los dos siete barcos. Tras una lengua de tierra divisan la bandera holandesa y una serie de cañones.*

*Dentro de la ddrsen, 40 barcos holandeses de 10, 12 y 14 cañones cada uno, atados en media luna, esperando a los vascos. Cada barco, alrededor de 45 hombres.*

*Cinco horas de cañoneo, Han detenido 16 barcos; los demds han huido por una hendidura, arrastrados por sus chalupas.*

*Hay peligro de bloqueo por hielo. Los holandeses se quejan ante los vascos.*


**Agosto 7:** *Por la tarde salen del puerto con 11 naves. El resto las han hundido. A los diez dias llegan al lugar del buque-insignia. El otro buque de Saint-Malo llega del mar con dos holandeses de 14 y 16 cañones.*

*En total han capturado 28 barcos, de los que conservan solo once. Los demás los han quemado o hundido. Volviendo a casa, entre la niebla se escapa uno. Llegan con diez a San Juan de Luz.*

*Al año siguiente, en 1694, antes de la muerte, consta su presencia en Terranova como capitán de la fragata «Envieux»...*

Euskaldun ontziak ariñagoak ziran eta 26 kañoi foakarriz zituzten foakoitzak; besteak, berriz, 50 eta 40. Lau-ontziko talde oneri agindu au eman zioten: Groenlandia'tik zebiltzan holandes eta ingles barku guztiak ondoratu edo etxefa ekartzeko. pinamar-ka'koeri pakean uzteko.

1693-VI-20'an: Erregeak irtetzeko agindua emana zeukan; baiña, amar egun beranduago irten dute gaurko egunez, Doniane Loitzun'eko kaiatik. Egun artan bertan, portutik bi itxas-milla egin



Galeones y carabelas reunidos en los mares del norte americano.



orduko, iru kapitanekek pasa zkan «Pelican» ontzira, buruzagiak danentzako zeuzkan aginduak jakitera: berari, «Pelican» eko kapitanari, beste irurak men egiñ bear ziotela: bere mendean ibilli, alegia. Gaiñera, Varenne jaunak beste bi kapitan euskalduneri mesede au eskatu zien: emateko berari, bale-arrantzarako berri zekiten bi pillotu. Eman zioten biak.

Aizerik ez, eta foigarren egunean oraindik Santoiña parean zijoazten.

*1693-VII-20:* Illebete igaro da. Eldu dira ontziok paralelo 63'ra. Suigaraxipi, txalupa batean, bere komandantearen ontzira pasa da: konbeni zala len-bai-len Spitzberg'aldera joatea, berandu baiño leen, ez bait zuten, bestela, agindua betetzerik izango...

Varenne jaunak, buruzagi eta «Pelican» ontziaren kapitanak, biltzar-ikurriña jaso ondoren, etorri dira beste kapitanak ere.

Alkartu dira laurok eta buruzagiak bere asmoak agertu dizkie: obeago zutek, Spitzberg aldamen batera utzi eta zuten eginkizunaren bigarren zatia bete. Au da: Faroe eta Orkadas ugarteetara jo, itxas-kpurretan...

Besteek, ezetz: Spitzberg'era jo bear zutela izotzak eragotzi baiño leen, aizea beuron alde zutekrik... Buruzagia makurtu da foesteen esanetara eta zortzigarren egunean ikusi zituzten Spitzfoerg'ko lurraldeak.

*1693-VII-29'an:* Izotzeetatik zetorren ontzi bateri eldu diote; baiña, Dinamarca'koa zan. Aurrera joaten utzi diote. Aurrerago, kai batean beste

bi ontzi. Biak Dinamarca'koak. Andik milla batzuetara amabost edo amasei ontziekin topo egiñ dute... Alde egiñ diete; baiña, ez guztiak. Sei arrapatu dituzte: lau holandarrak eta bi danesak.

*30'an:* Haristegi'k 10 kañoidun ontzi holandeari eldu dio. Suigaraitxipi'k beste bateri.

*31'an:* Haristegi'k foi holandes eta danes foat arrapa ditu.

*VIII-1'an:* Suigaraitxipi, goizeko iruretan, izotz-arteko itxasotik etorri da, bi ontzi holandes alboetan ditula. Beste bat ondoratu du.

50 barku holandes ikusi ditu, izotz-artean. Harismendi eta bera, biok, buruzagiaren «Pelican» ontzira dijoaz, berri ematera.

—Ontzi oiek —dio Suigaraitxipi'k— egun gutxi barru andik irten bearko dute, edo bestela izotzetan artuta negu guztirako (sarritan gerta oi dana)... Oiek atzeman eta ondoratzea gauza erreza da oso. Goazen bertara eta gureak dira...

Buruzagiak, ezetz. Bera bertan geldituko dala, lendik arrapatuta zeuzkaten ontzien zaindari. Ondo deritzaiok Suigaraitxipi eta Harismendi, biak, joatea... Laugarren ontzia itxasotik dabill eta datorrean, bialduko duala bien ondoren laguntzera... Baiña, lana ariñ egiteko; joan-etorrian bizkor ibiltzeko, bere asmoak itxaso auetatik len-bai4en irtetzea bait da...

*VIII-6'an:* «Croisic» urduri dabill, baiña aizea makal. Bost egun auetan ez dira holandesek beuren kaira urbildu. Beste aldetik, berriz, kiño itsua sartzen da edo-noiz eta bat-batean.

Gau-erdian argitu du eta, leenago bederatzi zeuden tokian, iru besterik ez daude. Eldu diete irureri eta bertan daudela, or nun sartu diran beste lau. Zazpirakin ekiñ diote aurrera bidean, eta lur-mingaiñ-luze batekin topo egin dute.

Lurraren erpiñean holandes ikurriña eta kañoi-illara. Kaiaren aoa agertu da; barruan, 40 ontzi holandes illargi-erdi baten antzera jarriak, burrukarako prest. Holandesek 10, 12 14 kañoiko ontziak dira; zenbaitzuk emezortzi ere bai, badituzte. Bata-ez-beste 45 gizaseme barku bakoitzak...

Euskaldunak, bi ontzi: 26 kañoi bakoitzak.

Bost orduko burruka; euskaldunen ontzi bakoitzak 1.600 kaiñonkada bota dituzte. Bost ordu oien ondoren, holandesek alkari lotuta zeukaten lotura eten, eta alduenak, launa eta seiñaka txalupa aurretik tiraka, zulo batetik irtetseh alegindu dira.

Euskaldunek txalupa bana besterik ez dute, besteak burrukan galduak, eta eziñ ontzirik aurrera eramane. Alaz ere, amasei ontzi holandes arapatu dituzte bien artean. Suigaraitxipi eta Haristegi'ren ontziak oso maillatuak gelditu dira. Haristegi'renean bi gizon illak eta asko zaurituak. Suigaraitxipi'ren berririk ez dakigu...

Burruka-inguru guztia oso da arriskoduna. Mendiak aiñako izotz-taketak dabilta batetik bestera aizearen mendean eta irteerako bideak itxi oi dituzte ustekabeane, barruan ontziak preso artutik. Orregaitik holandes kapitane euskaldunen aurrean keixatu dira andik

len-bai-len barkuak ateratzeko, izotzak galduko ditula guztiak eta.

*VII-7'an:* Arratsaldean irten dute kaitik, amaika ontzi holandesekin, besteak ondoratuta gero. Ego-aldera dijoaz...

Buruzagia zegoan tokira, amargarren egunean eldu dira.

Saint-Malo'ko beste ontzia itxasoan ikusi dute, bi holandes ontzi preso ditula aldamenetan: 16 eta 14 kañoikoak dira.

Danetara etsaiek galdutako ontziak 28 dira. Oietatik amaika bakarrik gorde dituzte. Beste guztiak, erre edo ondoratu itxasoan.

\* \* \*

«Croisic» (Suigaraitxipi) kapitana izan da gertaera auen protagonista eta meriturik aundienekoa. Berak, billaka ibilli zalako, arkitu zitun 40 ontzi holandesak. Ausarta zalako ekiñ zion burrukari gogor, eta, aizkenean, bera garaille gertatu zan.

Bi Saint-Malo'ko ontziek beuren bidetik joan ziran. EuskaJdunek, berriz, Doniane'ra jo zuten amaika ontzi beurekin zituztela. Bidean, laiño-itsu batean, iges egin dio batek gure mutillari. Ez zan bertan-lo gelditu. Ibilli zan batera eta bestera, baiña alperrik...

*VIII-22'an:* Eldu dira Doniane Loitzun'era amar ontziekin.

*1694:* Ez da oso arritzeko, urrengo urtean, ontzi berri baten kapitan agertzea gure Suigaraitxipi.

«Envieux» zuan izena fragata berriak. Bizitza arriskuduna zan. Arriskuan sartzen oituta egon eta, azkenik, arriskuak galdu zuan. Gerran dabilena, gerrateah ill oi da. Suigaraitxipi, «Croisic», Terranoba'ko Plazenzia'n lurperatu zuten. Gaitz-erdi.

«Cy gis... capitaine de Fregate L'Envieux...  
J'allois... ataqer les enemis en leur mesme...»  
Ala dio bere illarriak:  
«Envieux fragataren kapitana naiz... emen nago... eurengana joan oi naiz etsaieri erasotzera...»




Foto Antton Elizegi.



Foto Antton Elizegi.

## UTRECH'EKO ITUNA

1700-1713: Espainia'ko Carlos II ondorengo aukeratzea daia-ta, gerra sortu zan: alde batetik Espainia eta Prantzia alkarrekin; bestetik Ingalterra, Holanda, Portugal eta Alemania.

Amairu urtean burukan ifeilli ondoren, guda amaitzen da «Tratado de Utrech» deritzan itunarekin. Pakea lortu eta pakeari iraun-afazteko, Felipe V, Anjou'koa, Espainia eta Prantzia'ko Erregeen biloba zana, aukeratu zuten Carlos II ondorengo bezela...

Terranoba'n euskaldunek arrantzan egiteko askatasun osoa ortik sortuko zala pentsa arren, gauzak ez ziran orrela gertatu.

Ingalterra eta Holanda gelditu ziran garaille eta nagusi. Inglaterra'k Prantzia'ri Hudson baiako inguruak eskatu zizkion: San Lorenzo ibaiaren aoa, Akadia zaarra eta Terranoba. Inglesak agintari, andik aurrea. Arrantzarekiko baimen guztiak inglesen eskuetan eta ez prantzeseneetan...

\*    \*    \*

1713, Ilbeltza: Ituna firmatu aurretik, Gipuzkoako Junta Jeneralak auxe eskatzen dio Espainia'ko Erregeari:

Euskaldunek Terranoba'n arrantzan egiteko zeuzkaten eskubide zaarrak zaintzeko ondo Utrech'en zebiltzan artu-emanetan.

Baietz, egingo zituztela alegiñak, Erregeak erantzun.

Egiñ ere bai.

Ingalterra'ko Ana Erregiña konforme zan «gipuzkoarreri eta beste Erregearen menpekoeri, Terranoba'rako bideetan zituzten eskubide zaar guztiak gordetzeko...»

## EL TRATADO DE UTRECH

*De 1700 a 1713 hay guerra en Europa: Francia y España contra Inglaterra, Holanda, Alemania y Portugal. Termina con el Tratado de Utrech. Vencen los ingleses y reclaman para si el Canadá, el Golfo del San Lorenzo, la antigua Acadia y Terranova.*

*Todo el poder y los permisos para pescar y mercar quedan en manos de los ingleses... „»*

*Las Juntas Generales de Guipuzcoa pidieron al Rey de España que defendiera en Utrech los viejos derechos de los pescadores vascos. Parece que la Reina de Inglaterra se avino a reconocer estos derechos; pero el resto del Gobierno, no.*

*Los ingleses no negaban el derecho de los vascos; pero se atenian a una ley del Parlamento, ley de 1698, por la que se prohibia en Terranova la pesca a todo extranjero.*

*Se lo autorizaban solamente a los que dependian de Francia...*

*1713-VIII-13:* Baiña, Ingalterra ez zan Erregiña bakarrik. Besteak ez zuten Erregiñaren naia ontzat eman inñundik-ere.

Itunaren 15 kapituloak onela dio erderaz:

«Y porque por parte de España se insiste sobre que a los vizcainos y otros subditos de su Majestad Católica les pertenece cierto derecho de pescar en la isla de Terranova, consiente y conviene su Majestad foritánica que a los vizcainos y otros pueblos de España se les conserven ilesos todos los privilegios que puedan con derecho reclamar...»

